

**TOPONIMIA ETA KARTOGRAFIA:  
OINARRIZKO ESKULIBURUA**

**Nerea Mujika Ulazia**  
Durango, 2002ko irailaren 16a

## **HITZAURREA**

Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Batzorde-Atal Bereziak "Toponimiari buruzko jarduketa-plana (1999-2001)" aho batez onartu zuen 2000ko apirilaren 13an. Plan horretan, toponimiaren alorrean egin beharreko lanak eta horien lehentasun-maila finkatu ziren. Lehentasun-maila handiko lanen artean Eskuliburu bat egiteko premia aitortu zen, toponimia alorreko ikerketa-lanak nola bideratu etazein urrats jarraitu azalduko zuena. Era horretako lan bat egin nahi duen edonorentzat gaiari nola heldu jakiteko tresna erabilgarria gertatuko zen gidaliburua eskaini nahi zen.

Helburu hori betetzeko, gai horretan aditua den Nerea Mujika Ulazia andreari, Deustuko Unibertsitateko Geografia irakaslea denari, lana egiteko eskatuzion Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Nerea Mujikak egindako lanaren emaitza dugu orain esku artean dugun gidaliburu hau, toponimiaren inguruan interesa izan dezakeen edonorentzat eta bereziki ikertzaileentzat, benetan baliagarria izan daitekeena. Ezin dugu ahaztu Euskal Herri osoan gero eta gehiago direla toponimiaren alorrean ikerketak egiten ari direnak, bai udalek emandako beken bitartez, bai berekasa. Horiei guztiei metodologia bateratua eskaintzea izan da gure helburua eta, orobat, gai hauetan berriak direnei, beren hastapeneko urratsetan argi egingo dien gidaliburua eskaintzea.

Patxi Goenaga Mendizabal  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

<i>AURKEZPENA</i> .....	8
<i>O. TOPONIMIA-LANETARAKO GIDEI ETA ESKULIBURUEI OHARRAK</i> .....	10
<i>I. AURRELANAK TOPONIMIA-LANETAN</i> .....	15
I.1. ITURRI IDATZIEI DAGOZKIEN AURRELANAK:	
ITURRIEN BALORAZIOA ETA HAUTAKETA.....	15
I.1.1. Kartografia iturriak .....	16
I.1.2. Dokumentazio-iturriak.....	20
I.1.2.1. Argitaratu gabeko dokumentazio-iturriak.....	20
I.1.2.2. Argitaratutako dokumentazio-iturriak.....	22
I.1.2.3. Toponimia datu-baseak Euskal Herrian .....	24
I.1.2.4. Errotulazioa paisaian .....	25
I.2. AHOZKO INKESTA TOPONIMIKOAREN AURRELANAK.....	25
I.2.1. Aurrelanan garrantzia .....	25
I.2.2. Inkestatzailearen hautaketa.....	27
I.2.3. Lekukoen hautaketa .....	28
I.2.4. Materialen eta kodifikazioen hautaketa .....	30
I.2.4.1. Materialen hautaketa .....	30
▪ <i>1:5.000 eskalako orria eta ortofotorria</i> .....	30
▪ <i>Toponimo zerrendak</i> .....	33
▪ <i>Grabagailua, argazki makina</i> .....	33
▪ <i>Aplikazio informatikoa</i> .....	34
I.2.4.2. Kodifikazioen hautaketa.....	36
I.2.5. Materialen prestaketa .....	36
I.2.5.1. Minuta toponimikoaren eta egiaztapen-fitxa puntualaren prestaketa .....	36
▪ <i>Minuta toponimikoa</i> .....	36
▪ <i>Egiaztapen-fitxa puntuala</i> .....	40
I.2.5.2. Orria/ortofotorria prestatu: markak eta erreferentzi puntuak ezarri .....	40
I.2.5.3. Ingurua ezagutu eta kodifikazio geografikoa landu .....	42
<i>II. DATU-BILKETA: DOKUMENTAZIO-BILKETA ETA LANDA-LANA</i> .....	44
II.1. FITXEI BURUZKO ARGIBIDE BATZUK .....	44
II.2. DOKUMENTAZIO BILKETA: ZER JASO, NOLA JASO... ..	47
II.2.1. Toponimo dokumentatuen bilketa .....	47
II.2.2. Toponimo kartografikoen bilketa .....	50

II.2.3. Iturri idatzietako informazioa grabatu datu-basean eta zerrendak atera.....	52
II.3. LANDA-LANA .....	58
II.3.1. Landa-lanaren garrantzia eta helburuak .....	58
II.3.2. Inkestaren alderdi geografikoa eta linguistikoa .....	61
II.3.2.1. Inkestaren alderdi geografikoa .....	61
▪ <i>Toponimoaren kokapena eta hedapena</i> .....	61
▪ <i>Entitate geografikoaren identifikazioa</i> .....	62
II.3.2.2. Inkestaren alderdi linguistikoa .....	66
II.3.3. Elkarrizketaren lehenengo urratsak.....	68
II.3.3.1. Lekukoarekin lehen harremanak .....	68
II.3.3.2. Elkarrizketarako beste aholku praktiko batzuk .....	68
▪ <i>Grabagailuaren beharra</i> .....	69
▪ <i>Zer material erakutsi lekukoari?</i> .....	69
▪ <i>Non apuntatu informazioa?</i> .....	70
II.3.4. Inkesta .....	70
II.3.4.1. Gomendio orokorrak.....	71
II.3.4.2. Inkesta orokorra.....	72
▪ <i>Prozedura</i> .....	72
▪ <i>Tratamendua</i> .....	75
II.3.4.3. Egiatzapen-inkesta .....	75
▪ <i>Prozedura</i> .....	76
▪ <i>Tratamendua</i> .....	77
II.3.4.4. Ahozko toponimoen fitxa .....	77
II.3.4.5. Inkesta orokorraren eta egiatzapen-inkestaren grabaketa datu-basean.....	82
 III. DATUEN TRATAMENDUA .....	 84
III.1. OINARRIZKO GAI BATZUK.....	84
III.1.1. Hautaketa-lana aldaera desberdinen artean .....	86
III.1.2. Hizkuntza ofizial bi, toponimo proposamen bi .....	86
III.2. TRATAMENDU GEOGRAFIKOA.....	86
III.2.1. Leku-zenbakiak eta puntu kartografikoak.....	87
III.2.2. Lekuen berrantolaketa.....	92
III.2.3. Puntu kartografikoen hautaketa, lanaren helburuaren arabera.....	93
III.2.4. Kodifikazio geografikoaren aplikazio zuzena .....	93
III.2.5. Toponimoaren orientazioa eta hedapena zehaztu.....	94
III.2.6. Koordenatu geografikoak ezarri lekuari.....	94
III.2.7. Informazio osagarria sartu.....	95

III.2.8. Tratamendu geografikoaren grabaketa datu-basean .....	95
III.3. TRATAMENDU LINGUISTIKOA .....	95
III.3.1. Zerrenda toponimikoei kontsultak egin.....	95
III.3.2. Ahozko toponimoak toponimo dokumentatuekin eta kartografikoekin erlazionatu.....	98
III.3.3. Aldaera askoren artean bat hautatu .....	98
III.3.4. Arazoa identifikatu .....	98
III.3.5. Arautegia aplikatu .....	98
III.3.6. Proposamenak egin: proposatu-araututako toponimoen fitxa.....	99
III.3.7. Tratamendu linguistikoaren grabaketa datu-basean .....	100
 <i>IV. TOPONIMIA-LANEN AURKEZPENA .....</i>	 102
 <i>OINARRIZKO GLOSARIOA.....</i>	 106
 <i>TOPONIMIA LANEN METODOLOGIAZ BIBLIOGRAFIA.....</i>	 115
 <i>ESKULIBURUAN ZEHAR AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA .....</i>	 120

## IRUDIEN ZERRENDA

1.- Toponimia-lanen metodologia-eskema orokorra .....	14
2.- Iturri kartografiko historiko baten adibidea .....	19
3.- Dokumentazio historikoaren adibidea .....	22
4.- Landa-lanaren oinarri grafikoak (37-30 orriaren eta ortofotorriaren zatia).....	32
5.- Aplikazio informatikoaren menu orokorra (pantaila) .....	35
6.- Minuta toponimikoa (37-30 orriaren zatia) .....	39
7.- Landa-lanerako prestatutako ortofotorria (37-30 orriaren zatia).....	41
8.- Entitate geografikoen hierarkizazioaren adibide bat .....	43
9.- Toponimo dokumentatuaren fitxa (pantaila) .....	49
10.- Toponimo kartografikoaren fitxa (pantaila) .....	51
11.- Dokumentuaren fitxa (pantaila).....	54
12.- Dokumentu kartografikoaren fitxa (pantaila) .....	54
13.- Pertsonen fitxa (pantaila) .....	55
14.- Pertsonak-Pertsona motak erlazio-fitxa (pantaila).....	55
15.- Egiaztapen-zerrenda geografikoa.....	56
16.- Egiaztapen-zerrenda dokumentala .....	57
17.- Inkestaren emaitzak (37-30 orriaren zatia) .....	74
18.- Ahozko toponimoaren fitxa (pantaila) .....	81
19.- Inkesta orokorraren zerrenda.....	83
20.- Leku-zenbakia eta puntu kartografikoa.....	88
21.- Lekuak eta erlazioen prozesua: leku berri baten sorrera (pantaila) .....	89
22.- Lekuak eta erlazioen prozesua: lekuen eta puntu kartografikoen erlazioa (pantaila) ...	90
23. Lekuak eta erlazioen prozesua: toponimo kartografikoen zerrendatik hautaketa-lana (pantaila) .....	90
24.: Lekuak eta erlazioen prozesua: lekuaren eta toponimo kartografikoaren arteko erlazioa (pantaila).....	91
25.- Lekuen berrantolaketa-lanak (pantaila) .....	92
26.- Lekuekin erlazionatutako toponimoen zerrenda .....	97
27.- Proposatutako erlazionatutako toponimoaren fitxa (pantaila).....	101
28.- Toponimia-lanaren aurkezpen mota bat. 37-30 ortofotorriaren eta orriaren zatia.....	105

## LABURDURAK

ARLM: Apeo y Reconocimiento de límites y mojones  
BRSVAP: Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País.  
BFA: Bizkaiko Foru Aldundia  
BFA / AFB: Bizkaiko Foru Artxiboa  
BPAH: Bizkaiko Probintzia Artxibo Historikoa  
EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa  
EHAA: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria  
ETD: Euskal Autonomia Erkidegoko Toponimoen Datu-basea  
GPAH: Gipuzkoako Probintzia Artxibo Historikoa  
GPS: Global Position System  
HPS: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
ICC: Institut Cartogràfic de Catalunya  
ICH: Índice de Contaduría de Hipotecas.  
IGC: Instituto Geográfico y Catastral  
IGN: Instituto Geográfico Nacional  
INGEBA: Instituto Geográfico Vasco "Andrés de Urdaneta"  
NBE: Nazio Batuen Erakundea  
SIG: Sistema de Información Geográfica  
UTM: Universal Transversal Mercator

## AURKEZPENA

Toponimia-lanak 90eko hamarkadatik hona ugaritzen joan dira; Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak euren toponimo datu-baseak dauzkate, edonork eskura dituenak; udaletxeek herri monografiak egiteko deialdiak zabaltzen dihardute eta gehienetan emaitzak argitaratu egiten dituzte. Ez dugu, ostera, Euskal Herri mailan, toponimia-lanen metodologiaren gaia asko jorratu. Oraindik ere, zoritxarrez, lan batzuk edo lanen atal batzuk errepikatu egiten dira ez direlako ezagutzera ematen edo koordinazio falta dela eta ... Horrela, ikertzaileak denbora asko alferrik galtzen du lan metodo zehatza eta argia topatzen.

Toponimia-lan baten helburu nagusien artean *lekuen izendapena finkatzea* dago, hau da, izena bere lekuan kokatzea eta zuzen idaztea. Horretarako izenak dokumentatu, jaso, sailkatu, hautatu eta arautu egin behar dira; eginbehar horietako bakoitzaren azalpena izango da eskuliburu honen ardatz nagusia.

Nondik hasi? Non lortu materiala? Nondik jarraitu? Eta azken batean, non amaitu eta nola zabaldu? Oinarrizko galdera hauei erantzuna ematen saiatu gara.

Gaur egun, gure herrietako toponimia-lan bat hasterakoan, ez dugu hutsetik hasi behar bai baitugu abiapuntutzat har dezakegun toponimo datu-base bat<sup>1</sup>. Hortaz, bertan eskaintzen den informazioari ahalik eta etekinik handiena ateratzen saiatuko gara. Horrez gain, ikertzailea, gomendio batzuei jarraituz, datu-base horretan erabiltzen diren kode, eremu eta erlazio berberak erabiltzen saiatzen bada, ikerketa berriaren emaitzak toponimia corpusean integratzeko modua izan genezake eta hau, duda barik, mesedegarri izango da guztiontzat, Euskal Herriko toponimoen corpus bakarra eta osatua eratzen lagunduko baitugu.

Eskuliburu honetan lantalde baten 15 urteko esperientzia laburtzen, ordenatzen eta sistematizatzen saiatu naiz. Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutuan, diziplina desberdinetako kideek osatutako lantaldea Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako toponimia-lanak egiteaz arduratu da. Ikerketa hauek, administrazioaren eskaerei erantzunez, ikuspuntu aplikatua izan dute beti: mapen informazio toponimikoa prestatzea. Horretarako, Nazio Batuek izen geografikoen normalizaziorako onartutako printzipioetan, Québec-eko Gobernuko Toponimia Batzordearen metodologian oinarritu gara. Euskal toponimia arautzeari dagokionez, Euskaltzaindiak onartutako irizpideak jarraitu ditugu.

Eskuliburu desberdinetan irakurritakoa eta esperientziadun inkestazailleengandik entzundakoa ere bildu dut lan honetan, proposatzen dugun metodologiaren urrats bakoitza hobeto dokumentatzeko asmoz.

Oinarrizko toponimia-eskuliburu hau lau ataletan banatzen da: aurrelanak, datu-bilketa, datuen tratamendua eta lanen aurkezpena.

Aurrelanen zatian, batetik, iturri idatzien balorazioa eta hautaketa eta, bestetik, inkesta toponimikoaren prestaketa nola egin azaltzen da. Bigarren atalean, dokumentazioaren hustuketaz eta landa-lanaren nondik norakoez jardungo dut. Hirugarrenean, datuen tratamendu geografikoaren eta linguistikoaren ezaugarriak ematen dira. Azkenik, emaitzak aurkezteko aukera desberdinak eskainiko ditugu.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi nizkieke bereziki, HPSko teknikaria den Mirari Alberdiri, egin duen zuzenketa-lan zehatz eta bikainagatik, eta baita Pablo Sagardoiri ere, txukun eta

---

<sup>1</sup> Hemendik aurrera EAEko Toponimoen Datu-basea (ETD) izena emango diogu. Informazio hau Eusko Jaurlaritzako web orrian ([www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)) zein Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan eskura daiteke.



zuzen prestatu dituen kartografia-lan guztiengatik. Erakunde mailan, HPSri eskerrak eman nahi dizkiot lan hau eskatzerakoan niregan jarri zuen konfiantzagatik eta baita ere BFAko Kartografia sailari eta Foru Artxiboari hemen agertzen diren materiale batzuen prestaketarako eman dizkidaten erraztasunengatik. Nire esker ona eskuliburu honen hasieratik amaierara zuzenean parte hartu duten DEIKEReko hainbat lankide eta laguni (Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi, Pili Lopategi, Aitziber Landa, Idoia Madariaga, Itziar Rubio, Rakel Varela...), euren aholkuak, esperientzia, orrazketa eta oharrak kontuan izan baititut eskuliburu honen makinatxo bat ataletan. Amaitzeko, etxekoen laguntzarik gabe eskuliburu honek ez zuen argirik ikusiko, beraiek eman baitidate behar nuen lasaitasuna eta kementa orrialde hauek idazteko.

Arlo honetan dihardugun guztiontzat erabilgarri eta lagungarri izan dakigula espero dut.

## 0. TOPONIMIA-LANETARAKO GIDEI ETA ESKULIBURUEI OHARRAK

Etnografia arloan bada ere, D. José Miguel de Barandiaranen eskutik 30eko hamarkadan "Cuestionario para una investigación etnográfica de la vida popular" izeneko lana argitaratu zen eta bertan toki-izenak biltzeko ardura agerian gelditu zen<sup>2</sup>.

Toponimia-lanak ugaritzen joan diren neurrian metodologia zehatz baten beharra ikusi da. Hori dela eta, *sistematizazio* hitza hor eta hemen aurkitzen dugu (Jimeno Jurío, Irigoyen, Mujika, Tort...). Orain 10 urte, J. M. Jimeno Juríok behar hau ikusten zuen:

*"había que adoptar un método de investigación y exposición claro, correcto y eficaz. No había que inventarlo; bastaba inspirarse en lo que vienen haciendo en Cataluña. Con Ricardo Ciérbide pergeñamos unas normas metodológicas provisionales, de acuerdo con las líneas señaladas por Joan Coromines..."*  
(1991b: 105)

1986an Euskaltzaindiak Vitoria-Gasteizen antolatutako I Onomastika Jardunaldietan, lurralde mailako toponimia-lanen esperientzia desberdinak (Bizkaia, Araba, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa...) aurkeztu ziren; horien artean J.M<sup>a</sup> Jimeno Juríoren "Recogida de toponimia. Ámbito, fuentes, metodología. La experiencia navarra" aipatuko dugu beranduago izango duen jarraipenagatik<sup>3</sup>. Bertan, bere esperientzian oinarrituta, hainbat argibide ematen ditu (zer jaso eta zer ez, lekukoak nola aukeratu, inkestaren lekua...). Handik urtebetera, *Eusker*a aldizkarian, "Presentación del borrador de <<Guía para la recogida toponímica del País Vasco>>" izeneko lana argitaratu zuen<sup>4</sup>. Sarreran gida honen beharra agertzen du:

*"A medida que las distintas comunidades lingüísticas llevan a cabo programas de investigación toponomástica, se hace imprescindible adoptar una metodología racional que haga más eficaces los resultados de las investigaciones. Uno de los elementos metodológicos, o más bien auxiliar práctico en el trabajo, pretende ser la encuesta o guía" (Jimeno Jurío, 1987: 429)*

Inkesta hau 1988an *Eusker*an argitaratu zuen "Encuesta toponomástica" izenburupean (Jimeno Jurío, 1988). Hauxe da Euskal Herriko ahozko toponimiaren bilketa egiteko ezagutzen dugun lehen gida<sup>5</sup>. Gida honen abiapuntua Iruñerriko toponimia inkesten bidez jasotako hiztegitxo da; honen ostean, "encuesta-directorio" bat bihurtuko da T. Buesa Oliverrek (1977)

---

<sup>2</sup> A. Manterolak "La escuela vasca de etnología" izeneko lanean galdetegi honetaz hitz egiterakoan dio: "Se observa que muchos temas de investigación surgen derivados de otros que anteriormente han sido estudiados o nuclearmente, o en uno de sus aspectos. Esta concatenación temática es clara expresión de la acumulación sucesiva de cuestiones que una investigación en profundidad plantea. Tal es el caso de las relaciones toponímicas... En esta línea, a partir de 1929, se prepara en el Laboratorio (de Etnología) un cuestionario para una investigación especial sobre toponimia" (1978-1985: 80)

<sup>3</sup> Jardunaldi berberetan, J.A. González Salazarrek Arabako toponimia biltzeko erabiltzen zuen metodoaren berri eman zuen "Toponimia menor actual en Álava" izeneko artikuluan.

A. Irigoyenek "Problemas de nomenclatura en la elaboración de mapas topográficos en áreas vascófonas de administración romanizante hasta el presente" izeneko lana azaldu zuen Vitoria-Gasteizko jardunaldietan. Bertan hainbat argibide metodologiko eman zuen.

<sup>4</sup> Lan hau Euskaltzaindiak Urduñan antolatutako II. Onomastika Jardunaldietan aurkeztu zuen.

<sup>5</sup> Egileak era honetara baloratzen du inkesta: "La encuesta tiene carácter auxiliar e instrumental, para orientar a los investigadores en la recogida de datos" (Jimeno Jurío, 1988: 289).

Jimeno Juríoren esanetan Luis de Eleizalde 1916an idatzitako "Indicaciones elementales sobre la formación y los usuales componentes de las voces toponímicas vascas" izeneko lana izan zen Euskal Herrian ezagutzen dugun lehen gida. Eleizalde sarreran lanaren arrazoa azaltzen du: "Muchas personas que se dedican con laudable celo a la recolección de voces de Toponimia vasca (...) nos encarecen la necesidad de tener a mano un opúsculo, a modo de sencillísima cartilla, donde figuren los más usuales componentes de las expresadas voces, con sus respectivos significados" (1916: 1). 6 atal nagusitan banatzen ditu: eraikuntza, topografia, hidrografia, mineralak, landareak eta onomastika eta lanbideak.

Aragoirako prestaturiko galdetegian oinarrituta eta euskaltzain batzuen oharrez osatuta. Inkesta hau 14 ataletan banatzen da<sup>6</sup> eta egileak aitortzen duen bezala, Nafarroako toponimia bilketarako pentsatuta dago; horregatik, bada, ez du itsasertzeko toponimia biltzeko balio (Jimeno Jurío, 1987: 432).

Toponimia arloko ikerketetan ahozko bilketa oinarritzko informazioa dugu baina badira beste arlo batzuk jorratu beharrekoak (aurrelanak, dokumentazioa, hizkuntza normatibizazioa, normalizazio geografikoa) (Aizpurua eta Mujika, 1987 eta Mujika, 1987 eta 1989). Ikuspegi oso hau azalduz eta bereziki toponimia eta kartografiaren arteko loturan oinarrituz hiru ikerketa desberdinen metodologia-txostenak idatzi ziren 1988tik 1994ra<sup>7</sup>.

Lehena, 1988an, Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutuan, N. Mujikaren zuzendaritzapean, burututako *Euskal Herriko Autonomia Elkarteko kartografiarako toponimia* izeneko txostena da; 1991n, J.M<sup>a</sup> Jimeno Jurioren zuzendaritzapean, *Nafarroa. Toponimia eta mapagintza (Bigarren argitarapena. zuzenduta eta osotua)* argitaratu zen; 1994an DEIKER Institutuan *Araba eta Gipuzkoako 1:5.000 eskalako kartografiarako toponimiaren finkapena* prestatu zen. Dena den, hiru lan hauek ez dira bete-betean toponimia-lanei buruzko metodologia liburuak, burututako ikerketa desberdinetan jarraitutako metodologia baizik<sup>8</sup>: lehena Bizkaian, bigarrena Nafarroan eta azkena Araba eta Gipuzkoan. 2001. urtetik aurrera Bizkaiko toponimia-lana berrikusten eta gaurkotzen ari gara; bertan jarraitzen den metodologiaren eskema orokorra 1. irudian ikus daiteke.

Azken urteotan martxan jarri diren eta argitaratu diren herri mailako toponimia-lan monografikoetan ere hainbat argibide irakur genezake<sup>9</sup>. Metodologiari eskainitako lerroetan, ikertzaile bakoitzak esperientziatik ateratako hainbat azalpen eta aholku interesgarri irakur dezakegu. Batzuetan izandako zailtasunak, atzera-aurrerako denbora galtzeak, zalantzak eta azken erabakiak ere kontatzen dizkigute. Esperientzia hau guztia, dudarik gabe, beste herriren bateko lana hasten duen ikertzaileak eskertuko du.

Euskal Herriko egoerarekin amaitzeko, Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutuak toponimia-lanen metodologiari buruz antolatu zituen bi ikastaroetan (1991n eta 2001ean) jasotako materialak ere baliagarriak izan daitezke<sup>10</sup>.

Euskal Herritik kanpo ezagutzen ditugun eskuliburuaren artean, kronologikoki ordenatuta, aipagarriak dira:

1965. urtean, toponimian aditua den Jean Poirierek Québec-en argitaratutako *Toponymie. Méthode d'enquête*. Bertan, besteak beste, gai hauek jorratzen ditu: inkestatzaileen eta lekukoaren ezaugarriak, galdeketa toponimikoa, jaso beharreko informazioa...

1985. urtean, Institut Cartogràfic de Catalunya (ICC) kaleratzen du J. Mollek eta J. Tortek idatzitako *Toponimia i cartografia. Assai de sistematitzazio* liburua. Erakunde horretan 1983an hasitako toponimia bilketaren eta ondorengo tratamenduaren irizpideak azaltzen dira. Toponimia, ICCren ustetan, prozesu kartografiko orokorraren barruan txertatuta dagoen gai bat da<sup>11</sup>. Beste gai batzuen artean eskala bakoitzaren balioa toponimia bilketetan, kodifikazio geografikoa, dentsitatea... aztertzen dira.

---

<sup>6</sup> Inkestaren datu orokorrak, toponimia nagusia, hiri toponimia, oronimia, hidronimia, geonimia, eraikuntzak, hagioponimia, fitonimia, fauna, bideak, nekazal industriak, adjetiboak, kokapena.

<sup>7</sup> Nafarroakoa bakarrik argitaratu da (Jimeno Jurío, 1991a); beste biak kontsulta daitezke Eusko Jaurlaritzako web orrian ([www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara))

<sup>8</sup> Aurrerago aipatuko den *Inventario de toponimia andaluza* lana ere multzo honetan sartuko genuke.

<sup>9</sup> Horietariko gehienak Euskaltzaindiak *Onomasticon Vasconiae* bilduman argitaratu ditu; beste erakunde batzuek ere, besteak beste Arabako Foru Aldundiak eta Labayru Ikastegiak, arlo hau bultzatu dute lan monografikoak kaleratuz.

<sup>10</sup> Ikastaro hauek bereziki toponimia-laneko inkestatzaile taldeari zuzendutakoak izan ziren. Lan materialak eta hitzaldien testu gehienak bibliografian sartuta daude.

<sup>11</sup> 1994an ICCko kide bik M.A. Lleonartek eta M. Parellak ikuspegi hau eguneratu zuten (ikus bibliografia).

Québec-eko Toponimia Batzordeak, 1986an, H. Hudonen *Méthodologie des inventaires toponymiques* izeneko eskuliburua argitaratu zuen<sup>12</sup>. Bertan, Nazio Batuek Izen Geografikoen Normalizaziorako emandako gomendioak jarraitzen dira. Besteak beste, lan honetan aurki ditzakegu inkesta toponimikoaren helburuak, inkestatzailearen heziketa, inkesta toponimikoaren aurrelanak, lekukoaren ezaugarriak, elkarrizketa, entitate geografikoa eta inkesta, ebaluaketa...<sup>13</sup>

1990ean Andaluziako Juntako Garraio eta Herrilan Sailak *Inventario de toponimia andaluza* izeneko lana argitaratu zuen 9 tomotan (lehena metodologiari eskainitakoa). Bertan toponimoa lurraldearen eta bereziki kartografiaren derrigorrezko elementutzat hartzen da. Ikerketa iturri kartografikoetan oinarritzen da nagusiki eta, ondoren, aurreko iturrien egiaztapen maila lortu nahi da landa-lanaren bidez, lagin bat hautatuz.

Valènciako Unibertsitateko Geografia departamenduak 1990-1991 ikasturtean “Mestratge de toponímia” bat antolatu zuen V. Rossellóren zuzendaritzapean. Ikasturte honetako irakasgaiak eta lan monografikoak argitaratu ziren *Materials de toponímia* izeneko liburuan. Bertan aurkitu ditzakegu, metodologia ikuspuntutik, gai interesgarri batzuk: “Proposta d’informatització de la toponímia” (A.V. Pérez i Piquer), “Notes metodològiques per a un estudi de la interrelació entre toponímia i cartografia” (J. Tort), “La encuesta oral” (X. Terrado)<sup>14</sup>...

1999. urtean Catalunyaoko Societat d’Onomàsticako R. Amigók *Introducció a la recerca en toponímia i antroponímia* izeneko liburua kaleratu zuen. Països Catalansetako onomastika arloko egoerari buruzko informazio gaurkotua eskaintzen du eta horrez gain, beste gai batzuen artean ahozko inkesta eta beste ohar metodologiko interesgarri batzuk ere azaltzen ditu (maiuskula eta minuskulak, artikulua, ordena...).

Urte berean, Lleidako Unibertsitateko irakaslea den Javier Terradok *Metodología de la investigación en toponímia* izeneko liburua argitaratu zuen. Hasierako kapituluaren toponimiaren diziplinartekotasuna azpimarratzen du; ondorengo kapituluetan, datu-bilketaren, tratamenduaren eta aurkezpenaren nondik norakoak azaltzen dizkigu era sistematikoan, berak ezagutzen dituen tresna, sailkapen eta baliabideak ezagutzera emanez.

Azkenik, 2001. urtean, Galiziako Xuntak “Planificación y Desarrollo Comarcal” sailaren bitartez, martxan jarri duen toponimia-lanerako dokumentu metodologiko interesgarri bat prestatu du (argitaratu gabea): “Proyecto toponimia de Galicia. Manual de metodoloxía para orientación da recolleita da información toponímica”.

---

<sup>12</sup> Lan hau gaztelaniara ere itzuli da (mekanografiatuta).

<sup>13</sup> Zabalkunde lanen artean Québec-eko Toponimia Batzordeak bideo bat ere argitaratu zuen, inkesta lanen garrantzia eta prozesu osoaren berri emateko.

<sup>14</sup> Artikulu hau bere liburuan (1999) agertzen da.



# I. AURRELANAK TOPONIMIA-LANETAN

Aurrelanan helburua datu-bilketari etekin hobeak ateratzea da, denborarik ez galtzea eta ez galdu araztea. Aldez aurretik informazioa ondo landuta daraman ikertzaileak konfiantza bat lortuko du eta ziurrago joango da datu-bilketa egitera.

Aditu guztiak bat datoz aurrelanan garrantzia azpimarratzerakoan<sup>15</sup>. Aurrelanetako batzuk berdina izango dira edozein ikerketatan (plangintza, baliabideak...); beste batzuk ostera, giza zientzietako<sup>16</sup> ikerketetan jarraitzen direnekin komunak izango dira (lekuko hautaketa eta tratamendua...). Hurrengo lerroetan batez ere toponimia-lanetan bereziki beharrezkoak diren aurrelanei buruz idatziko dugu: lehenengo, iturri idatziei eta bigarren, ahozko iturriei dagozkienak.

## I.1. ITURRI IDATZIEI DAGOZKIEN AURRELANAK: ITURRIEN BALORAZIOA ETA HAUTAKETA

Toponimia-lan batean erabil ditzakegun iturri idatziak hiru atal nagusitan bana daitezke: kartografia, bibliografia eta artxiboetako dokumentazioa<sup>17</sup>. Hirurek eskainiko dizkigute toponimoak: garai desberdinetakoak, kokapenarekin batzuk (mapak) edo kokapen zehatzik gabe beste batzuk (monografia, hiztegi geografiko, dokumentu...). Informazio hau guztia era desberdinean erabiliko da aurrelanetan, balio desberdinekoa izango da eta, aurrelan hauek ondo burutuz gero, inkestatzailea ondo dokumentatuta joango da inkesta egitera<sup>18</sup>.

Iturri idatzien aurrelanetan galdera hauei erantzungo diegu: Zer hustu, dena ala hautaketa egin?<sup>19</sup>. Zein irizpide jarraitu behar dugu hautaketa-lanetan?.

### I.1.1. KARTOGRAFIA ITURRIAK

Iturri kartografikoen barruan mapak, planoak eta krokisak (soilak zein edozein liburu edo dokumenturen zati direnak) sartzen dira. Iturri hauek beste iturri idatziekin konparatuz informazio osagarria eskaintzen dute: toponimoaren kokapena eta, neurri handi batean, toponimoaren hedapena (letra zabalduz edo estutuz). Horrez gain, mapetan txertatuta dauden toponimoek, letra motaren edo kolore desberdinen bitartez, entitate geografikoa ere adierazten digute (2. irudia).

<sup>15</sup> *Estudio previo: "El encuestador que trate de aplicar el cuestionario en pueblo ajeno deberá comenzar por conocer al menos unos rasgos de su personalidad histórica y social, y las características geográficas y toponomásticas ... Entrevistar a personas mayores de una localidad sin tener el menor conocimiento sobre ella es desaprovechar tiempo y oportunidades... Cuando el entrevistado comprueba que el otro conoce "su casa", su suelo, su vida, y comenta: "¿Tú eres de por aquí?", has ganado su confianza y te tratará como amigo. Es importante."* (Jimeno Jurío, 1987: 441)

<sup>16</sup> Inkesta etnografikoan, nekazaritza-geografian, hizkuntza atlasetan...

<sup>17</sup> Dokumentuetatik jasotako informazioa, argitaratuta egon arren, transkripzio hutsak izan ditzake, oraingo dokumentuetan egiten ditugun bezala, eskribauek ere egiten zituztela esan daiteke.

J. M<sup>a</sup> Jimeno Jurío dokumentuen kopiak direla eta hauxe dio: "los notarios y sus auxiliares se limitaron a copiar mecanográficamente un documento anterior manuscrito. En esta operación no es raro constatar errores de lectura e interpretación de una toponimia desconocida para ellos" (1986: 23).

Antzerako zerbait uste du I. Echevarriak: "Aunque el recabado de la documentación escrita tiene una gran importancia y proporciona un inestimable apoyo en la indagación histórica, ofrece también el grave inconveniente de los errores e intromisiones que puede haber cometido el que escribía. Por esta razón, por mucha, rica y buena que sea la documentación escrita con la que se cuenta, el corpus sólo quedará completo y a punto cuando se haya vertido en él el material de las encuestas" (Echevarría, 1991: 7-8).

<sup>18</sup> J. Corominesen ustetan mapa, plano, katastro, geografía, herri monografía... hustu ondoren eta behinbetiko inkesta burutzeko orduan inkestatzaileak herriko toponimiarik gehiena ezagutuko du (1970: 257).

<sup>19</sup> Irakur J. Terradoren (1999) "El acopio documental" atala.

Paperezko euskarriaren orde euskarri informatikoa aukeratzen badugu, kartografia automatikoaren edo Sistemas de Información Geográfica (SIG) delakoaren barruan, toponimoek badute beste informazio garrantzitsu bat: toponimoak geo-erreferentziatuta daude; hau da, toponimo horren edo, hobeto esanda, leku horren koordenatu geografikoak zehaztuta daude. Toponimista baten edo erabiltzaile baten ikuspuntutik informazio honek balore praktikoa du bilaketak egiteko orduan. Ostera, informazio honek muga bat dauka: koordenatu geografiko hauek erreferentzia "puntual" bat direla eta, beraz, toponimo puntualentzat baino ez dutela balio (ermita baten izena, gurutze batena...); ondorioz, ez da zeharo zehatza izango toponimo zonaletarako (basoa, auzoa...) edo linealetarako (erreka, errepeidea...).

Iturri kartografikoen balorazio orokorra egin ondoren, iturri kartografiko guztiek ez dute maila bereko balioa erakusten. Balorazioa egiteko ondorengo irizpideak kontuan hartzea gomendatzen dugu:

- a) Garaia
  - b) Eskala
  - c) Jatorrizko iturria ala eratorria den
  - d) Iturri kartografikoen balorazio txostenak
  - e) Toponimia tematikoaren irizpidea
- a) **Garaia:** Mapa, plano edo krokis historikoen<sup>20</sup> aparteko balioa dute nahiz eta sarritan, kalitate eskasekoak izan (orduko baliabideak izan behar dira kontuan).

Orain 40 edo 50 urte, toponimoen erabilera, gaurkoaren aldean, askoz ere zabalduagoa zegoen; hori dela eta, pentsa daiteke orduko kartografiak agertu beharko lukeela, teoriarik behintzat, aberastasun hori (grafia tratamendua alde batera utzita). Salbuespenen batean izan ezik, ordea, ez da hori gertatzen, beharbada kartografiaz arduratzen ziren teknikariak eta erakundea bera ere, gehienetan, Madrilgoak zirelako. Hala eta guztiz ere, garai honetako kartografia hain urria denez, ezin daiteke zuzenean, besterik gabe, baztertu.

Azken urteotan argitaratu den mapa askok, nahiz eta baliabide hobeak izan eta bertan eginak izan, ez dute, toponimiaren ikuspegitik, aparteko tratamendurik izan<sup>21</sup>. "Helburu toponimiko" argi batez kaleratutako kartografia tematikoan, ostera, beste tratamendu bat ikusiko dugu. Hauen guztien artean hautaketa egin beharko da.

- b) **Eskala:** Orokorrean esan daiteke dentsitate toponimikoa eta eskala oso loturik doazela: eskala txikiko mapek (1:100.000, 1:200.000...), jakina, informazio toponimiko gutxiago, orokorragoa onartzen dute eskala handikoek baino (1:2.000, 1:5.000, 1:10.000). Ondorioz, kontuan izan beharko dugu zein den gure lanaren helburua (eskala handia, ertaina...) eta horren arabera hautatu beharko ditugu kartografia iturriak.  
Ad.: gure lan eskala 1:5.000 bada, ez du merezi eskala handiko mapen toponimia hustea toponimo nagusiak izango direlako eta, gainera, eskala aldaketak batzuetan zehazgabatasunak ekar ditzakeelako.
- c) **Jatorrizko kartografia iturriak eta eratorriak:** Kartografia historikoen<sup>22</sup>, normalean behintzat, kontsulta daitezkeen iturri kartografikoetako toponimia originala da;

<sup>20</sup> Azken urteotan inbentario kartografikoekiko ardura zabaldu da, bai kartografia historikoen eta bai kartografia modernoaren atalean. Horien inguruan, batzuetan, erakusketak ere antolatu dituzte (Foru aldundiek, Euskal Museoak, Euskaltzaindiak, INGEBAk...) eta balio izan digute sarritan plano edo maparen bat topatzeko.

<sup>21</sup> Landa-lana, kontsultak erakunde espezializatueta...

<sup>22</sup> Kartografia historikoa eta modernoaren arteko bereizketa ez da batere argia. XX. mendeko mapa batzuk, historikotzat har daitezke. Erabil daitezkeen irizpide bat hauxe izan daiteke: jatorrizko dokumentu hori ea gaurkotu den ala ez... Kartografia historikotzat hartuko nituzke, ad. 20ko hamarkadako Bizkaiko Foru Aldundiko 1:25.000 eskalako mapa; 50eko hamarkadako *Catastro de Riqueza Rústica*...

kartografia modernoan, ostera, sailkatu egin behar dira zeintzuk diren jatorrizko iturriak eta zeintzuk eratorriak. Hauxe da toponimista batek, iturri horren hustuketa egin aurretik, burutu behar duen lehenengoetariko lana.

Dokumentuekin gertatzen den bezala, ahal den neurrian, dokumentu originalera jo behar dugu; hau dokumentazio munduan dabilzan paleografoek, filologoek... ondo ezagutzen duten kontua da; sarritan dokumentuak berak adierazten du dokumentua kopia dela...<sup>23</sup>. Mapetako toponimiarekin ere gauza bera gertatzen da baina ez da mapa barruan espreski adierazten: datuak aztertu ondoren (data, grafia, kokapen aldaketak...), ondoriozta daiteke bigarren bertsio baten aurrean gaudela. Hau da, bada, argitu behar den lehenengo puntua. Jakina, ahal den neurrian, jatorrizko kartografia iturriak hustuko ditugu.

Ad.: Bizkaiko Foru Aldundiko (1925. urteko) 1:25.000 eskalako kartografiako toponimia jatorrizkoa da eta ostera Instituto Geográfico y Catastralekoa (50eko hamarkadakoa) eratorria da.

*Goikobide* (BFA)/*Goitobide* (IGC)

*Ugartebarri* (BFA)/*Udaratebarri* (IGC)

- d) **Iturri kartografikoen balorazioak:** Ezagutzen ditugun lan bi aipatuko ditugu. Lehenengoa, M. Alberdik (HPSko teknikaria) eta N. Mujikak 1999an idatzi zuten txostena: *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzan kokatuta dagoen toponimia datutegiaren erabilpen maila herri aginteen kartografia ofizialean*. Bertan EAEko toponimia datu-basearen erabilpen maila aztertzen zuten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren kartografia ofizialean.

Bestea, P. Galék argitaratutako *Bizkaiko gailurren katalogoa. Catálogo de cimas de Bizkaia* da. Bere lanean erabilitako iturri kartografikoen azterketa kritikoa egiten du, Bizkaiko gailurren toponimiara mugatuta gehienbat. Ateratzen diren emaitzek beste entitate geografikoetarako ere balio dutela esango genuke.


- e) **Toponimia tematikoaren irizpidea:** Badira entitate geografiko mota batzuk zailagoak direnak dokumentatzen (ad. erreka izenak). Dokumentu batek, aparteko baliorik izen ez arren, era honetako entitate geografiko bat edo batzuk baldin badakartza, merezi du hustea, gure ustez.

---

<sup>23</sup> Este documento fechado el día... es copia de...



## 2. irudia: ITURRI KARTOGRAFIKO HISTORIKO BATEN ADIBIDEA



Iturria: BFAko Kartografia Saila, 1:25.000 eskalako "Mapa Topográfico de Vizcaya. Término Municipal de Górliz" (1923? urtea). Kontsultagai BFAko web orrian ([www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net))

## I.1.2. DOKUMENTAZIO-ITURRIAK

Iturri dokumental orokorren artean hainbat sailkapen desberdin egin daitezke. Gure helburuari begiratuz, banaketa hau jarraituko dugu: argitaratu gabeak eta argitaratutakoak.

### I.1.2.1. Argitaratu gabeko dokumentazio-iturriak<sup>24</sup>

Lehenengo eta behin, artxibo nagusiak (aldundietakoak, Historiko Probintziala, Elizarena, herri mailakoak, Jabetza-erregistroko artxiboa...)<sup>25</sup> non aurkitzen diren jakin beharko dugu. Euskal Herritik kanpo baditugu beste batzuk: Chancillería de Valladolid, Archivo General de Simancas, e.a. baina toponimia-lan bateko lehenengo urratsak emateko nahikoa izango dugu Euskal Herri barruan dauden artxiboekin<sup>26</sup>.

Iturri kartografikoekin egin dugun moduan, dokumentazioa hautatzeko irizpide batzuetan<sup>27</sup> oinarrituko gara:

- a) *Ikerketaren eremua eta lan plangintza*: ez da berdina izango lurralde oso bateko ikerketa burutzea 24 hilabetetan edo, epe berdinean, herri bat aztertzea.
- b) *Ikertzailearen heziketa eta transkripzioaren zailtasun maila*: ez da beharrezkoa paleografoa izatea baina komenigarria da garai bakoitzeko idazkera menperatzea. Arrazoiak argia da: irakurketa zehatza behar-beharrezkoa da, ondoren datozen arautze-lanak fidagarritasun maila altuarekin burutzeko. Horrez gain, beste arlo batzuetako ezagutza izatea ere gomendagarria da: euskara, latina, gramatika historikoa, tokiko geografia eta historia...
- c) *Toponimoen dentsitatea*: transkribatzen ematen den denboraren eta lortzen diren emaitzen arteko proportzioa neurtu behar da.
- d) *Toponimo motak*: lanaren helburu orokorrari begira, kontuan har dezakegu ea toponimia nagusia, ertaina edo txikia nagusitzen den dokumentu batean edo ea toponimia monotematikoa (ad. *Fogeraioak*) edo politematikoa (ad. *Límites jurisdiccionales*) den nagusi (3. irudia).
- e) *Homogeneitatea*: irizpide hau "makroikerketetan" hartzen da kontuan. Ezin dugu, dokumentazioaren ikuspuntutik, lurraldea desorekatu: ahal den neurrian, dokumentu orokorretara jo behar da, herri guztiak maila berean edo antzekoan dokumentatzeko. Bestetik, gomendagarria da mugako herrietako ikerketetan erabilitako dokumentazio tipologia parekoa edo antzekoa izatea. Batzuetan hau ezin izaten da egin, batetik, foru aldundi bakoitzak, kudeaketa mailan, autonomia altua izan duelako eta gainera, dokumentazio ondareak ez duelako kontserbazio maila bera gorde.
- f) *Seriazio kronologikoa*: dokumentuek bilduma nahiko homogeenak osatzea ahalik eta epe luzeena hartzen dutela<sup>28</sup>.

<sup>24</sup> Atal hau 1999. urtean HPSk eskatu zigan txosten batean oinarritzen da, *Informe-valoración de fuentes documentales inéditas válidas para los trabajos de normalización de la toponimia de Bizkaia* (N. Mujika, koor.; J. Enríquez eta E. Sesmero).

Ikus J. Caro Barojak 1949an idatzitako artikulua ere: *Proyecto para la elaboración del fichero de Toponimia y Antroponimia vasca medieval*, BRSVAP, V, 381-385. orr.

<sup>25</sup> Euskal Herriko artxiboen berri izateko kontsulta daiteke Eusko Ikaskuntzak argitaratutako *Censo de Archivos del País Vasco*. Euskadiko Agiritegiei eta Ondar Dokumentalei buruzko informazioa IRARGIren (Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa) web orrian kontsulta daiteke ([badator@irargi.org](mailto:badator@irargi.org) edo [info.irargi@irargi.org](mailto:info.irargi@irargi.org)).

<sup>26</sup> Halaxe adierazten dugu aipatutako txostenean (*Informe-valoración...*): "no se han tenido en cuenta los archivos sitios fuera de Bizkaia –Chancillería de Valladolid, Archivo General de Simancas, etc., cuya complejidad exigiría un segundo estadio de investigación. No obstante, a juicio de los redactores del informe, los fondos conservados dentro del territorio son de riqueza más que suficiente para garantizar el mejor resultado al proyecto de que se trata" (1).

<sup>27</sup> J. Terradoren ustetan iturrien hautaketa irizpide geografikoetan (eremuaren mugaketa), kronologikoetan (mende bakarra edo batzuk) edo tipologikoetan (dokumentu mota bat aztertuz) oinarritu daiteke (1999: 46).

<sup>28</sup> Terradok hiru edo lau ebaketa sinkroniko egitea proposatzen du "en el conjunto de estratos toponímicos" (1999: 46).


Dokumentazio zaharren hustuketa egitea baliagarriagoa dela onartzen da orokorrean.

- g) *Fondo dokumentalen antolamendua eta deskribapena*: informazio maila berdintsua duten dokumentuen artean hobeto antolatuta daudenak eta, ahal den neurrian, informatizatuta daudenak<sup>29</sup> hautatzea komeni da.

---

<sup>29</sup> Artxibo gehienetako katalogazio eta informatizazio lanak oso aurretatuta daude. Katalogazio fitxan, askotan aurkituko dugu "identificador" izeneko eremua. Honek dokumentuan agertzen diren toponimoen berri emango digu, nahiz eta batzuetan horietako batzuek (toponimo nagusiek eta ertainek batez ere) ez dituzten isladatzen dokumentuan agertzen diren aldaera guztiak. Hala eta guztiz ere, "identificador" eremu honen (edo antzekoaren) bidez datutegian toponimoa eta txertatuta dagoen dokumentua aurkitzeko modu praktikoa eta azkarra izan daiteke.

### 3. irudia: DOKUMENTAZIO HISTORIKOAREN ADIBIDEA



Iturria: BFA/AFB (Administrazio atala); 1704tik 1798ra bitarteko Bizkaiko Fogeraioak; Iurreta (1704), 279. orrialdea.

#### I.1.2.2. Argitaratutako dokumentazio-iturriak

Mota askotakoak dira; multzo nagusi bitan sartu ditugu: iturri historikoen transkripzioak batetik eta bibliografia orokorra bestetik.

- a) *Iturri historikoen transkripzioa*: Ikertzaile arruntari, paleografoa ez denari, hasiera batean asko erraztuko dio lana atal honetako liburu sortak. Lan hauek erabiltzerakoan, filologoen ustez, komenigarriagoa da jatorrizko dokumentura jotzea, askotan transkripzioek ez dituztelako garantia guztiak eskaintzen. Gomendagarria da beste batzuek egindako irakurketak egiaztatzea.<sup>30</sup>

EAEren kasuan, 1984an Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako egitasmo bati jarraituz eta Erdi Aroko transkripzio programa baten barruan, Eusko Ikaskuntzak 100 liburutik gora argitaratu du, 1985. urteaz geroztik, "Fuentes Documentales Medievales del País Vasco" sailean.

Dokumentazio-iturriak husterakoan, kontuan hartu beharrekoa hau litzateke: transkribatutako dokumentua originala ala kopia den eta aurkibide toponimikoaren nolakotasuna (bertan agertzen diren toponimoak ez dira beti izaten dokumentuaren transkripzioan agertzen direnak).

Badira beste lan batzuk iturri dokumentalen hustuketak direnak: ad. Araban, López de Guereñuren *Toponimia alavesa...*; Bizkaian, A. Irigoyen eta E. Olasoloren *Nombres de familia y oicónimos...*, Gipuzkoan, L.M<sup>a</sup> Mujikaren *Euskal toponimiazko materialeak*.

<sup>30</sup> "En ocasiones la transcripción moderniza las gráficas o mutila el texto, omitiendo fragmentos que el editor juzga poco relevantes para el contenido" (Terrado, 1999: 42).

- b) *Bibliografía orokorra*: Historia liburuek, herri mailako monografiak, hiztegi geografikoak edo historikoak, geografia liburuek... toponimia ugari azaltzen dute, batzuetan, orrietan zehar sakabanaturik eta beste batzuetan zerrenda gisa, aurkibide toponimikoarekin zein aurkibide toponimikorik gabe.

Informazio toponimikoa hiru erataria ager daiteke liburuaren barruan:

- Deskribapenak erreferentzia geografikoekin osatuta: azalpen hauek toponimoen kokapena finkatzen lagunduko digute.

“Después de la honda *depresión de Olarrega*, por donde corre el río *Ego* (...), se alza el *monte Urco*, que separa las cuencas del citado *Deva* y del *Artibay*. El *Urco* se enlaza con el *monte Max*, y por el *puerto de Urcaregui* y por las alturas que dominan a *San Andrés de Echevarría*, se une con el *monte Arno*. El collado o puerto por donde esta unión se verifica, lleva el gráfico nombre de *Arnoate*, aunque el vulgo abusivamente le llama *Arranoate*” (Carreras y Candi, 1911-1925: *Geografía del País Vasco-Navarro*, V. bol., 26. orr.)

- Erantsitako aurkibide toponimikoak edo zerrenda toponimikoak normalean alfabetoz ordenatuta agertzen dira<sup>31</sup> eta honek kontsulta edo hustuketa lana erraztu egiten du. Aurkibide toponimikoak eta zerrenda toponimikoak informazio desberdina dakarte: lehenengoak, liburu barruko orriaren erreferentzia ematen digute eta osagai berezitik hasten dira:  
Ad.: *Arnoate, collado, 26; puerto, 351* (CARRERAS Y CANDI, 1911-1925).

Bigarrenak gehienetan osagai berezitik hasten dira, jarraian gehienetan iturriaren erreferentzia, urtea, kokapena, entitate geografikoa eta oharrak (etimologia, azalpenak...) ekartzen dituzte.

Ad.: *Aburnikano*: Término de Galdames, siglo XV “*Aburnicano*”. Hoy *Aburnizano* y *Abornizano*. En Alava existe la variante *Abornikano* en la aldea de su nombre, documentada en 1257 con la forma *Aburnicano...*” (Sasía, 1966: 88)

- Toponimo soilak: edozein idazkitan ager daitezkeenak.  
Ad.: “En la barriada de *Gaztelúa* se ofrece una circunstancia muy notable. *Gaztelu* significa castillo, y agrupadas hay en esta barriada cuatro viejas casas que llevan los nombres de *Gaztelubéitia*, *Gaztelugáya*, *Gazteluitúrri* y *Gaztelu-urrútia...*” (Delmas, 1864: 298. orr.).

### I.1.2.3. Toponimia datu-baseak Euskal Herrian

90eko hamarkadaren amaieratik zabalitzen hasi dira interneten bidez toponimia datu-baseak<sup>32</sup>. Orain arte ezagutzen ditugunak administrazio desberdinek martxan jarritakoak dira: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ([www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)), Nafarroako Gobernuak ([www.toponimianavarra.tracasa.es](http://www.toponimianavarra.tracasa.es)) eta Frantziako Institut Géographique Nationale-k ([www.ign.fr/fr/pl/activites/toponymie](http://www.ign.fr/fr/pl/activites/toponymie)). Hauek gainera datu-base geo-erreferentziatuak dira, beste era batera esanda, erreferentzia kartografikoak dituztenak<sup>33</sup>.

<sup>31</sup> J.E. Delmasek (1864) aurkibide toponimikoa gaika ordenaturik aurkezten du: “Lista de las principales feligresias, barrios, ermitas, edificios notables, montes, ríos y peñas del Señorío de Vizcaya”.

<sup>32</sup> Kasu gehienetan, abiaburuko toponimia datu-baseek sarean jarrita dagoena baino informazio gehiago izaten dute.

<sup>33</sup> Toponimiarekin zerikusia duten web orriak [www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara) n agertzen dira. Garrantzitsuenak Canadákoa, Estatu Batuetakoa, Frantziako IGNkoa eta Suitzakoa. Horrez gain, ICCko A. Leonartek emandako informazioari esker, Finlandiako National Land Survey erakundea ([www.kartta.nls.fi](http://www.kartta.nls.fi)) gehituko genuke.

Hortik aparte, administrazio desberdinetako sistema kartografiko berrietan, informazioa geruzetan antolatua dago eta toponimia geruza batean edo batzuetan bilduta daukate). Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak ([www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net)), Gipuzkoako Foru Aldundiak ([www.gipuzkoa.net/web5.000](http://www.gipuzkoa.net/web5.000)) eta Arabako Foru Aldundiak ([www.alava.net/cartografia](http://www.alava.net/cartografia)).

Artxiboen arloan ere badoaz datu-base sendoak eratzen. Orokorrean, informazio honen guztiaren kontsulta asko erraztu da azken urteotan nahiz eta egoera oso desberdinak aurkitu oraindik ere batetik bestera.

Gaur egun, IRARGIk –Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroak- bere web orrian Euskadiko Agiritegiei eta Ondare Dokumentalari buruzko informazioa eskaintzen du *Badator* izeneko datu-basearen bitartez ([badator@irargi.org](mailto:badator@irargi.org) edo [info.irargi@irargi.org](mailto:info.irargi@irargi.org)). Artxiboaren fondoaren jatorria honako hau da: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa, udal administrazioa, foru administrazioa, Estatuko administrazioa eta pertsona edo erakunde ez publikoen fondoak.

#### **I.1.2.4. Errotulazioa paisaian**

Ohizko iturrietatik kanpo gelditzen bada ere, eragin handia duen informazioa da. Batez ere erakunde publikoak errotulazio lan ugari egiten ari dira azken urteotan. Iturri bat gehiago lez, errepideetako, kaleetako, komertzio eta zerbitzuetako errotulazioan erabiltzen den toponimia jaso egin behar da daukan eraginagatik.

Errotulazio hori hiru eratarara ager daiteke:

- a) Hizkuntza bakarrean (gaztelaniaz ala euskaraz): *Elexalde auzunea*
- b) Bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz (osorik)/gaztelaniaz (osorik): *Puerto de Urkiola/Urkiolako mendatea*
- c) Bi hizkuntza ofizialetan (bertsio elebidun laburtua): *Instituto Fray Juan de Zumarraga Institutua*

## **I.2. AHOZKO INKESTA TOPONIMIKOAREN AURRELANAK**

### **I.2.1. AURRELANEN GARRANTZIA**

Ikerlari desberdinek hitz egiten dute aurrelanez euren metodologia lanetan eta denak bat datoz gai hauek aipatzerakoan: lanaren “razionalizazioa”, denbora galtzeak murriztea... Azken batean etekin hobekak ateratzea inkestari<sup>34</sup>.

Québec-eko Toponimia Batzordeak argitaratutako “Méthodologie des inventaires toponymiques” izeneko liburuak kapitulu oso bat eskaintzen dio toponimia inkestaren aurrelanei lau puntutan banatuz: landu behar den lurraldearen azterketa, inkesta egiteko beharrezkoa den materiala, inkestatzailearen prestaketa psikologikoa eta aurreikus daitezkeen zailtasunak.

---

<sup>34</sup> “El investigador que acuda con las manos en los bolsillos y sin varias horas de trabajo previo perderá una parte de la información posible” (Terrado, 1999: 31)

“Antes de ir al territorio ... el encuestador reúne un máximo de datos. Esta etapa muy importante le permite racionalizar su programa de trabajo informándole de los elementos para verificar y puede así evitarle desplazamientos o encuentros inútiles” (Hudon., 1986: 25. orr., gaz. berts.)

“El éxito de un proyecto de encuesta dependerá en gran medida de la preparación del mismo, independientemente del objetivo del proyecto o de su envergadura” (Echevarría, 1991: 9-10)

J.M<sup>a</sup> Jimeno Juríok bere “Encuesta toponomástica”ren metodologiari buruzko atalean, aurrelanean dioena jasotzen dugu: “Estudio previo” atalean ondorengo puntuak aztertzea gomendatzen du: tokiko geografia, historia, errealitate sozio-ekonomikoa eta toponomastikoa. Horretarako bibliografia, oinarrizko material toponomastikoak, planoak eta mapak kontsultatu behar dira eta lurraldearen ikuskapena egitea ere gomendatzen da, inkestarako erreferentzia geografikoak finkatzeko (Jimeno Jurío, 1988: 289).

I. Echevarriak, Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutuak 1991n antolatutako metodologia ikastaroan eman zuen hitzaldian, honelaxe laburtzen zituen aurrelanak, Québéco Toponimia Batzordeko metodologiari jarraituz:

- a) Datu-bilketa osoa egin inkesta egin aurretik: honek gero inkestaren bidez egiaztatu behar diren toponimoak identifikatzen ditu.
- b) Egitasmoaren helburua eta baliabideak argi eta gogoan izan: eremuaren neurria, epeak...
- c) Inguruaren ezaugarriak aztertu: erliebea, biztanle guneak... Toponimoen kokapena erraztuko du inkesta garaian eta lekukoarekin hurbiltasuna lortuko da.
- d) Materialen prestaketa.
- e) Inkestatzailearen prestaketa psikologikoa.

J. Terradok *Metodología de la investigación en toponimia* liburuan “Preparación de la encuesta: finis regula” izenburupean era zehatzean azaltzen ditu inkesta toponimikoa egin aurretik beharrezkoak diren aurrelanak (1999: 30-33. orr.):

- a) Lan eremuaren mugaketa
- b) Tokiko geografia eta historiaren ezaguera izatea
- c) Toponimo zerrenden prestaketa
- d) Mapen eta argazki aereoaren prestaketa
- e) Marraski eta argazki panoramikoaren prestaketa
- f) Tokiko hizkera eta azpizkera menperatzea
- g) Koronimo<sup>35</sup> arruntak ezagutzea
- h) Lekukoaren hautaketa
- i) Galdeketa gida prestatzea
- j) Transkripzio fonetikoaren metodoa zehaztea.

Aurrelanen atalean, gure proposamena gai bik baldintzatuko dute: batetik abiapuntuak, hau da, gaur egungo toponimia-lanen egoera ezaguturik eta bereziki ETDko edo Nafarroako toponimia datu-basearen eskuragarritasuna ezaguturik, ikertzaileak, nahi izanez gero, ez du hutsetik hasi behar. Bestetik, ikertzailearen helburu orokorrean toponimia eta kartografia elkartuta badoaz, ETDan integratzeko moduko ikerketa baten metodologia behar luke, gure ustez.

Hau guztia aurrean izanik, gure aurrelanak bi multzotan bana genitzake:

- a) Inkestatzaileen, lekukoaren eta materialen hautaketa
- b) Materialen prestaketa

## I.2.2. INKESTATZAILEAREN HAUTAKETA

Lan-talde bat osatzeko inkestatzaileen hautaketa egitea ez da inoiz lan erraza izaten. J. M<sup>a</sup> Jimeno Juríok inkestaren alde praktikoaz hitz egiterakoan inkestatzaileen profilaraz dio:

*“Sería ideal que el realizador del trabajo fuera vascohablante, natural de aquella localidad o comarca objeto de estudio, licenciado en historia y filología, conocedor de la geografía local. (...) Cualidades exigibles al encuestador para que los resultados sean aceptables, serán espíritu de observación y*

---

<sup>35</sup> “Entendemos por corónimos los nombres comunes utilizados frecuentemente para designar accidentes del terreno: cerro, loma, tozal, cabezo, colina, sierra, congosto, paso, cañón, salto, cascada.” (Terrado, 1999: 32).

*FIDELIDAD al objetivo propuesto (recogida de materiales toponomásticos), al transcribir datos documentales, o adquiridos mediante conversaciones o por observación personal” (1987: 440-441)*

Jarraian ezarriko ditugun baldintzak inkestatzaile “ideal” batenak dira eta, gehienetan, praktikan zaila da profil horretako jendea aurkitzea.

Gai honen inguruan geure buruari egin geniezaiokeen lehenengo galdera hau izan daiteke: inkestatzaile on batek ikerketaren urrats guztietan parte hartu behar du?<sup>36</sup>. Nire ustez ez, baina ondo ezagutu behar du, ondo azaldu behar zaio zer batu behar duen eta zertarako batuko duen.

Inkestatzaile “ideal” batek ondorengo baldintzak bete beharko lituzke, batzuk nahitaez, nire ustez; beste batzuk, ostera, gomendagarriak direla esango nuke.

Betebeharrekoak:

- a) Inkesta eta landa-lana egitea, orokorrean, gustuko lana izan behar du (traturako, harremanetarako erraztasuna, edozein ordutan lekukoarekin gelditzeko prest egotea...)
- b) Inkestatzaileak ikerketa egingo duen herriko biztanleek erabiltzen duten hizkera edo euskalkia ezagutu behar du. Honek komunikazioa erraztuko du eta entzungo duen informazioa era fidagarriagoan jasotzen lagunduko dio.
- c) Ondo entzutea, hau da, transkripzio fonetiko ondo egiteko gauza izatea.
- d) Mapak, argazkiak... interpretatzeko gauza izatea. Orientatzeko trebetasuna izatea.

Gomendagarriak:

- a) Praktika izatea, inkesta toponimikoetan ez bada ere, beste mota batekoetan, (hizkuntza arlokoetan, etnografiakoetan...)
- b) Ikerketa egingo den herrikoa edo, gutxienez, ingurukoa izatea.
- c) Ibiltzea gustukoa izatea.
- d) Autoa izatea

Jakina, inkestatzaileak gehienetan ez ditu baldintza guztiak betetzen eta ikastaro espezializatuen bitartez heziketa arloko ahuleziak bakarrik bete daitezke; bestelako hutsuneak zailagoak dira konpontzen.

Amaitzeko, esperientziak esaten digu lagungarria dela inkesta egiteko orduan inkestatzailea laguntzailearen batekin joatea; biren artean inkesta hobeto kontrolatzen da, materialak asko dira, grabazioa... Dudarik gabe laguntza honek asko erraztuko du inkestatzailearen lana.

### **I.2.3. LEKUKOEN HAUTAKETA**

Inkestan emaitza onak lortzearen arduradunak bi dira: bata, inkestatzailea (materialak ondo hautatu eta prestatu behar ditu, ingurua ezagutu...) eta bestea lekukoa (lekukoarekin asmatzeak ziurtatzen du, benetan, inkestaren kalitatea).

Nola topatu lekuko onak? Zer perfil izan behar dute? Zenbat inkestatu behar dira?<sup>37</sup>

Lekukoen hautaketa egiteko zehar bidea jarraitzea gomendatzen dute ikertzaile guztiek: herriko alkate<sup>38</sup>, abade, idazkari... edo pertsona esanguratsu batzuegana jotzea lagungarri

<sup>36</sup> Galdera honek ez dauka zentzurik herri mailako monografiatan ari bagara baina bai ostera lurralde zabal bateko ikerketa batean (Bizkaia osoan, Nafarroan...).

<sup>37</sup> Galdera hauei erantzuteko Deustuko Unibertsitatean antolatutako azken toponimia ikastaroan esperientzia handiko ikertzaile bik esandakoaz baliatu gara: A. Kamiruaga, Labayru Ikastegiko etnografia arloko ikertzailea eta A. Ros toponimia inkestetan esperientzia handiko ikertzailea (ikus bibliografia).



izaten da, eurek jakiten baitute ondoen nor izan daitekeen lekuko fidagarria eta aproposa. Batzuetan, beste datu-bilketa batean lekuko ona izan zenarekin ere jar liteke harremanetan<sup>39</sup>. Batzuetan hautatutako lekuko batek berak esango digu eta lagunduko beste lekuko osagarri bat bilatzen. Bestalde, Joan Corominesek aholkatzen duen bezala, herritar "jakintsu" edo "sasi-jakintsuak" lekukotzat ez aukeratzen saiatuko gara<sup>40</sup>.

Euren lanbideagatik, edo izaeragatik, herriaren jakintza eta euren inguruaren berri ondoen emango diguten lekukoak bilatu behar ditugu. Azken hau, inguru ondo ezagutzen duen lekuko aurkitzea<sup>41</sup>, baldintza garrantzitsuenetarikoa bihurtuko da. Inguruarekin harreman estua izan duena, bai bertan jaio eta hazi delako bai bere lanbideagatik lurralde hori ondo ezagutzen duelako, lekuko aproposa izango dugu<sup>42</sup>.

Lanbide aldetik, artzainak, basozainak, agoazilak, arrantzaleak, nekazariak... izaten dira aproposak lekukoak izateko. Gehienetan, lanbide hauetan ari direnak gizonezkoak izaten dira<sup>43</sup>; mikrotoponimiarako, ostera, batez ere etxe inguruko toponimiarako, aproposagoa izan ohi da emakumea.

Adin aldetik, ez da komeni lekuko zaharregiak aukeratzea, komunikazio gaitasuna mendratua izan dezaketelako. Komunikaziorako, hau da, hitz egiteko edo gauzak azaltzeko erraztasuna dutenak izango dira aproposagoak. Pertsona zaharra hautatzea derrigorrezkoa bada, lagungarria izan daiteke familiakoren baten, gazteagoren baten laguntza izatea<sup>44</sup>.

Lekukoen kopurua oso zaila da zehazten; ikerketarako dugun denbora eta baliabideak izango ditugu kontuan<sup>45</sup>. Iritzi berekoa zen I. Echevarría:

*"Hay que adoptar algún criterio que nos permita situarnos en el justo punto entre lo deficiente y lo desmedido, que nos permita cubrir unos plazos razonablemente cortos con el máximo de rigor posible"* (Echevarría, 1991: 12).

Aukera bat inkestak auzoka antolatzea izan daiteke; auzoa erdi mailako unitatetzat har dezakegu eta, orokorrean, inkesta unitate bezala egokia dela deritzogu. Hala ere, unitate hau egokitzen jo arren, ez dago lekukoen kopuru zehatzik finkatzeko modurik, auzoaren neurriak eta beste arrazoi batzuek (lekukoaren fidagarritasun maila, biztanle kopuru txikia...) jarriko dizkigute mugak. Neurria, zati handi batean, lekukoek eurek jarriko digute.

Bat nator I. Echevarriák adierazten duen ideiarekin:

---

<sup>38</sup> Udaletxea, gehienetan, abiapuntu egokia izaten da bitarteko lanak egiteko eta kasu batzuetan bertako langileak (udaltzaina, basozaina...) izaten dira lekuko onak.

<sup>39</sup> Gure esperientziaren arabera, orain 15 urte lekuko ona izan zena, gaur, zoritxarrez, egoera fisiko kaxkarrean aurki daiteke edo behintzat bere gaitasunak mendratuak izan ditzake. Oso garrantzitsua da orduko lekukoaren adina kontuan hartzea eta bere senitartekoei lekukoaren osasun egoeraz galdetzea haren etxera joan aurretik.

<sup>40</sup> Aholku bera entzun nion Arabako inkesta toponimikoez hitz egiterakoan J.A. González Salazarri.

<sup>41</sup> *"Un buen informante alejado de su entorno más próximo puede convertirse en un mal informante"* (Echevarría, 1991: 12).

<sup>42</sup> Según I. Echevarría *"El perfil del informante de la encuesta toponímica es algo diferente del de la dialectológica y, más aún, de la sociolingüística: en la primera... (se trata) de descubrir a esas personas, a veces excepcionales, que, teniendo un conocimiento óptimo de su territorio, conocen también detalladamente sus nombres propios."* (Echevarría, 1999: 21-22).

<sup>43</sup> Baina halaxe zehazten zigun A. Rosek *"baina esan gabe doa euren andrek momenturo zekitela edo jakin uste zutela non egon zitekeen gizona, eta alde horretatik berauek ez dira baztertu beharreko lekukoak"* (A. Ros, 2001: 5).

<sup>44</sup> Lekukoak elkartzearen aldekoak dira ikertzaile gehienak baina beti ere kopuru mugatua izanik "hiruzpalau multitudea omen dira".

<sup>45</sup> J. M<sup>a</sup> Jimeno Juriok lekukoei buruz dio: *"En el caso de que una persona mayor, natural de la localidad, sea quien realice el estudio, su experiencia y conocimientos personales pueden hacer casi innecesaria la consulta de segundas personas. Tratándose de jóvenes, aún siendo nativos, y sobre todo si el encuestador es forastero, será preciso realizar consultas orales"* (Jimeno Jurio, 1987: 441).

*“No hay informante, por bueno que sea, cuyo saber no se complete o enriquezca con el de otro informante”* (Echevarría, 1999: 22).

Baina berriz ere hasierara gatzoz: argi izan beharko ditugu ikerketa bakoitzaren helburuak, epeak eta baliabideak; zaila izango da baldintza berberak eskaintzen dituen ikerketa baurkitzea.

## **I.2.4. MATERIALEN ETA KODIFIKAZIOEN HAUTAKETA**

### **I.2.4.1. Materialen hautaketa<sup>46</sup>**

#### ***1:5.000 eskalako maparen orria<sup>47</sup> eta ortofotorria***

Toponimia bilketa egiteko proposatzen dugun eskala, bai orriarena eta bai ortofotorriarena, 1:5.000koa da<sup>48</sup>: Foru aldundietako kartografia sailean eskuratu daitekeena eta aldundi bakoitzaren web orrian ere kontsulta daitekeena (4. irudia).

Eskala honetan oinarritu dira orain arte eginiko lurralde mailako datu-bilketak bai EAEn eta bai Nafarroan<sup>49</sup>; beraz, eskuratu ahal izango ditugun zerrenda toponimikoetako erreferentzia kartografikoak eskala honetakoak izango dira.

*Nola hautatu beharrezkoak diren orriak/ortofotorriak?* Aldundi bakoitzean eta baita euren web orrian ere, lurralde bakoitzaren orri/ortofotorri banaketa aurkituko dugu. Jakina, orri/ortofotorri bakoitzean normalean udalerrri bat baino gehiago agertuko da; informazio hori udal mugek adieraziko digute.

*Orrien/ortofotorrien zenbakiak:* aldundietan orri/ortofotorri hauek 4 edo 5 digituz zenbatuta agertzen dira. Zenbaki hauek, datu-basearen kodifikazioari begira, guztiak 5 digitutakoetara egokitu dira.

*Ad.: 62-64 edo 111-4 orriak 062-64, 111-04 bihurtuko ditugu. Gidoiaren aurretik doazen zenbakiak (62, 114) 1:50.000 eskalako orriari egiten diote erreferentzia<sup>50</sup>.*

*Zein informazio mota dakar orriak:* era ximple batez adieraztearren, paisaian begi bistan ikusi ahal dugun guztia aurkituko dugu (erliebea, errekek, errepideak, etxeak, industriak...) eta baita paisaian ikusten ez den beste pare bat gauza ere (toponimoak eta muga administratiboak). Orri hauek data bat agertzen dute; data hori kontuan hartu beharko dugu gaurko errealitatearekin erkatzerakoan.

Aipatu dugun informazio horretatik, gure lanaren helburuari begira, erliebea da arlorik garrantzitsuenetarikoa. Inkestatzaileak erliebearen gorabeherak orrian ikusi behar ditu eta honetarako oinarritzko kontzeptu batzuk argi eduki beharko ditu (sestra-kurbak, kotak...)<sup>51</sup>. Teoria mailan kontzeptuak ondo ezagutu arren, kontzeptu horiek errealitatean ikusiz osatuko

<sup>46</sup> Toponimo mota desberdinen informazioa batzeko proposatzen diren fitxa motak II.2. atalean (dokumentatuak eta kartografikoak) eta II.3.4.4. atalean (ahozkoak) azalduko dira.

<sup>47</sup> Hizkuntza arruntean, 1:5.000 eskalako “mapa” deitzen dioguna izatez mapa osoaren orria edo kartografia-orria da (“minuta” edo “hoja”, gaztelaniaz).

<sup>48</sup> ICCk eskala hautaketari buruz hauxe dio: 1:10.000 eskala eta handiagoak (1:5.000 eta 1:2.000, ad.) toponimia bilketa orokor baterako egokienak dira; 1:5.000 eskalak ia maila guztietako toponimia onar dezake, bakarrik eragozpenak izango ditugu hiriguneetan eta toponimo puntual batzuetan bakarrik izango ditugu eragozpenak (iturri, etxe...) beste erreferentzia kartografiko batzuek estaliko lituzketelako (Institut Cartogràfic de Catalunya, 1985: 27-28). Balorazio bera egiten du J. Tortek, 1995ean.

<sup>49</sup> Euskal Herritik kanpo, Catalunyan ICCk 1983an hasitako toponimia bilketa ere 1:5.000 eskalako ortofotorriaren gainean egin zen.


<sup>50</sup> 1:50.000 eskalako orri batean, 1:5.000 eskalako 64 orri sartzen dira.

<sup>51</sup> Gai hau sakontzeko: PUYOL; R. eta ESTEBANEZ, J. (1978), J. *Análisis e interpretación del Mapa Topográfico*, Tebar Flores arg., Madril; VAZQUEZ MAURÉ, F (1989).: *Lectura de mapas*, Ministerio de Obras Públicas y Urbanismo, Madril.

dugu beharrezkoa dugun prestaketa. Ariketarik onena ezaguna dugun inguru bateko orria hartu eta bertara hurbiltzea izango litzateke, sestra kurbak ikusiz, erliebea "in situ" interpretatuz. Bide batez, eskalaren esanahia ere landuko genuke. Zer esan nahi du orriko cm. batek errealitatean 500 m. direla? Zein eremu hartzen du orri bakoitzak?

*Zein informazio mota dakar ortofotorriak:* ortofotorria argazkia bera da; airetik ikus daitezkeen elementu guztiak ikusiko ditugu, ikuspuntu bertikal batetik. Zuzenketa geometrikoen bidez ortofotorriak eskala bera mantentzen du irudi osoan zehar. Sestra-kurben informazioa ere erants dakiok (Bizkaian behintzat) eta era honetara erliebea interpretatzeko modua ere izango dugu dokumentu bakar batean.

**4. irudia: LANDA-LANAREN OINARRI GRAFIKOAK (37-30 ORRIAREN ETA ORTOFOTORRIAREN ZATIA)**



Iturria: BFAko web orria ( [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net)).

## **Toponimo zerrendak**

*Zein helburu daukate toponimo zerrendek?* Inkestatzaileak, inkesta egin aurretik, inkestatu behar duen eremuari buruz eskura daitekeen informazio toponimikorik gehiena izatea, inkestaren amaieran, egiaztapen-inkestan, jaso barik gelditu diren toponimoez (ahozkoez zein dokumentatuez) galde dezan.

*Zein iturritako toponimo zerrendak hartuko dira?* Abiapuntutzat ETDko toponimo zerrendak hartuko dira; gero, datu-bilketa berri batez osatuko ditugu (ikus I.2.5.1. atala eta II.2.3. atala)

### *a) ahozko toponimoak eta toponimo kartografikoak*

Orain arte lurraldeka (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa)<sup>52</sup> jasotako ahozko toponimia bilketen eta iturri kartografikoen hustuketaren emaitzak zerrendatan edo/eta dagokion datu-basean lor daitezke:

- herrika (alfabetoz ordenaturik)
- orrika eta orri barruan ordena-zenbakiaren arabera ordenaturik
- gaika, hau da, entitate geografikoaren arabera (kode geografikoaren arabera) ordenaturik (mendiak, errekek, baserriak...).

Inkestari begira, nik neuk bigarren eta, beharbada, hirugarren aukera erabiliko nituzke.

### *b) toponimo dokumentatuak*

a atalean esan dugunak berak balio du baina oraingoan zerrendak herrika edo gaika bakarrik atera daitezke. Ikertzaileak gainera, zerrenda horiek berak burututako iturri idatzietako hustuketaren emaitzekin osa ditzake (ikus II.2.1. atala).

## **Grabadora, argazki makina...**

Ahal den neurrian, inkesta grabatzea komeni da, arrazoi desberdinengatik: inkestatik informazioa husterakoan sortu litezkeen zalantzak argitzeko; hemendik urte gutxitara, toponimoen ondarea, zoritxarrez, galtzen doan neurrian, grabaketa hau dokumentu historiko bihurtuko delako eta, azkenik, beste maila bateko azterketak egiteko material probetxugarria bihur daitekeelako<sup>53</sup>.

Argazki makina bat, bideo kamara bat, derrigorrezkoak ez badira ere, gure lanerako osogarriak izan litezke eta, kasu batzuetan, normalizazioari begira ahaztutako hainbat argibide eman litzake. Argitalpen posible bati begira, oso material interesgarria bihur daiteke ahaztutako lekuen ezaugarriak gogoratzeko eta berreskuratzeko<sup>54</sup>.

## **Aplikazio informatikoa**

J. Terradok uste du ikerketa bakoitzak datu-base berezi bat behar duela eta seguruenik halaxe da. Baina egia da hainbat lan alferrik errepikatzen direla eta ez bakarrik arlo honetan; esperientziak esaten digu aplikazio informatikoa izan daitekeela adibide egoki bat sakabanatuta lan egiten duten ikertzaileek euren datu-basea martxan jartzen indar asko galtzen dutela frogatzeko. Azken batean ikerketa askoren helburua ez al da berbera edo gutxienez berdintsua? Jorratuta eta frogatuta dagoen zerbaitetik abiatzea ikertzailearentzat tresna lagungarria izan daitekeela uste dugu eta, bide batez, dagoenari probetxua ateratzen zaiola.

<sup>52</sup> Nafarroako toponimia datutegiak ([www.toponimianavarra.tracasa.es](http://www.toponimianavarra.tracasa.es)) beste egitura bat du baina ahozko toponimoen eta toponimo kartografikoen zerrendak atera daitezke.

<sup>53</sup> J. Terradok grabaketa partziala gomendatzen du, inkesta tematikoarena bakarrik (ikus II.3.4.2. atala).

<sup>54</sup> F. Aranbarrik Ermuko eta Eitzagako (Zaldibar) toponimia-lana kaleratu du; liburuan toponimia-lanetan irudiak daukan balioa frogatzen da.

Eskuliburu honetan proposatzen dugun aplikazioa gauza izango da bai ETDko datuak kudeatzeko, bai EAEko toponimia corpusean informazio berria txertatzeko eta integratzeko. Aplikazio honen diseinua egiterakoan, gogoan izan genituen, batetik, ikertzaile mota desberdinak (filologo, geografo, arkeologo, historiagile...) eta, bestetik, administrazioaren betebeharrak. Honek ez du esan nahi proposatzen dugun eredu hau behin-betikoa denik; guztiok dakigun bezala, edozein hautaketa egindakoa, berehala somatzen baitugu zerbait hobetu edo/eta aldatu beharra.


Hala eta guztiz ere, hemen aurkituko duzun aplikazioaren ezaugarri orokorrak azalduko dizkizut: aplikazioa Microsoft Access 97 programarekin egina dago eta erabili ahal izateko nahikoa da Windows sistema eragilea duen ordenadore pertsonal normal bat eta Access 97 programa. Kontuan hartzekoa da, gainera, datuak datu-base erlazionalean bilduta daudenez gero, ez dagoela arazorik beste sistema batera esportatzeko.

Aplikazio honek datu berriak txertatzeko edo daudenak kontsultatzeko 4 oinarrizko pantaila ditu: ahozko toponimoena, toponimo dokumentatuena, toponimo kartografikoena eta proposatu-araututako toponimoena.

Horrez gain, aurreko fitxa guztiak leku bakoitzarekin erlazionatzeko, "Lekuak eta erlazioak" izeneko prozesua jarraitu behar dugu. Bertan lekuen tratamenduari buruzko lanak egiten dira (lekuen puntu kartografikoak finkatu, lekuak berdindu, leku berriak sortu, lekuak hautatu, koordenatu geografikoak ezarri...) (ikus III.2 atala).

Bestetik, eremu batzuetako informazioa tauletan gordetzen da: kode geografikoak, balidazio-kodeak, arauen kodeak, orrien kodeak, udalerrien kodeak, pertsona moten kodeak, pertsonen kodeak eta dokumentuen kodeak. Azken biak irekiak dira eta "alta"k emanez osa daitezke (5. irudia).

## 5. irudia: APLIKAZIO INFORMATIKOAREN MENU OROKORRA



Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

#### I.2.4.2. Kodifikazioen hautaketa<sup>55</sup>

Ikerketaren zati desberdinetan kode desberdinak erabiliko ditugu. Kode hauen helburua toponimoaren informazio osagarriak identifikatzea da: entitate geografikoa, pertsona, herria, hizkuntza-arazoa eta dagokion normatibizazio-araua, ahoskatutako hots bat... Lau mailatako kodeak ditugu:

- a) Hautazkoak<sup>56</sup>: dokumentuen kodeak, pertsonenak...
- b) Ofizialak: erakunde desberdinek jarritako kodeak dira (udalerrri kodeak, orri kodeak...<sup>57</sup>)
- c) "Automatikoak": aplikazio informatikoak sortzen dituenak (lekuaren zenbakia, dokumentuen ordena, azpiordena).
- d) Toponimia-lanetarako kodifikazio bereziak: toponimia-lan baten helburuak kontuan harturik eta dauden kodifikazio motak aztertu ondoren, talde lanean finkatu diren kodeak (kodifikazio geografikoa, balidazio-kodeak, normatibizazio-arauen kodeak<sup>58</sup>, transkripzio fonetikoa...).

#### I.2.5. MATERIALEN PRESTAKETA

Materiala hautatu ondoren eta inkesta egin aurretik ikertzaileak prestatu edo landu beharrekoak hauek dira:

- a) Minuta toponimikoa eta egiaztapen-fitxa puntuala.
- b) Ortofotorria/orria.
- c) Toponimo zerrendak.
- d) Datu-bilketarako fitxak<sup>59</sup>.
- e) Ingurua eta kodifikazio geografikoa.

##### I.2.5.1. Minuta toponimikoaren eta egiaztapen-fitxa puntualaren prestaketa

###### ***Minuta toponimikoa***

Aztertu behar den lurraldeari buruz sakabanaturik dagoen informazio kartografikoa bildu eta hautatu ondoren toponimo kartografikoak hustu egiten dira oinarri batera, 1:5.000 eskalako orrira; honi *minuta toponimikoa* deitzen diogu (6. irudia). Dokumentu kartografiko honetan bilduko da eskuratu eta hautatu dugun eremu geografiko horri buruzko toponimia; minuta toponimikoa eta dagokion zerrenda toponimikoa izango dira *egiaztapen zerrenda geografikoaren* oinarria.

###### *Prozedura*<sup>60</sup>

- a) Abiapuntua: ETDko ahozko toponimoak txertatuta dauden kartografia eskuratu. Iturri honetatik jaso toponimoa, kokapena (ordena-zenbakia) eta hedapena, eta itzuli informazio hau guztia 1:5.000 orrira (minuta toponimikoa).
- b) Horrez gain, hautatutako beste iturri kartografikoen datuak itzuli minuta toponimikora. Bi egoera desberdin aurki ditzakegu<sup>61</sup>:

<sup>55</sup> Kodeketa guztiak HPSk ditu eskuragai.

<sup>56</sup> Derrigorrezkoak bihurtzen dira pertsona, dokumentu... horiek aurreko lanen batean kodifikatuta badaude.

<sup>57</sup> Udalerrri kodeak EUSTATEk zabaltzen ditu eta orri kodeak foru aldundi bakoitzaren kartografia zerbitzuan lortu daitezke.

<sup>58</sup> ETDan aplikatu ziren normatibizazio-arauak azken urteotan berrikusten, osatzen eta aldatzen joan dira Euskaltzaindiko azken gomendioen arabera. Lan horren emaitza da 2002ko Bizkaiko lanean erabiliko den arautegia. Arautegi hori Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan zein Euskaltzaindian eskura daiteke.

<sup>59</sup> Hauek II. kapituluan aztertuko dira.

<sup>60</sup> Lekuei eta puntuei buruzko azalpena III.3.2.1. atalean.

<sup>61</sup> Zaila da idatzizko dokumentazio-iturri orokorretatik jasotako toponimiaren kokapena ematea bai zehatza eta bai gutxi gorabeherakoa. Aukerarik izanez gero, informazio hau ere sartuko genuke minuta toponimikoan. Ikertzaileen iritzia nahiko deberdinak dira gai honetaz: M. Gorrotxategik zioen: "(Artxibo)



- ETDari dagokion kartografian leku hori identifikatuta dago (*leku zaharra*): toponimo kartografikoak azpian idatziko dira. Ad. 1. lekua.
- ETDari dagokion kartografian ez dago leku hori identifikatuta (*leku berria*): hautatutako iturri kartografiko batean leku berri bat identifikatuta badago, horretarako ordena-zenbaki berria ezarriko diogu minuta toponimikoari. Ad. 16. lekua.

#### *Instrukzioak toponimo kartografikoen itzulera egiteko*

Toponimo kartografiko guztiak minuta toponimikora itzultzerako orduan instrukzio hauek jarrai daitezke:

- a) Iturri kartografiko bakoitzarentzako kolore bat erabili eta zehaztu iturria kode baten bidez.  
*Ad.: 1:25.000 eskalako BFA mapa, kolore berdez eta 5. kodea ondoan idatziz.*
- b) Iturri kartografiko bik toponimo eta kokapen berberak agertzen badituzte: behin idatzi eta azpimarratu bigarren kartografia iturriaren kolorearekin.  
*Ad. 2. lekuan: Azoga*
- c) Iturri kartografiko bik kokapen berbera baina toponimo desberdinak ematen badituzte: azpian idatziko dugu toponimo berria dagokion kolorearekin.  
*Ad. 9. lekuan: Larragan / Kukullu*
- d) Iturri kartografiko bik toponimo berdinak agertzen badituzte baina kokapen desberdina badute: bigarrena gezi baten bidez ETDko toponimoarekin lotuko dugu eta, beharbada, ordena-zenbaki berria ezarriko diogu.  
*Ad. 16. lekuan: Ensenada de Arrizabale (7. lekuan Arrisabale)*

Era honetara orri bateko toponimo kartografiko guztiak, ETDan identifikatuta zeudenak zein identifikatu barik zeudenak, dokumentu bakar batean, *minuta toponimikoan*, bilduta izango ditugu. Hemendik *egiaztapen zerrenda geografikoa* irtengo da, minuta toponimikoko informazioa grabatu ondoren (ikus II.2.3. atala).

Amaieran, minuta toponimikoan agertzen den *azken ordena-zenbakia* apuntatuko dugu; hau garrantzitsua izango da inkesta berrian jasotzen ditugun leku berrien lehenengo zenbakia zein den jakiteko (ikus II.3.4.5. atala).


---

*Bilketa lan hau aurreratuta dagoenean toponimoak kokatzen hasiko gara, izan ere, idazkietan UTM koordenatuak agertu ez arren zeharka koka ditzakegu, nola edo hala, toponimoak, gehien bat testuinguru batean azaltzen zaizkigulako, batzuetan mugak aipatzen dira, edo askotan jabea zein den baliagarria izan daiteke gutxi gora behera kokatzeko...* (2001: 1).

J.M<sup>a</sup> Jimeno Juríok ere inkestaren helburuak azaltzerakoan dio: *"...Situat en el mapa cada nombre recordado, e incluso los no recordados, a través de los antiguos propietarios o de referencias documentales que lo posibiliten"* (1986: 24).

Beste iritzi bat agertzen zuen A. Usabiagak Andoaingo lana burutu zuenean: *"iturri honen bidez zaila izaten da toponimoen kokapena zein den jakitea... Horrela, toponimo baten berri soilik dokumentazioaren bitartez jasotakoan, gehienetan galdua eta berreskura ezina –kokapenaren aldetik den toponimo baten aurrean gaude... Dokumentazioan erreferentziak orokorrak izaten dira eta gure lan honetan gutxi dira dokumentuen oinarri bakarrarekin kokatu eta berreskuratu ahal izan ditugunak"* (Usabiaga, 1993: 18 eta 25).

## 6. irudia: MINUTA TOPONIMIKOA (37-30 ORRIAREN ZATIA)



Kodea	Kolorea	Urtea	Iturria
(1)	<span style="display:inline-block; width:15px; height:10px; background-color: #ff00ff;"></span>	1986	ETD (Bizkaia)
(2)	<span style="display:inline-block; width:15px; height:10px; background-color: #ffa500;"></span>	1981	IGN :1:25.000 eskalako MTNa (37-II orria)
(3)	<span style="display:inline-block; width:15px; height:10px; background-color: #ff00ff;"></span>	1999	IGN: 1:25.000 eskalako MTNa (37-II orria)
(4)	<span style="display:inline-block; width:15px; height:10px; background-color: #00bfff;"></span>	1953	IGC: 1:50.000 eskalako MTNa (37 orria)
(5)	<span style="display:inline-block; width:15px; height:10px; background-color: #008000;"></span>	1924	BFA: Mapa Topográfico de Vizcaya (1 orria)
(6)	<span style="display:inline-block; width:15px; height:10px; background-color: #000000;"></span>	2000	GALÉ, P. (2000): <i>Bizkaiko gailurren katalogoa</i>
④			Ordena-zenbaki berria

\* Azken ordena-zenbakia: 16

Iturria: 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako prestatutako minuta toponimikoa.

### **Egiaptapen-fitxa**

Minuta toponimikotik hainbat zalantza<sup>62</sup> aterako dira inkestaren bidez egiaztatu beharko direnak; hauek guztiak *egiaztapen-fitxan* aurkeztuko dira:

- a) Leku bateko aldaera desberdinak.
- b) Zalantzazko kokapena dutenak. Ad.: “gain” bat izanik “malda” batean dagoena.
- c) Kode geografikoaren arazoa dutenak. Ad.: “gain” bat izanik “zuloa”ren kodea daramana.
- d) Hutsuneak bete: beste koadranteen aldean toponimo hutsune handiegia azaltzen da koadrante batean.
- e) Leku berdinak/desberdinak diren frogatu: ad. leku desberdintzat emanda daude baina zalantza sortzen da, hurbilegi daudelako, leku bakar bat ala gehiago diren.

#### **I.2.5.2. Orria/ortofotorria prestatu: markak eta erreferentzi puntuak ezarri**

Komenigarria da, bai inkestatzailearentzat eta bai lekukoarentzat, orientatzeko lagungarri diren informazio osagarriak adieraztea; ad. udal mugak, biziguneak, lekukoaren baserria, errepideak, bidegurutzeak, errekek, gorengo puntu orografikoak, leku adierazgarriak (ermita bat...); horiei deituko diegu *erreferentzi puntuak*.

Horrez gain, minuta toponimikoan markatutako ordena-zenbakiak eta, ahal den neurrian, bere hedapena (lerroen bidez, zirkunferentzien bidez...) itzuliko dira orrira/ortofotorrira. Era honetara, inkesta berria egiterakoan, gure minuta toponimikoan leku hori izendatuta dagoen ala ez jakingo dugu. Gauza gehiago ere zehaz daiteke ikur edo kolore berezien bidez: ad. leku bati buruzko zalantzaren bat badugu, arreta berezia izan dezagun inkestan...

Marka hauek marrazteko kolore bakar bat<sup>63</sup> edo bi kolore erabil daitezke: bata, ahozko iturrietatik jasotako informazioa zehazteko eta bestea iturri idatzietakoa adierazteko.

---

<sup>62</sup> Hauek bulego-lanean ari garela sortzen dira eta inkestaren bitartez argitu behar dira.

<sup>63</sup> Ortofotomaparen gainean zaila da kolore desberdinak identifikatzea.

7. irudia: LANDA-LANERAKO PRESTATURIKO ORTOFOTORRIA (37-30 ORRIAREN ZATIA)



Iturria: BFAko web orria ([www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net)) eta neuk egokitutakoa.

### I.2.5.3. Ingurua ezagutu eta kodifikazio geografikoa landu

Inkestaren helburuetariko bat toponimoa orri batean ondo kokatzea bada, inkestatzaileak, inkesta egin aurretik, inguru fisikora hurbildu beharko du<sup>64</sup>. Horrez gain, orriaren “proportzioak” interpretatzen ikasi beharko du: orriaren eskala eta errealitatearen arteko proportzio errealak; sestra-kurben esanahia (aldats gogorra/leuna, gain zabala edo zorrotza, ibar estua edo irekia...); orri bakoitzaren hedapena (nondik nora hartzen du); norberaren kokapena, orientazioa orri barruan; zer da agerian gelditzen dena eta zer izkutan...

Bide batez, ingurua lantzen dugun neurrian, entitate geografikoen mota ezberdinak identifikatzen joango gara eta kodifikazio barruan sailkatzen, gaika (oronimoak, hidronimoak, biziguneak...); gai bakoitzaren barruan kategoria desberdineko entitateak eta termino bakoitzaren esanahia zehaztuko ditugu<sup>65</sup>. (8. irudia). Kontuan hartu beharko dugu kodifikazio geografikoan agertzen diren terminoak “arautuak” direla; jakina, termino gehienak ez ditugu elkarrizketetan entzungo; horregatik, inkesta egin aurretik, garrantzitsua izan daiteke tokian tokiko lexiko geografikora hurbiltzea<sup>66</sup>.  
Ad.: Trokea, ure, espaldea, arrua, ballia...

Ondorioz, lan hauek guztiak burutu ditugunean, prest egongo gara elkarrizketa egiteko eta I. Echevarría dioen bezala:

*“Salvar esta etapa previa (la de los preparativos) significa el estado óptimo del encuestador el cual S.F.H. NICOLAISEN califica algo así como de “ignorancia bien informada”. Informada, ya sabemos por qué; en cuanto a lo de ignorancia, habrá que recordar que el buen encuestador pone siempre en tela de juicio, o entre paréntesis su propio conocimiento para recibir el de sus interlocutores. No obstante, esta ignorancia será más científica cuanto mejor sea el conocimiento sobre el que se basa” (Echevarría, 1991: 10)*

---

<sup>64</sup> “sarritan zaila gertatzen dela informatzailearekin bertara joan gabe toponimo bat kokatzea, baina laguntza hori ez dugu beti prest izango halako mendi puntara edo bazter izkutu hartara joateko –kontutan izan, gainera, informatzaile onenak jende zaharren artean aurkituko ditugula-, eta kasu horietan beharrezkoa da tokia alde aurretik ezagutzea” (Usabiaga, 1993: 17); iritzi berdinekoa da J.L. Ormaetxea, Arrasateko toponimia-lanaren egilea: “...alde aurretik idatzizko iturrietatik jasoriko informazioa izateak eta ingurunea ezagutzeak sano laguntzen dutela ahozko bilketari ekiterakoan.” (20. orr.)

<sup>65</sup> Horretarako oso egokia izango da HPSk argitaratu duen *Izen Geografikoen Glosarioa*, UZEIk egina hainbat adituren laguntzarekin.

<sup>66</sup> Euskal lexiko geografikoaren bilketa sistematikoa ez da, nik dakidala, oraindik egin. Lan horren beharra azaldu genuen HPSn aurkeztutako txosten baten bidez (*Proyecto de normalización de la terminología geográfica asociada a la toponimia*). Bertan proposatzen zen lehenengo urratsa eman da aipatutako UZEIren glosarioan. Baina, horrez gain, ahoz jaso daitekeen eta jasota daukagun lexiko geografiko arruntaren bilketa eta azterketa baten beharra ikusten dugu.

8. irudia: ENTITATE GEOGRAFIKOEN HIERARKIZAZIOAREN ADIBIDEA

10000		<b>OROGRAFIA</b>
	10100	Lur-goraguneak
	10101	<i>Mendigune</i>
	10102	<i>Goi-lautada</i>
	10103	<i>Mendikate</i>
	10104	<i>Mendilerro</i>
.....		
	10200	Lurrazaleko sakonuneak
	10201	<i>Sakonune</i>
	10202	<i>Arro</i>
	10203	<i>Haran; ibar</i>
	10204	<i>Ibarbide</i>
.....		
.....		
20000		<b>HIDROGRAFIA</b>
.....		

Iturria: HP

## II. DATU-BILKETA: DOKUMENTAZIO-BILKETA ETA LANDA-LANA

Iturri idatziak eta ahozko iturriak osagarriak dira toponimia-lanetan. Dokumentazioak tokiak garai batean edo bestean izan zuen izenera hurbilduko gaitu; batzuetan, grafia arazoak alde batera utzita, izena jatorrizko forman edo forma osatuan aurkituko dugu baina beste batzuetan, ostera, ohartzen gara orduko eskribauak entzundakoa edo jasotakoa ez dela transkripzio zuzena edo guztiz zuzena izaten. Dokumentu baten barruan toponimoa grafia eta idazkera desberdinez azaltzen zaigunean ikusten dugu hori. Toponimoaren kokapenari dagokionez, normalean, ezin izaten da kokapen zehatza eman; gehienetan kokapen orokor batera hurbiltzen gara (auzoa, baserri ondoa, mendialdea...) edo beste leku baten erreferentzia erabilia, gutxi gorabeherako kokapena ematen ausartzen gara. Gutxitan bada ere, batzuetan dokumentuak krokisen bat erantsita eraman dezake eta hau laguntza handia izan daiteke kokapen lanetarako. Iturri idatziak, bada, iturri garrantzitsuak dira, beharrezkoak dira toponimoaren bilakaera eta batzuetan jatorrizko forma ezagutzeko eta berreskuratzeko baina euren mugak ere badituzte.

Ahozko iturriek gaurko edo azken belaunaldiko toponimiaren berri ematen digute, toponimia biziaren berri, hain zuzen ere. Toponimoaz gain, beste hainbat informazio jaso genezake: toponimoaren kokapena, erabilera (zabaldua, mugatua, gaurkoa, sustraitutakoa...), izenaren arrazoiak (herri etimologia)... Bide batez, ahozko iturriek erakutsiko digute iturri idatzietatik jasotakoak bizirik dirauen ala ez eta kokapena berreskuratzen -ahal den neurrian, behintzat- lagunduko digute.

Ahozko iturriak ala iturri idatziak hustu behar dira aurretik? Gure ustez, ikuspegi metodologikotik, iturri idatziak alde aurretik hustu beharko genituzke; horrela, toponimoen zerrenda historikoak ahozko inkestaren bidez egiaztatzeko aukera izango genuke eta, kasu batzuetan, toponimo historiko batzuk berreskuratzeko bidea ere zabalduko genuke.

### II.1. FITXEI BURUZKO ARGIBIDE BATZUK

Fitxa toponimikoa toponimo bati (dokumentatua, kartografikoa zein ahozkoa<sup>67</sup>) dagokion informazio guztia agertzen duen unitatea da.

Datu-bilketarako fitxetan (dokumentatua, kartografikoa edo ahozkoa) garrantzitsua da ondorengo gai hauek kontuan hartzea:

- a) *Informazio mota ondo hautatu* ikerketaren helburuaren arabera eta ETDak eskatzen digun gutxienezko egitura errespetatuz, informazioa datu-basean txertatzeko arazorik izan ez dadin.
- b) *Informazioaren egitura*: eremuak<sup>68</sup>, derrigorrezko/hautazko informazioa, eremu itxia/irekia...
- c) *Errepikapenak*: Toponimo bat lekuko/dokumentu/herri desberdinetakoa bada, behar den guztietan errepikatu beharko da<sup>69</sup>.
- d) *Zein ordenatan sartu toponimoa*: zerrenda erabilgarriak lortzeko eta bilaketak errazteko. Toponimo konposatuetan (osagai generikoa, berezia, loturak – preposizioa, artikulua...-) eta osagai generikoa gaztelaniaz dutenetan aukera desberdinak daude<sup>70</sup>:

<sup>67</sup> Orain bakarrik datu bilketarako erabilgarriak diren fitxez ari gara. Proposatu-araututako toponimoen fitxa III.3.6. atalean azalduko da.

<sup>68</sup> Eremuak bat etorri beharko dira aplikazio informatikoan eskatzen denarekin

<sup>69</sup> Leku-izen nagusiak salbuespenak izan daitezke.

<sup>70</sup> Hitz batek batzuetan osagai generikoaren eta beste batzuetan osagai bereziaren funtzioa beteko du. Ad. *lomba* osagai generikoa izango da *Lomba Picón*, *Lomba del Cuervo*... moduko toponimoetan; ostera, osagai berezia izango da *El rincón de La Lomba*, *La fuente de La Lomba*... (Echevarría, 1999: 45). Honek eragina izango du hitzen ordenan: lehenengoetan *Picón*, *lomba* eta *Cuervo*, *lomba del* idatziko dugu; bigarrenetan, *Lomba*, *el rincón de la* eta *Lomba*, *la fuente de la* sartuko dugu.

- osagai generikoa eta berezia agertzen diren ordenan sartu:  
*Campo de Erlaybia*  
*Campo de la Lomba*  
*Campo de la Rueda*  
*Campo de los Arenales*
- osagai berezitik hasiz gero:  
*Lomba, alto de la*  
*Lomba, camino de la*  
*Lomba, la*  
*Lomba, pecho de la*  
*Lombarda*  
*Lombariaga*  
*Lombas, las*
- eremu bi sortu: bata *a* aukerarekin eta bestea *b* aukerarekin: azken aukera hau ezin izango dugu erabili ETDko datu egitura gorde nahi badugu.

Hona hemen kasu desberdinen artean ematen ditugun gomendioak datuak sartzera ezarri beharreko ordenari begira<sup>71</sup>:

- a) **Osagai generikoa euskaraz** eta banatuta idatzita badago, agertzen den ordena berean sartuko da:  
*Aranza erreca* (ICH, Irura)  
*MENDEUN GAÑE* (Ahoz., Beasain)
- b) **Osagai generikoa euskaraz** eta osagai bereziari erantsita badator, agertzen den eran sartuko da:  
*Apaiz-iturria* (Elizalde, Albistur),  
*Iturrizavaleta* (ICH, Vitoria-Gasteiz)  
*OTSOZULO* (Ahoz., Elduain)
- c) **Osagai generikoa gaztelaniaz** agertzen denean eta osagai generikoa kode geografikoaren eremu berekoa denean, ordena aldatuko dugu:  
*Fuente de Iturrita* (kode geogr.: *iturria*) > *Iturrita, fuente de* (ICH, Ayala/Aiara).  
*ALTO ZULLIBARRI* (kode geogr.: *gaina*) > *ZULLIBARRI, ALTO* (Ahoz., Asparrena)  
*ENTRADA VALSECA* (kode geogr.: *lepoa*) > *VALSECA, ENTRADA*
- d) **Osagai generiko "faltzuak"**: kode geografikoa eta toponimoak daraman izen generikoa bat ez datozenean.  
*Dos Caminos* (kod. geogr. *soloa*) > *Dos Caminos* (ICH, Ribera Alta)  
*CAMINO SALCEDO* (kod. Geogr.: *aurkintza*) > *CAMINO SALCEDO* (Ahoz., Lantarón).
- e) **Artikuluarekin** agertzen diren toponimoak: artikulu atzean jarriko dugu:  
*Las Maderillas* > *Maderillas, Las* (ARLM, Urkabustaiz)  
*LAS CARBONERAS* > *CARBONERAS, LAS* (Ahoz., Alegría-Dulantzi)
- f) **Preposizioarekin** (lotura batekin) osatutako toponimoetan osagai berezitik hasiko gara:  
*Sel de las Cabras* > *Cabras, Sel de las* (ARLM, Asparrena)  
*CAMPO DE LAS MUÑIGAS* > *MUÑIGAS, CAMPO DE LAS* (Ahoz., Amurrio)  
*Cuesta del Prado* > *Prado, cuesta del* (ICH, Armiñón)  
*PEÑAS DEL BORTAL* > *BORTAL, PEÑAS DEL* (Ahoz., Amurrio)  
*Las Llanas Bajeras de Carrasquedo* > *Carrasquedo, Las Llanas Bajeras de* (Echevarría, 1999)  
*ALTO DE LA CUEVA DE LOS LADRONES* > *CUEVA DE LOS LADRONES, ALTO DE LA* (Ahoz., Iruraiz-Gauna)

<sup>71</sup> "A la hora de introducir los topónimos, conviene escribir en primer lugar el elemento lexemático y luego, separado por una coma, el elemento gramatical... De este modo será fácil ordenar alfabéticamente los topónimos y elaborar un diccionario toponímico... Pero es útil tener otro espacio o línea en que los topónimos aparecen en su orden normal..." (Terrado, 1999: 65).



*Aramendi del Medio>Aramendi del Medio* (ICH, Altzaga)  
LA FONSALEDA DE ARRIBA>FONSALEDA DE ARRIBA, LA (Ahoz., Laguardia)

- g) **Osagai espezifikoa izenlaguna** denean, dagoen-dagoenean mantenduko dugu:

*Peña Blanca>Peña Blanca* (ICH, Ribera Alta)  
*LADERA OSCURA>LADERA OSCURA* (Ahoz., San Millán/Donemiliaga)  
*Río seco> Río seco* (López de Guereñu, Elvillar/Bilar)  
*TIERRANEGRA>TIERRANEGRA* (Ahoz., Lantarón)

## II.2. DOKUMENTAZIO-BILKETA: ZER JASO, NOLA JASO...

Iturri idatzien hustuketak inkestari edo datu-basearen horniketari begira hiru helburu ditu:

- Landa-lanerako materialen prestaketarako minuta toponimikoak (toponimo kartografikoen bitartez) eta toponimo zerrendak (dokumentatuenak edo kartografikoenak) gertatu.
- Hizkuntza-normatibizaziorako: ahozko gaurko erabilera eta erabilera historikoaren arteko azterketa diakronikoa egiteko materiala prestatu.
- Normalizazio geografikorako: kokapena zehazteko, kode geografikoa argitzeko informazioa batu.

Dokumentazioaren hustuketarako bi motatako fitxak erabiliko ditugu: toponimo dokumentatuen fitxa eta toponimo kartografikoena.

### **II.2.1. TOPONIMO DOKUMENTATUEN BILKETA<sup>72</sup>**

**Toponimo dokumentatuen bilketa** egiteko proposatzen ditugun informazio eremuak hauek dira (9. irudia):

*Dokumentua*: Dokumentazio-iturriaren kodea (4 digitukoa) edo izena.

*Data*: Dokumentuaren fitxak dokumentuaren mugako urteak zehazten baditu (ad. 1760-1798), toponimo dokumentatu bakoitzaren fitxan urte zehatza sar daiteke (Ad. 1789).

*Toponimoa* (Toponimo dokumentatua): Dokumentuan agertzen den erara transkribatutakoa, maiuskulak eta minuskulak errespetatuz eta sartzeko ordenarako emandako oharra jarraituz. Toponimo dokumentatu bakoitzak fitxa bat behar du:  
*Ad.*: *Txillar* edo *Cillar-iturri* moduko toponimoek bi motatako sarrerak izango dituzte: lehena *Txillar* eta bigarrena *Cillar-iturri*. Testuinguruan jasoko ditugu biak batera, *Txillar* edo *Cillar-iturri*.

*Kode geografikoa*: Entitate geografiko zehatza adierazten digun 5 digitutako zenbakia. Toponimo bakoitzak kode geografiko bakarra izan behar du<sup>73</sup>.

*Dokumentalista*: Dokumentalistaren kodea edo izen-abizenak.

*Udalerrria*: Toponimoa kokatuta dagoen udalerrria, eskualdea edo lurraldea<sup>74</sup>. Toponimo bat, bere hedaduragatik, udalerrri batean baino gehiagotan kokatzen bada, udalerrri bakoitzeko fitxa bana idatzi beharko da.

<sup>72</sup> Kartografia iturriak ezik.

<sup>73</sup> Kode geografikoen zerrendan agertzen diren entitate geografikoen terminoak "normalizatuak" eta "gaurkotuak" dira. Honek esan nahi du, ahoz jasotako osagai generikoekin gertatzen den bezala, osagai generiko "historikoak" moldatu egin beharko ditugula gaurko sailkapen honetara. *Ad.*: *Llosa... campo* kodearen barruan sartu beharko da.

*Testuingurua*: Toponimoari buruzko argibide desberdinak (kokapena<sup>75</sup>, jabea, beste erreferentzia batzuk...) jasotzeko beharrezkoak diren esaldiak. Dokumentuaren barruan toponimoa beste grafia batzuekin agertzen bada edo beste aldaera batzuk agertzen badira, informazio hori testuinguruan sartuko da<sup>76</sup>.

Ad.: *Tarrerón o Terrerón* (BPAH, Lanestosa)

*Carrascain o Carrascagain* (GPAH, Arrasate ó Mondragón)

*“Sitio de la Calleja, parte arriba de las lastrillas”* (BPAH, Lanestosa)

*“Terreno ayal en el término de Beleranichiqui (sic) (...) cuyos confines son por abajo los mojones de los montes de Azpeitia, por arriba con camino carretil; por lo demás con ostavazos y ayal medido para la casa de Oraeche-verria”* (GPAH, Zumarraga)<sup>77</sup>

*Oharrak*: Bestelako zehaztasunak sartuko dira, hala nola, dokumentalistak toponimo honen inguruan izan dituen zalantzak (transkripzioa, kodifikazio geografikoa, herria...) edo dokumentuaren orriaren egoera apartekoa denean (kontserbazioa...), horri buruzko zehaztasunak...

---

<sup>74</sup> Udalerri banaketak aldaketak ezagutu ditu historian zehar eta gaurko banaketa ez dator bat beste garai batekoarekin; kasu horietan, orduko udalerrria gaur existitzen ez bada, gaurkora moldatuko dugu eta testuinguruan zehaztuko dugu, jakiterik badago, garai hartako zein udalerriri zegokion.

Udalerri zehatz baten barruan kokatu ezin dugunean eta eskualdearen kodea ezagutzen badugu, eskualdearen kodea erabili; bestela, ezin badaiteke identifikatu, lurralde historikoaren kodea sartuko dugu eta testuinguruan, lehenengo lerroan, zehaztuko dugu. Ad.: *en Cuatro Concejos...*

<sup>75</sup> Lehenengo lerroa erabili beti kokapenaren erreferentzia emateko. Kokapena:....

<sup>76</sup> J.M<sup>a</sup> Jimeno Juríok dokumentuen hustuketari buruz dio: *“Recojo los topónimos propiamente dichos y cuantos aluden a ellos mediante sufijos vascos, preposiciones castellanas, o frases referenciales en una u otra lengua, con sus variantes antiguas y modernas. Ello permitirá observar en qué circunstancias prefirieron los antiguos amanuenses usar voces o giros latinos y romances en lugar de sus equivalentes vascos, que a veces combinan, y el fenómeno de retroceso del euskera en la comarca (cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur), reflejado de algún modo en la adulteración de la toponimia menor y el progresivo predominio del castellano”* (1991: 22).

<sup>77</sup> Ugarte, J.L., 1998: 261.

## 9. irudia: TOPONIMO DOKUMENTATUAREN FITXA

The screenshot shows a Microsoft Access window titled 'Microsoft Access - [Toponimo Dokumentatuaren Fitxa]'. The window contains a form with the following fields and values:

<b>Dokumentua:</b>	0555	HIPOTECAS-MARKINA.80	
<b>Orrialdea:</b>	0013	<b>Ordena:</b> E00	<b>Data:</b> 1863
<b>Toponimoa:</b>	Aznabar, monte		
<b>Kod. Geo:</b>	10106	MENDI	
<b>Udalerria:</b>	48060	Markina-Xemein	
<b>Erakundea:</b>	0002	DEIKER	
<b>Dokumentalista:</b>	A045	QUINTANO, PAULA	
<b>Testuingurua:</b>	L: Barinaga // L: confiante por la parte de abajo con el monte llamado Aralpija //Es de la clase de los argo-		
<b>Oharrak:</b>			

At the bottom of the window, there is a taskbar with the following elements: 'Inicio', 'Explorando - eskuliburua', 'Microsoft Access - [T...', and 'Microsoft Word - eskulau...'. The system clock shows '13:44'.

Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

## II.2.2. TOPONIMO KARTOGRAFIKOEN BILKETA

**Toponimo kartografikoen bilketa** egiteko proposatzen ditugun informazio eremuak hauexek dira (10. irudia):

*Dokumentu kartografikoa*: Iturriaren kodea (4 digitu) edo izena.

*Ordena*: Automatikoki sortzen den zenbakia. Mapa barruan agertzen diren toponimo guztiak zenbatuta agertuko dira.

*Data*: Dokumentu kartografikoaren urtea.

*Toponimoa* (Toponimo kartografikoa): Mapan agertzen den erara transkribatutakoa, maiuskulak, minuskulak eta laburdurak errespetatuz eta sartzeko ordenarako emandako oharrak jarraituz. Toponimo dokumentatu bakoitzak fitxa bat behar du.

*Kode geografikoa*: Entitate geografiko zehatza adierazten digun 5 digitutako zenbakia. Iturri kartografikoetan informazioa hau osagai generikoaz gainera, letraren neurriak eta koloreak ere ematen digute. Toponimo bakoitzak kode geografiko bakarra izan behar du.

*Dokumentalista*: Dokumentalistaren kodea edo izen-abizenak.

*Udalerria*: Toponimoa kokatuta dagoen udalerria. Toponimo bat, bere hedaduragatik, udalerrri batean baino gehiagotan kokatzen bada, udalerrri bakoitzeko fitxa bana idatzi beharko da.

*Oharrak*: Dokumentalistak toponimo honen inguruan izan dituen zalantzak (zalantzazko kokapena, kodifikazio geografikoa...).

## 10. irudia: TOPONIMO KARTOGRAFIKOAREN FITXA

Microsoft Access - [Toponimo Kartografikoaren Fitxa]

Archivo Edición Ver Insertar Formato Registros Herramientas Ventana ?

Dok. Kartogr.: E047 MAPA LEA-ARTIBAI

Ordena: 2016 Data: 2001 Balorazioa:

Toponimoa: BAURDO

Kod. Geo.: 40301 BASERRI

Udalerria: 48063 Mendexa

Erakundea: 0002 DEIKER

Dokumentalista: E002 LDPATEGUI URIARTE, Mª PILAR

Oharrak:

Inicio Microsoft Access - [T... Explorando - Disco de 3½ (... Microsoft Word - PANTAIL... 12:21

Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

### II.2.3. ITURRI IDATZIEKAKO INFORMAZIOA DATU-BASEAN GRABATU ETA ZERRENDAK ATERA

Lehenengo, iturri idatzietako toponimoak, dokumentalak eta kartografikoak, grabatuko ditugu eta gero minuta toponimikoaren informazioa.

*Iturri idatzien grabaketa* bi fase desberdinetan egiten da: lehenengo eta behin, dokumentu berriei eta pertsoneri (ETDan erabili ez direnak) "alta" eman beharko zaie, tauletan ager daitezzen. Horretarako dokumentuen edo pertsonen pantailalara joko dugu (11., 12. eta 13. irudiak). Dokumentu berriaren ezaugarriak grabatuko ditugu<sup>78</sup> eta datu-baseak automatikoki kodea ezarriko dio dokumentu berriari. Pertsonen "altak" bi zatitan egingo ditugu: lehendabizi, pertsonaren informazioa txertatuko dugu dagokion pantailan eta, jarraian, pertsona hori pertsona mota batekin erlazionatuko dugu, "Pertsonak-Pertsona motak" izeneko pantailan (14. irudia). Bertan pertsona bakoitza zer den (dokumentalista, filologo...) zehaztuko dugu. Jarraian, prest egongo gara lehenago deskribatu ditugun toponimoen fitxak (dokumentatuak eta kartografikoak) grabatzeko, bakoitza bere pantailan.

Iturri idatzien grabaketa amaitu ondoren *minuta toponimikoaren informazioaren grabaketa* hasiko dugu. Hortarako toponimo kartografikoen eta lekuen arteko erlazioak eskuz grabatuko ditugu "Lekuak eta erlazioak" izeneko prozesua jarraituz. Toponimo kartografiko batek ez badu erlazionatzeko leku zaharrik, *leku berri* bat sortuko dugu dago(z)kion puntu berri bakar edo anitzekin; jarraian toponimo kartografikoak erlazionatuko ditugu leku berriarekin (ikus III.2.1. atala).

Hemendik atarako den zerrenda minuta toponimikoarekin bat etorriko da, hau da, ETDan ahoz jasotako toponimoak eta toponimo kartografikoak osatzen duten zerrenda da, *egiaztapen zerrenda geografikoa* deituko dioguna (15. irudia).

Informazioa grabatu ondoren, zerrendak ateratzeko prest egongo gara. Zerrenda hauen bidez eta minuta toponimikoaren grabaketatik ateratakoekin egiaztapen-inkestarako materiala prestatuko dugu. Batetik, dokumentaziotik (liburuetatik, idazki historikoetatik, iturri kartografikoetatik...) hustutako toponimoen zerrenda izango dugu; hau *egiaztapen zerrenda dokumentala*<sup>79</sup> da (16. irudia). Bestea, minuta toponimikoarekin bat datorrena, hau da, ahoz jasotako toponimoak eta toponimo kartografikoak osatzen duten zerrenda da, *egiaztapen zerrenda geografikoa* deituko dioguna.

Amaitzeko, *egiaztapen zerrenden irakurketari* ekingo diogu. Zerrenda hauek behin eta berriro irakurriz gero, tokiko toponimiara hurbilduko gara, ohitu egingo gara inguruko toponimiara, errazago entzungo ditugu entzutekoak eta errazago ohartuko gara falta dugunaz.

---

<sup>78</sup> Argitaratu gabeko dokumentuen fitxan, "urtea" izeneko kanpoan, dokumentuko edo dokumentu-bildumako urterik zaharrena grabatuko da; "oharrak" izeneko kanpoan zehaztuko dira dokumentuaren urterik zaharrena eta berriena.

<sup>79</sup> Ez du aparteko tratamendurik behar.

## 11. irudia: DOKUMENTUAREN FITXA

Microsoft Access - [Dokumentuaren Fitxa]

Archivo Edición Ver Insertar Formato Registros Herramientas Ventana ?

Kodea:	0452	Urtea:	1807	Eskuragarritasuna:	G01	Balorazioa:	G01
Izenburua:	MONTES.- Registro 2 // Legajo 5						
Egilea:	0						
Eremua:	BIZKAIA						
Tokia:	A.H.F.B. - Administrativo.						
Dharrak:	Ordenanzas de la Anteiglesia de Mañana para la conservación de sus montes, aprobadas por la Diputación General de este M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya. Año de 1807 a 1808.						

Inicio Explorando - Copia2002-0... Microsoft Access - ID... Microsoft Word - Documen... 11:07

Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

## 12. irudia: DOKUMENTU KARTOGRAFIKOAREN FITXA

Microsoft Access - [Dokumentu Kartografikoaren Fitxa]


Archivo Edición Ver Insertar Formato Registros Herramientas Ventana ?

Kodea:	E047	Urtea:	2001	Eskurag.:	G01	Balorazioa:	G01
Izenburua:	MAPA LEA-ARTIBAI						
Egilea:	LEA ARTIBAIAKO AMANKOMUNAZGOA						
Eremua:	Lekaitio, Ispaster, Mendexa, Gizaburuaga, Amoroto, Ondarrea, Berriatua, Aulesti, Markina-Xemein, Munitibar, Etxebarria, Ea, Ereño, Kortezubi, Nabarniz, Mendata, Ibarangelu, Arratzu, Muxika, Beriz, Mallabia, Iurreta						
Tokia:	VITORIA-GASTEIZ						
Dharrak:							

Inicio Microsoft Access - ID... Explorando - Disco de 3½ (... Microsoft Word - PANTAIL... 12:23


Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

### 13. irudia: PERTSONEN FITXA



Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

### 14. irudia: PERTSONAK-PERTSONA MOTAK ERLAZIO-FITXA



Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.



15. irudia: EGIATAPEN ZERRENDA GEOGRAFIKOA

**EGIATAPEN ZERRENDA GEOGRAFIKOA:**  
**1986/89 URTEKO AHOZKO TOPONIMIA + TOPONIMO KARTOGRAFIKOAK**

ORRI ZB.:  HERRIA:  INKESTATZAILEA:

ORDENA ZB.	TOPONIMOA	MOTA	BAL'01	KODE GEO.	LEKUKOA / ITURRIA
001	KABO BILLANO	A	A0	10603	0747
	KABO BILLANO	A	A0	10603	0748
	LEGORARRI MUTURRA	A	M0	10603	1318
002	KOBE	A	M0	10601	0748
	AZOGA	K	K0	10601	3
	AZOGA	K	K0	10601	5
003	AXPE	A	F0	30101	0748
004	FANO MENDIA	A	M0	10106	1318
	LEORARRI	A	A0	10106	0747
	LEORRARRI	K	A0	10106	4
	LEORARRI	K	A0	10106	6
005	ASOGA	A	M0	10601	0748
006	LEGORARRI	A	M0	10601	0748
	ARTARRE	K	M0	10601	6
007	ARRISABALE	A	A0	20105	0748
	ARRISABALE	A	A0	20105	0747
	ARRIZABALE	A	A0	20105	1318
	GURBIZAURRE	K	M0	20105	4
	GURBIZAZURRE	K	M0	20105	3
	GURBIZAZURRE	K	M0	20105	5

.../...

Iturria: Josu Larrañaga Arrieta inkestatzailea; 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako inkestaren zatia.

## 16. irudia: EGIATZAPEN ZERRENDA DOKUMENTALA

Microsoft Access - [Toponimo Dokumentatuak Udalerria]

Archivo Edición Ver Herramientas Ventana ?

Udalerria: 48043 Górliz 1449/2540

Toponimoa	Orria	Ord.	K.G.	Testuingurua	Oharrak	Dokumentu
Abadena, casa de	0779	E23	40301	Tiene pertenecidos	DATA: 1799	0579
Achutegui, casa de	0063	E10	40301	Con sus pertenecidos	DATA: 1862	0422
Agarrane	0205	E45	00101	Par: 0	DATA: 1956	E 000
AGEOS	0001	E2	40301	0	DATA: 1986	0007
AGIRRE -ANDRA MARI	0000	E72	80604	0	DATA: 2001	E 017
AGUIRRE ARANA	0041	E42	10106	L:EN GORLIZ //	DATA: 1715/00/00 // T	E 006
AGUIRRE, ERMITA DE N. S.RA.	0857	3	60708	0	DATA: 1798	0004
AGUIRRE, N° S° DE	1520	4	40301	0	DATA: 1796	0003
AIZCORRI	0117	E90	10606	L:EN GORLIZ //	DATA: 1878/04/26 // T	E 007
ALCATENA	0118	E11	40302	L:EN GORLIZ //	DATA: 1845/08/05 // T	E 007
ALDAI KALEA	0430	024	40203		DATA: 2002	E 023
Aldai, casa de	0770	E09	40301	Tiene pertenecidos	DATA: 1799	0579
ALDAP A BARRENA	0430	112	40203		DATA: 2002	E 023
ALDAY	1144	12	40301	0	DATA: 1704	0002
ALDAY	1523	11	40301	0	DATA: 1796	0003
ALDAY	0042	E90	40302	L:EN GORLIZ //	DATA: 1765/11/29 // T	E 006
ALDAY	0853	27	40301	0	DATA: 1798	0004
ALDAY CEORRETA	0043	E04	40302	L:EN GORLIZ //	DATA: 1743/03/18 // T	E 006
Alday, casa de	0063	E05	40301	Con sus pertenecidos		0422
Alday, casa de	0779	E22	40301	Tiene pertenecidos		0579
ALDAYASPE	0118	E32	30401	L:EN GORLIZ //	DATA: 1827/03/17 // T	E 007
ALEGRIA	1524	8	40301			0003
ALEGRIA	0857	7	40301			0004
Alegria, casa de	0778	E14	40301	Tiene pertenecidos		0579

Página: 14 1449

Preparado MAYÚS NUM

Inicio Explorando - aplika... Microsoft Word - P... Microsoft Access - ... Microsoft Acce...

16:16

Iturria: 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako prestatutako toponimia.

## II.3. LANDA-LANA

### **II.3.1. LANDA-LANAREN GARRANTZIA ETA HELBURUAK**

Beti uste izan dut toponimia-lan baten kalitatea, hein handi batean, inkestaren kalitateagatik neurtzen dela, hau baita lanaren lehen materia. Alferrik izango ditugu gero tresnarik aurreratuenak geure esku (ordenagailuak, programak, laborategiak...); inkestan gelditutako hutsuneak ezin izango ditugu bete. Aditu bik diotena jasotzen dut inkestaren garrantzia hobeto adierazteko: J. Terradoren eta I. Echevarriaren hitzak.

Holaxe baloratzen du J. Terradok landa-lana:

*“por qué no hemos de estudiar la toponimia basándonos únicamente en los nombres que aparecen en los mapas, en los tratados de geografía, en las obras historiográficas o literarias, en las libretas archivadas en las delegaciones de Hacienda, en las listas del catastro o, sencillamente en los estudios de los toponimistas? Y habré de responder que es perfectamente justificable trabajar así, pero sólo cuando no sea posible comprobar in situ la forma de los nombres... Pero no puedo dejar de insistir en mi idea: la encuesta oral es siempre una fuente de información utilísima, muchas veces imprescindible. Y es que los mapas se hallan repletos de errores. Las obras de geografía y de historia no nos dan la transcripción fonética de los topónimos... Muchos de estos inconvenientes podrían evitarse si pisáramos el terreno y recogiéramos el nombre tal como lo pronuncia la gente que lo ha recibido de boca de sus padres, si observáramos la naturaleza del lugar, sus características, los vestigios de antiguas construcciones, el color de la tierra o el tipo de vegetación...” (1999: 27-28).*

I. Echevarriak ere halaxe aldarrikatzen zuen inkestaren balioa ikerketa toponimikoan:

*“la importancia del trabajo de campo, o sea, de la encuesta, más que grande es totalmente decisiva... está claro que la investigación toponímica, sea su finalidad una u otra: sea la investigación histórico-lingüística o la confección del mapa de una comunidad, como en este caso, pasa siempre por la elaboración de un corpus o inventario toponímico, de cuya calidad dependerá la del producto final (1991: 7).*

Abiapuntu hau onartu ondoren, ez dugu uste inkesta toponimiko bat planteatzerako orduan, ikertzailea helburu kartografiko edo helburu linguistiko hutsaren atzetik joan daitekeenik itsu-itsuan. Zergatik ez? Lehenengo, arrazoi ekonomikoa dagoelako. Arrazoi etikoak ere oso garrantzitsuak dira: asko nekatzen ditugu lekukoak inkesta mota desberdinak direla eta, behin eta berriz, erakunde desberdinek eta inkestatzaile desberdinek, laguntza eskatuta... Pertsona helduak eta zaharrak izaten dira, erraz nekatzen direnak eta gure probetxurako ahalegin handiak egiten dituztenak.

J. Terradoren ustetan inkestaren ezaugarriak helburuaren arabera finkatuko dira. Oso argi desberdintzen ditu, adibidez, kartografo baten<sup>80</sup> eta filologo baten helburuak:

*“Probablemente la encuesta de un cartógrafo no sea correcta si falta uno de estos tres datos: el nombre recogido sobre el terreno, su situación exacta (con indicación precisa de su situación y coordenadas) y su codificación geográfica (río, monte, bosque...). El filólogo, en cambio, se contenta con una situación aproximada, normalmente por relación a otros lugares próximos o a un núcleo de población. Eso sí, da mucha importancia a la transcripción fonética del nombre, a la indicación de las características del terreno y a todas las informaciones que puedan ayudar a su etimología...” (1999: 29).*

---

<sup>80</sup> M.A. Lleonarten eta M. Parellaren artikuluan oinarrituz (1994: 12).

Eskuliburu honetan proposatzen den inkesta toponimikoak ikuspegi bi hauek bereganatuko ditu; horretarako toponimoa ondo jasota (entzunda eta kokatuta), ondo idatzita eta ondo hautatuta egon beharko da. Hautatuak izan ez diren toponimoak datu-basean gordeta geldituko dira eta beste mota bateko ikerketen materiala izan ahal izango dira (eskala handiko kartografia, toponimia historikoa berreskuratzeko egitasmoa, euskalkien/azpieuskalkien azterketak, azterketa diakronikoa eta sinkronikoak...) <sup>81</sup>.

Azken urteotako esperientziek erakusten digute zenbait filologok helburu linguistiko hutsarekin bideratutako toponimia-lanetan mapetara jo dutela inkesta lana ondo burutzeko eta euren ikerketen emaitzak aurkezteko; horietako batek, A. Usabiagak, maparen defentsa ere egin du:

*“gainontzeko lan guztiak balio praktikoa izan dezan nahi bada, ezinbestekoa da ikerketa guztiaren ondorioak mapa batean islatzea. Toponimoen kokapena ezagutu eta azaltzeak neurri handi batean horien berreskuraketa eta erabilpena baitakar, bide batez mapa bera hedabiderik onenetakoa delarik.” (1993: 25).*

Geografo eta kartografoen ikuspuntua ere zabaldu egin dela deritzot eta halaxe azaldu genuen Araba eta Gipuzkoako toponimia-lanaren metodologia txostena idatzi genuenean, Québec-eko Toponimia Batzordeak bere *Guide á l’usage des cartographes* izeneko argitalpenean esandakoa jasotzean:

*“Kalitatezko dokumentu kartografikoak egin ahal izateko, bertan agertuko den toponimiak hutsik gabea izan beharko du. Hau da, izendegi geografikoaren edukiek eta formek adituek emandako eta gomendatutako izenen arabera izan beharko dute” (Deustuko Unibertsitatea, 1994: 15)*

Planteamendu orokorra azaldu ondoren, laburbilduz, inkesta baten helburuak zehaztuko ditugu:

- a) Gaurko toponimia biziaren <sup>82</sup> bilketa:
  - Euskal jatorrikoak, jatorri erromantzekoak, beste edozein jatorri ezagunetakoak eta jatorri iluneko toponimoak jaso.
  - Orri/ortofotorri batean ahalik eta zehatzen kokatu toponimoa.
  - Toponimoaren hedapena zehaztu (toponimo linealetan eta zonaletan).
  - Toponimoak izendatzen duen entitate geografikoa zehaztu eta sailkatu kodifikazio geografikoaren arabera.
  - Ahal den neurrian, tokia bisitatu: ezaugarri fisikoak, erabilpenak...zehaztu ahal izateko.
  - Toponimo solteak zein esaldi baten txertatutakoak bildu.
  - Toponimoaren “oinarrizko” transkripzio fonetikoa egin.
  - Lekukoak ematen dituen “etimologia”, argibide, ohar... guztiak jaso.
- b) Iturri idatzien bidez jasotako toponimia egiaztatu:
  - Bizirik dagoen ala ezezaguna den argitu.
  - Bizirik dagoen toponimoarekin erlazionatu.
  - Kokapena eta hedapena zehaztu.
  - Gaurko kodifikazio geografikoaren arabera sailkatu.
  - Argibide, ohar, etimologiak... jaso.
  - Gaika galdetu (sailkapen geografikoa)

---

<sup>81</sup> J.M<sup>a</sup> Jimeno Juríok ere antzerako zerbait adierazten du toponimia-lanen helburuez: *“Recoger topónimos de forma sistemática y con rigor científico, para poner esos materiales a disposición de los lingüistas”* (1991: 102).

<sup>82</sup> “Toponimia bizia” ren barruan sartzen da lekukoak, nahiz eta errealitate geografikoa desagertuta egon, bere “memoria historikoan” oraindik ere gordetzen duena.

Laburtuz, inkestatzailearen helburu orokorrak galdera hauei erantzuna ematea izango litzateke:

- a) Zer izen du leku horrek?
- b) Beste izenik ba al du? Beste izenik izan du?
- c) Non dago?
- d) Nondik nora zabaltzen da, zein eremu hartzen du?
- e) Zer da? Nolakoa da?

Lehenengo biek toponimoaren alderdi linguistikoaren berri emango digute eta beste hirurak alderdi geografikoarekin lotuta etorriko dira.

Eta horretarako inkestatzaileak *ondo entzun, ondo kokatu, ondo mugatu* beharko du toponimoa eta informazio hau mapara, fitxara, pantailara... leialtasunez itzuli beharko du.

### II.3.2. INKESTAREN ALDERDI GEOGRAFIKOA ETA LINGUISTIKOA

Aurreko bost galderei era sistematiko eta fidagarri batez erantzuteko bi arlo eta diziplina desberdinetan oinarrituko gara: inkestaren alderdi geografikoan eta alderdi linguistikoan, hain zuzen ere. Alderdi bi hauek emango digute tokiaren eta izenaren berri.

#### II.3.2.1. Inkestaren alderdi geografikoa

Inkestan lekuaren berri ematea, toponimoaren kokapena, hedapena, entitate geografikoaren identifikazioa eta dagokion kodifikazio geografikoa zehazteaz hitz egitea da.

#### ***Toponimoaren kokapena eta hedapena***

Toponimo baten kokapena eta, beharbada, hedapena zehazteko modu desberdinak daude baina inkestatzaileak ez du gehienetan aukeratzeko modurik izaten. Gehienetan, lekukoaren ezaugarriek (adina, egoera fisikoa...), eguraldiak, orduak, astiak... baldintzatzen dute inkestaren leku fisikoa<sup>83</sup>. Kasuan-kasuan, komeni dena hautatu beharko da.

- a) Etxe barruko inkestak (leku itxietakoak). Inkesta egin aurretik beti ingurua ezagutzea komeni bada, zer esanik ez etxe barruko inkestetan.
- b) Leku altu batetik (tontor, gain...) egindakoak<sup>84</sup>.
- c) Lekukoarekin tokira joanda egindakoak.

Esperientziak eta baita ICCk ere aholkatzen duen moduan, toponimo baten kokapena eta hedapena zehazteko, orri edo ortofotorrian zirkuluak, geziak, lerroak erabil daitezke. Azken batean, gai honetan, ikertzaile bakoitzak aurkituko du bere metodoa.

Ikerketaren helburua kontuan hartuta, kokapenaren zehaztasunak balore desberdina hartzen du: J. Corominesek zion "Onomasticon Cataloniae"ri buruz helburua batez ere linguistikoa zela eta orduan ez zuela leku-izenaren kokapen zehatza helburutzat, gutxi gorabeherakoa baizik (1970: 258-259). Catalunyan jarraituz, ICCak ostera zioen biltzen diren toponimoen ahalik eta kokapen zehatzena lortu behar zela (1985: 29). Guk ere halaxe uste dugu.

---

<sup>83</sup> J.M<sup>a</sup> Jimeno Juríok inkesta egiten den lekuari buruz adierazten du: "*He celebrado las entrevistas dentro de casa, en plena calle, en el campo, repitiendo las visitas cuantas veces haga falta. Pretendo con ello localizar y situar en el mapa el mayor número posible de topónimos, observar las características del terreno y la forma de pronunciación, y completar la relación con nombres no recogidos en la documentación escrita.*

*Normalmente recorro algunos parajes a fin de aportar informaciones de primera mano sobre ciertos accidentes geográficos, calidad del suelo, tipo de flora, vestigios arqueológicos o de construcciones y transformaciones del suelo por concentración parcelaria, construcciones de distinto carácter o nuevos viales.*" (1991: 106).

<sup>84</sup> J. Coromines metodo honen aldekoa agertzen da. Bere ustez, lekukoarekin tokia ikustea emankorragoa da eta gaizki-ulertuak murriztu egiten omen ditu (1970: 2. Bol., 258)

## **Entitate geografikoaren identifikazioa**

### *Entitate geografikoa eta leku-zenbakia*

*Entitate geografikoa* identitate argia duen lurrazalaren zatia da. Entitate geografiko naturaletan (ad. hondartza, gailurra...), artifizialetan (plaza, ubidea, zubia...) edo administratiboetan (eskualde, parke natural...) sailkatzen dira. Toponimia-lanetan toponimoak zer identifikatzen duen jakin behar dugu. Azken batean, entitate geografikoa lurrazaleko *leku* bat da eta *unitate* zehatz bat osatzen du.

Leku mota desberdinak ditugu irizpideen arabera:

- Hedapenaren arabera: puntualak (ad. ermita), lineala (ad. erreka), zonala (ad. basoa)
- Hierarkiaren arabera: nagusiak (ad. herria), ertainak (auzoa), txikia (baserria), oso txikia (sola)
- Entitate geografiko motaren arabera: oronimoak (mendi, muino...), hidronimoak (itsaso, ibai...), odonimoak (kale, errepide...)...

Ikuspuntu honetatik, ikerketa toponimiko baten oinarritzko unitatea *lekua* da; leku bakoitza entitate geografiko bat da (tontorra, erreka, basoa, kalea, museoa...). Inkesta toponimikoan leku batendako izen bakarra edo bat baino gehiago jasotzea gerta daiteke.

Batzuetan, lekua “zatituta” agertzen da udalerrri biren edo gehiagoren artean edo/eta orri bat edo gehiagoren artean. Horregatik, lekuak, kartografian *puntu* edo *puntu kartografiko* bat edo batzuk izan ahal ditu. Puntua, 1:5.000 eskalako *orri-zenbakiak* eta *ordena-zenbakiak* osatzen dute (ikus III.2.1. atala).

Inkestatzaileak toponimoa bere lekuan kokatu, mugatu eta zehazteak eta entitate geografikoaren arabera sailkatzeak eragin handia izango du tratamendu geografikoan; adibidez, letra mota hautatzean, letrek hartu behar duten hedapenean (biluago edo solteago), eskalaren araberrako hautaketa egitean...

### *Entitate geografikoaren identifikazioa eta kodifikazio geografikoa*

Entitate geografikoaren identifikazioa inkestatzailearen eginbeharretako bat da: inkestan lekukoak egindako deskribapenetan eta azalpenetan oinarriturik, edo/eta inkestatzaileak eginiko maparen interpretazioa egin ondoren, edo, beharbada, zalantzazko kasuetan, lekura, bertara, joan ondoren, inkestatzaileak erabakiko du zein den toponimoari dagokion entitate geografikoa. Entitate geografiko biren artean zalantzak sortuz gero, lekukoarekin argi daitezke zalantzak.

Identifikazioa inkestatzailearen esku gelditzen bada ere, baina berak lekukoari galdetu beharko dizkio tokiaren ezaugarriak behar duen informazioa lortzeko eta, azkenik entitate geografiko bat hautatzeko<sup>85</sup>.

Entitate geografikoa identifikatu ondoren, dagokion kode geografikoa ezartzen zaio<sup>86</sup> eta horrela jakingo dugu toponimo batek zer izendatzen duen<sup>87</sup>.

<sup>85</sup> “los informantes poseen las claves de la identificación de los referentes extralingüísticos de los topónimos, o sea, la geografía que identifican” (Echevarría, 1991: 8).

<sup>86</sup> Ikus 55. oin oharra.

<sup>87</sup> Guk “kodifikazio geografiko” bezala izendatzen dugun gaika ordenatutako entitate geografikoen zerrendari “questionnaire toponymique aide-mémoire” (Poirier, 1965) edo “cuestionario” (Alvar, 1972; Buesa, 1977) edo “encuesta toponomástica, encuesta-directorio” (Jimeno Jurio, 1988) edo “clasificación léxica” (Echevarría, 1999) edo “clasificación de los lugares” (Terrado, 1999) deitzen diote; kartografoen artean “codificació geogràfica” (ICC, 1985); “clasificación geográfica” (Junta de Andalucía, 1990); “códigos de toponimia” (Eusko Jaurlaritz. Lurralde Antolaketa-ko Sailburuordetza, data barik).

Entitate geografikoaren mota bereizteko, H. Hudonen ustetan 4 metodo desberdin edo osagarri jarrai daitezke:

- a) Lan terminologikoak: *Izen Geografikoen Glosarioa* izeneko liburuan aurkituko dugu Euskal Herriko errealitate geografikoari lotutako entitate geografiko bakoitzaren definizioa<sup>88</sup>. Glosario honetan agertzen diren termino guztiak 9 gaitan sailkatuta daude:
  - Aurkintzak
  - Orografia
  - Hidrografia
  - Lur-erabilerak
  - Bizigune iraunkorrak
  - Industria
  - Hornidurak
  - Komunikabideak eta garraioak
  - Banaketa politiko-administratiboa
- b) "Mapa Topográfico Nacional"a: sestra-kurben, sare hidrografikoaren, lur-erabileren eta bestelako informazioaren interpretazioan oinarritutako identifikazioa.
- c) Deskribapena: lekukoak egindako tokiaren deskribapenean oinarritutako identifikazioa. Lekukoak duen gaitasuna eta inkestatzailaren trebetasuna izango dira garrantzitsuak.
- d) Lekura, bertara joatea: hau da, dudarik gabe, metodorik fidagarriena nahiz eta sarritan, beste arrazoi batzuegatik (denbora, baliabideak...) zalantzarako kasuetarako bakarrik erabili.

Hala eta guztiz ere, aholku hauek guztiak jarraitu ondoren, askotan ez da lan erraza izaten entitate geografiko batzuen artean bereizketa egitea; halaxe azaltzen zigun, kasu desberdinen bidez, P. Galék 2001. urteko "Toponimia-lanen metodologia ikastaroan" eman zuen eskolan. Besteak beste, orografian (mendigunea eta mendizerra, mendikate, mendizerra eta gailurreria...) hidrografian (badia, senaia eta kala...)... gertatzen dira maizen zailtasun horiek.

A. Usabiagak Andoingo toponimia-lanean ere zailtasun honen berri ematen zuen:

*"sarritan zaila gertatu zaigula antzeko entitateen arteko bereizketa egitea: muinoa, gaina eta mendia, adibidez, zehazki zer diren jakitea eta zerk ezberdintzen dituen... Guzti honen ondorioz beharrezko sumatzen dugu entitate geografikoen definizio zehatz eta zorrotz bat egitea. Definizio horren beharra dago ere generiko odonimikoei dagokionez, generiko bera duten komunikazio bideak –kaleak, etorbideak, pasealekuak...e.a.- ezaugarri amankomunak izan behar bailituzkete" (1993: 23)*

A. Usabiagak plazaratzen zuenari –entitate geografikoen definizioa egiteko beharraigogoeneko eman zaio erantzuna<sup>89</sup>.

Azken urtean Euskal Herriko errealitate geografikoari begiratuta 382 entitate geografiko definitu ditu UZEIk aditu batzorde baten laguntzarekin<sup>90</sup>. Ondoren, entitate geografiko bakoitzari

---

Kodifikazio geografikoko eremuek ere izen desberdinak hartzen dituzte: beste batzuen artean, J.M<sup>8</sup> Jimeno Juríok *"campos semánticos, realidades geográficas..."*; J. Corominesek *"grupos semánticos"*; DEIKER Institutuak *"kode geografikoak"*; Nafarroako toponimia-lanean ere *"Kode geografikoa"*; Euskaltzaindian *"Objektu geografikoak"*, I. Echevarriak *"Unidad léxico-toponímica"* eta J. Terradok *"designatum"*.

<sup>88</sup> Lan honen parekoa izan daiteke Québec-eko Toponimia Batzordeko *Terminologie géographique de la toponymie québécoise* (1987).

<sup>89</sup> *Izen Geografikoen Glosarioa*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2001

<sup>90</sup> Batzordea erakunde desberdinetako filologoek eta geografoek eratu dute: I. Etxebeste (UZEI); M. Alberdi, A. Díaz de Lezana eta P. Sagardoy (HPSko teknikariak); M. Azkarate (Euskaltzaindia); M.

dagokion euskarazko ordaina finkatu da horretarako sortutako Normalizazio Batzordean. *Glosario* hau Euskal Herriko errealtate geografiko osoan, zabalera ezberdineko ikerketetan (herria, lurralde oso bat), eskala ezberdinetan (ertaina, handia) edo helburu desberdinak dituzten ikerketetan (filologikoa, geografikoa...) erabiltzeko pentsatuta dago. Duda barik, proposatzen dugun kodeketa honen balioa toponimoen corpusari aplikatzen zaionean baloratuko da eta, seguruenik, balorazio horrek, berriz ere, aldaketaren batzuk ekarriko ditu<sup>91</sup>.

Kodifikazio geografiko zuzena egitea beharrezkoa da ikuspuntu desberdinetatik:

a) *Kartografiaren ikuspuntutik* eragina izango du errepresentazio motan (letra mota, kolorea, letren hedapena...). Kode geografiko bakoitzak bere kode tipografikoa izan dezake fotokonposaketa fasean<sup>92</sup>.

b) *Datu-basearen kontsulta* era probetxugarrian egiteko ere P. Galék adierazten du :

*“Kodeketa honen diseinuaren eta ongi aplikatu izanaren ondorioz, datu-baseari egingo zaizkion kontsultek nahi dugun erantzuna emango digute edo nahi ez dugun beste emaitza bat. Hortaz, bildutako izen bakoitzak inkestatuarentzat zer izendatzen duen ongi aditu beharra dago”* (Galé, 2001).

c) *Hizkuntzaren ikuspuntutik*, entitate geografiko bati erantsitako lexiko geografikoaren datu-bilketa lortuko dugu<sup>93</sup> eta, gainera, normatibizazio linguistikoari begira, bertsio desberdinak proposatzeko orduan eragin handia izango duen gaia da (ikus III.1.2.atala).

Ad.: *Urola erreka* (ahozkoa; ent. geog.: ibaia, río); *Urola erreka* (proposatutakoa; eusk. bertsioa); *Río Urola* (proposatutakoa; gaztel. bertsioa)

*Sastarrain erreka* (ahozkoa; ent. geog.: erreka, arroyo); *Sastarrain erreka* (proposatutakoa; eusk. bertsioa); *Arroyo Sastarrain* (proposatutakoa; gaztel. bertsioa).

#### *Entitate geografikoaren terminoa eta osagai generikoa*

---

Gorrotxategi (Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordea); J.I. Telleria (IGNko teknikaria); P. Galé (Euskaltzaindia. Onomastika batzordea); Guillermo Meaza (Euskal Herriko Unibertsitateko Geografia Fisikoko katedraduna) eta N. Mujika (Deustuko Unibertsitateko Geografia irakaslea).

<sup>91</sup> Honetaz J. Terradok dio: *“La experiencia enseña que cada toponimista tiene su propia clasificación, inspirada en parte en las de sus predecesores pero también en los datos lingüísticos que ha manejado. Y se constata también que, una vez lograda tal clasificación, existe la legítima pretensión de que sea útil en otras investigaciones y en otras zonas.”* (1999: 75-76).

<sup>92</sup> Ikus M. A. Lleonart eta M. Parelaren “Toponimia en cartografía” eta J. Torten “Notes metodològiques per a un estudi de la interrelació entre toponímia i cartografía” izeneko artikuluak.

<sup>93</sup> *“Geroz eta garrantzi handiagoa ematen hasi zaio generikoen kontuari. Euskal Herrian garrantzi berezia du gainera, hiztegiaren batasuna oraindik eginbidean dagoelako eta oinarrizkoa delako hiztunek ahoz darabiltena ezagutzea, kontzeptu bakoitzerako era batua ongi erabaki nahi badugu. Adibidez, geografia hiztegia osatzean, aurrepausua izan behar litzateke euskalkiz euskalkiko generikoen katalogo ahalbait osatuena edukitzea...”* (Galé, 2001).

J.M<sup>a</sup> Jimeno Juriok ere 1987an ardura hori agertu zuen bere *Presentación del borrador...* izeneko artikulua atal batean “Orientar sobre equivalencias” eta halaxe adierazten du: *“La guía es una sistematización de realidades geográficas cuyos nombres (en castellano u otra lengua) interesa conocer... El pequeño elenco de voces vascas pretende ayudar al investigador que no conoce esta lengua; pero no es un vocabulario de toponimia conteniendo conceptos, definiciones y equivalencias axiomáticos, ni pretende recoger modalidades lingüísticas o dialectales ni definiciones puntuales, exactas, académicas, válidas para todo tiempo y todo el país...”* (1987: 439).

DEIKERek Araba eta Gipuzkoako toponimia-lanaren metodologian ere behar hori azaltzen zuen (1994: 150) eta baita nik neuk ere 1997an Donostia-San Sebastiánen antolatutako *Nazioarteko Terminologia Batzarrean* aurkeztu nuen komunikazioan.



Ahoz jasotzen dugun toponimoaren osagai generikoak, gehienetan, entitate geografikoa zein den adierazten digu. Horrela ez denean, herri hizkeraren eta terminologia zientifikoaren artean desberdintasunak agertzen direlako da.

Ikuspuntu terminologikotik, entitatea adierazten duen terminoa hizkuntzaren aldetik arautua da eta geografikoa da hertsiki. Osagai generikoa, ostera, herri hizkeraren adierazle da, tokian tokiko esanahia gordetzen duena eta, gainera, beste garai bateko erabilpen edo jarduera baten adierazle izan daitekeena<sup>94</sup>.

### II.3.2.2. Inkestaren alderdi linguistikoa

Inkestatik jasotako toponimoak ondo entzutea izango da alderdi linguistikoaren helburu nagusia. Zer da “ondo entzutea”? A. Irigoyenen ustetan “*Euskal hiztunei entzunikoaren transkripzioa ahal denik zehatzen egin behar da. Honetarako ez da normalean transkripzio fonetikorik erabiliko [dž]-ren kasuan izan ezik, zeren hurbiltze egoki eta argi bat egitea aski baita eskuartearen darabilgun lanerako. Euskal orthographian korritzen duten norme jarraikiko zaie*” (1991: 1)<sup>95</sup>.

Transkripzioa modu ximplean egitearen alde agertzen dira bai *Nafarroa. Toponimia eta mapagintzaren egileak*,<sup>96</sup> bai M. Gorrotxategi ere, “*Toponimoen transkripziorako oinarritzko kontzeptuak*” izeneko eskola eman zuenean *Toponimia-lanen metodologia ikastaroan*<sup>97</sup>. Horretarako, hiztunen hizkuntzaren ortografia erabiliko dugu (Arabian jasotako erdal hiztunaren *Eguiluz* eta Gipuzkoan *Egiluze* edo *Egiluxe*). Proposatzen den transkripzio fonetiko Nafarroako toponimia-lanean agertzen dena da.

Lekukoek ahoskatzen dituzten soinuak fidagarritasunez jasoko dira<sup>98</sup> eta *Nafarroa. Toponimia eta mapagintzaren* erdua jarraituz transkribatuko dira, azentua markatuko da (*San Román, Mutxatei*)<sup>99</sup>, loturak (*Imittolako errekie* eta *Quemau del Somo Guiller*), kontrakzioak (*Larraturas, Itzinzelainausi, Galbuso*), bokal luzeak (*Agerresoo txiki*) eta jatorrizko formak errespetatuko dira bete-betean (*Cercau de Uruza, Aizkoetasaretxaare*)<sup>100</sup>.

<sup>94</sup> “...datu bilketan zehar erabilitako generikoak ere jaso beharko ditugunez, horrek pista handia emango digu izendatzen den entitatea zein den argiago ikusteko. Baina kontuz: generikoak maiz fosilduta, lexikalizaturik daude eta jadanik ez dira generiko, galdu baitute euren hasierako esanahia: Sopelan dagoen *Munarrriko landa* gaur ez da jadanik **landa**, eta zerbait bada, **mendia** dela esango genuke” (Galé, 2001)

<sup>95</sup> M. Gorrotxategi ere ohar hauek egin zituen: “*Euskaraz jasotako toponimoak euskara estandarreko sisteman emango dira salbuespen handi batekin. Euskara estandarrean ez da idazkeran fikari belarea ahoskabea (/X/gaztelaniazko jota) eta frikari sabaikari ahostuna (/Y/gaztelaniazko y) bereizten, baina gure lanerako oso baliotsuak dira, baina fonema moduan, (Leyoa) baita ia>iya moduko amaieretan ere, holakoetatik artikulua galera susmatu ahal baitugu.*” (2001: 1).

<sup>96</sup> “*On da ahoskera behar den moduan transkribitzea, modu ximplean bada ere.*” (1991: 37).

<sup>97</sup> “*Lanaren helburua toponimia normatibizatzea denez, eta ez inguru zehatz baten ahoskera, ez dugu transkripzio fonetiko zehatzik egingo...datu-bilketa zailtzea besterik ez luke egingo. Gure helburua sortzen diren soinu guztiak biltzea da, baina soinu horien erabateko azterketa egin gabe...*” (2001: 1). , M. Gorrotxategi DEIKER Institutua burutzen ari den Bizkaiko toponimia-lanerako (2001-2002) Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak izendatutako ordezkaria da.

<sup>98</sup> A. Rosek zioen bezala “*Entzumena inkesta egiten den leku eta egoerak baldintza dezake; txakurren adausiak, errepideko zarata (...) baina nekez zuzen daiteke inkestatzailearen belarri txarra...*” (2001: 10).

<sup>99</sup> A. Irigoyenek bere artikuluan ez du azentuaren bilketa sistematikoa proposatzen: “*Arabian erdal azentua aldatu agertzen da, seguru asko lehenagoko euskaldunen eraginez, eta orduan seinlatu beharko litzateke...Kasu honetan hala dela argi ta garbi markatzea beharrezkoa da, noiz-eta erdal orthographiaren araurik ez bete...*

*Batez ere azentua aski markatua denean hura seinlatzea komeni litzateke. Konparazio baterako Ibarrola erraiteko Iborla erabiltzen da, baina beste batzu Iborla... Nahi balitz azentua beti marka liteke.*” (1991: 2).

<sup>100</sup> Catalunyaoko Onomasticonean parte hartzen dutenei buruz Corominesek dio: “*Los auxiliares han recibido una formación especial; han sido instruídos para emplear una grafía especial y también para anotar todas las partículas sintácticas, lexicales y fonéticas deseables: empleo del nombre con o sin artículo, existencia de variantes individuales o momentáneas, explicaciones del informante sobre el sentido de la palabra, etc. Evidentemente no nos hemos olvidado de anotar todas las particularidades*

Arreta berezia eskainiko zaio *osagai generikoari*: batetik, inkestatzaileak ahalegindu behar du toponimoaren osagai generikoa batzen eta bere esanahia zehazten (deskripzioaren bidez); era honetara tokian tokiko lexiko geografikoari buruzko informazio zehatza ere bilduko dugu. Bestetik, garrantzitsua da, ahal den neurrian, osagai generikoa fosildua daukagun (*Eleixaurre, Asteibaso*), aposizioa den (*Ezkurriotz erreka, Monte la Cruz, Riajo (de) Esnate*) edo loturadun aposizioa agertzen den (*Tellamendiko espaldia, El rein del río*) bereiztea.

*Artikulu*a euskal jatorrizko toponimoetan zein erromantzeetan erabiltzen den ala ez ziurtatu egin behar da<sup>101</sup>. Ad.: *Avellanos* ala *Los Avellanos* den; *Soasu* ala *Soasua*... Horretarako, lortuko den erantzunak benetako erabilera isladatzen duena izateko moduan egin behar dira galderak, hau da, lekukoak testuinguru baten barruan eman behar du toponimoa, esaldi baten barruan.

Galdetzeko modua dela eta, batez ere hasiera batean, ez da komeni galdera zuzenak egitea: *“lekukoari berbetan utzi eta ez elkarrizketa moztu (...) gainera berbaz dagoela toponimoak, deklinatuta, batere ardura barik botako ditu, eta horrek zehaztasuna ematen digu”* (Kamiruaga, 2001: 3). Aholku bera ematen zuen M. Gorrotxategik: *“zuzen galdetuz gero ez dugu izen egokia edo ahoskera zuzena biltzen; hori dela eta, zeharkako galdera erabili behar dugu eta ahal dela hitz egiten utzi”* (2001: 2).

### II.3.3. ELKARRIZKETAREN LEHENENGO URRATSAK

#### II.3.3.1. Lekukoarekin lehen harremanak

Lehenengo harremanen xedeetako bat lekukoari lanaren helburua azaltzea izango da, modu errazean. Horretarako, hizkera arrunta erabiliko dugu sarreran zein elkarrizketa osoan. A. Rosek lana aurkezteko modu bat azaltzen zigun:

*“Eusko Jaurlaritza mapa barriak ari da prestetan, baserri, erreka, baso, mendi eta holangoen izenakaz... badakizu, eta izen horrek behar dan lez agertu daitezcan gure dogu, eta horretarako bertokoen laguntza eskatu gure gendun, hameko izenen barri zeuek baino hobeto inok ez daki eta. Gaztiek dagoeneko ez dituez ezetan eta galtzekotan dire izen horiek, eta galdu ez daitezcan ondo batzie komeni da ba”* (2001: 7).

Lekuko gehienak harro sentituko dira euren buruaz baina gerta daiteke norbaitek bere buruarentzako gehiegizko ardura hartzea dela uste izatea.

Jakina, hasierako harremanak asko errazten dira inkestatzailea lehendik ezagutzen duten norbait izan ezker. Azken batean, konfiantza giroa sortzea izango da gure helburu nagusia eta, horretarako, komenigarria izaten da beste gai batzuez ere hitz egitea (herriko gorabeherak, noren partetik gatozen, senitartekoak...). A. Kamiruagak zioen bezala *“Giro hori sortzen ez bada, pertsona arrotz baten eritziaren beldur, isilean gordeko dituzte guretzat baliagarriak izan daitezkeen hainbat eta hainbat datu”*.

Ez da komeni lehen egunean toponimoez galdetzen hastea; hobe da beste egun baterako gelditzea, beti ere lekukoari ondo datorkion ordua eta eguna errespetatuz. Hasiera-hasieratik gure esker ona agertuko diogu lekukoari eskaintzen digun denboragatik eta arretagatik.

#### II.3.3.2. Elkarrizketarako beste aholku praktiko batzuk

---

*semánticas que puedan aclarar el significado del nombre: situación del sitio, el color y la estructura del terreno, nombre de los antiguos propietarios conocidos y así sucesivamente”* (1970: 259).

<sup>101</sup> Ikus Gorrotxategi eta Salaberri, 2000: 283-284 orr.

Elkarrizketaren eta, batez ere, inkestaren inguruko aholku praktiko batzuk emango ditugu: grabagailuaren beharra, zer material erakutsi lekukoari, non apuntatu informazioa...

## **Grabagailuaren beharra**

Inkesta toponimiko baten grabaketak abantaila asko du: batetik, inkesta dokumentu historiko bihurtzen delako eta azterketa mota desberdinetarako baliagarri izan daitekeelako. Gaur egun kalean dauden grabagailu digitalek eta programa informatikoek toponimoen audio artxiboak egiteko aukera eskaintzen digute. Bide berri horrek lana erraztuko digu, izan ere, edozein toponimoren soinua elkarrizketa osoaren barruan erraz aurkitzeko modua ematen digu.

Inkestagileari grabaketak abantaila nagusi bat dakarkio: zalantzazko soinua aztertzeko modua izango du bai era arruntan, baita fonetikako laborategi batean ere, era zehatzagoan.

Hau guztia argitu ondoren, lekukoari baimena eskatu beharko diogu inkesta grabatu aurretik ahalik eta inportantzia gutxien emanda. Berriz ere A. Rosek azaltzen zuen:

*“honenbeste traste-eta, dana ondo apuntetako modurik ez dekot..., edo txarto apuntau batzutan, horretarako hartzean dogu zintan be, gero arrastien etxean errepasetako eta alperriko buelta asko egin behar ez izateko...”*

Sarritan grabazioaren kalitatea ez da ikertzaileak nahi bezain ona baina, gehienetan, ez dago bere esku egoera, lanerako baldintzak, aldatzea.

Amaitzeko, M. Gorrotxategik inkestatzailearen prestaketari begira emandako aholku batzuk, grabaketak egiteko orduan kontuan izan behar dituenak:

- Grabaketak egiten trebatu eta egindako lehen grabaketak entzun.
- Hasieran data grabatu eta inkestatuari izen-deiturak eta grabazio lekua galdetu.
- Mapan zenbakirik bada, ahoz esan hobeki kokatzeko.
- Minidisk sistema erabiltzen bada, mapa bakoitzeko “pista” bat sortu.

## **Zer material erakutsi lekukoari?**

Inkestaren lehen zatian, *inkesta orokorrean*, guztiz beharrezkoak diren materialak bakarrik erakutsiko dizkiogu: ortofotorria edo orria eta, inoiz, hala behar izanez gero, minuta toponimikoa edo zerrenda toponimikoa ere bai. Azken hauek esku artean izateak lekukoa nahastu egin dezake, lekukoa behartua senti daiteke eta, agian, kasu askotan, ez du ulertuko berarengana zergatik jo dugun informazio guztia alde aurretik baldin badaukagu.

Lekukoa material grafikoaren aurrean nola moldatzen den neurtuko dugu: bere baserria ondo kokatzen duen adibidez, erreferentziak hartzen dituen, eskalaz jabetzen den... Oso egoera desberdinak aurki ditzakegu lekukoaren artean: mapekiko edo argazkiekiko ezinikusia duena edo beste muturreko lekukoa, oso ondo moldatzen dena eta gustukoa duena gainera mapa edo argazki artean ibiltzea. Lehenengo kasuan, inkestatzailearen egin beharra izango da galderen bidez argazkian agertzen direnei buruz kontu eskatzea; bigarren kasuan, inkestatzaileak lana errazagoa izango du.

Inkestaren bigarren zatian ostera, *egiaztapen-inkestan*, ditugun materialak (inkesta orokorrean jasotako informazioa mapara edo ortofotorrira itzulita, minuta toponimikoa, zerrenda toponimikoa...) erakutsiko dizkiogu zenbait kontu argitzeko: zalantzazko kasuak, jaso barik gelditu direnak edo aurretik jasotakoarekin bat ez datozenak...

## **Non apuntatu informazioa?**

Inkestatzaile desberdinengandik jaso izan dugun esperientziaren arabera, badirudi erosoena maparen edo ortofotorriaren gainean errotulagailu berezi batez eta bertan idaztea dela. Oinarri kartografiko hauek ordena-zenbakiak erango dituzte; horrez gain, zalantzazko entitateei edo inguru zehatzei ere marka bereziak ezarri ahal zaizkie eta inkestatzaileak ahalik eta argien idatziko du ordena-zenbakia (aurretik ez badago), toponimoa eta haren kokapena eta hedapena zehaztuko ditu (ikus 1.2.5.2. atala). Dokumentu hau inkestatzailearentzako lehen zirriborroa izango da eta bertan ahalik eta informazio argiena jasoko du. Etxean, grabazioa

entzun ondoren, zuzenketa batzuk jasango ditu eta, beharbada, bigarren inkesta egin ondoren, zalantzak argitu ondoren, bigarren zuzenketa izango du.

Beste informazio osagarria (testuingurua, entitate geografikoaren deskribapena, etimologia, oharrak...) koaderno batean jasoko dugu<sup>102</sup>.

Informazio hau guztia amaieran fitxa batera pasatuko dugu (ikus II.3.4.4.).

### II.3.4. INKESTA

Inkesta toponimiko desberdinak planteatu daitezke abiapuntu, helburu, epe eta baliabide desberdinen arabera. Mota askotako inkestak daude: aldeztatik inoiz toponimia inkestarik egin ez bada edo egin dena oso kalitate eskasekoa bada, *inkesta orokorra* egingo dugu; herri batek aurretik jasotako informazio toponimikoa egiaztatu nahi bada, *egiaztapen-inkesta* egingo da<sup>103</sup>. Azken hau *osoa* izan daiteke, entitate geografiko guztiak egiaztatuko dituen, edo *partziala*, hau da, arrazoiren bategatik auzoen edo mendien edo erreken... izenen egiaztapena helburutzat daukana.

Egia da, eta halaxe entzun izan nion sarritan Alfontso Irigoyen zenari, *“toponimia bilketak ez direla inoiz amaitzen”* eta gainera, beste arlo batzuetan gertatzen den bezala, berriz ere begiratu gero hutsak beti agertuko dira. Baina beharrezkoa da beti hutsetik hastea? Nire ustez ez. EAEko eta baita ere Nafarroako toponimia datu-baseak abiapuntu sendoak izan daitezke. Horrek esan nahi du, salbuespenak alde batera utzita, gure kasuan egiaztapen-inkesta derrigorrezkoa izango dugula, dagoen ahozko bilketa hobetzeko eta zuzentzeko. Zer egingo genuke bestela inkesta orokor eta berri bat egin ondoren, jasotako datuak ETDkoekin bat ez badatoz? Geuk jasotakoa bakarrik emango genuke ontzat? Eta zer egingo genuke aurreko bilketetan jasotako toponimoekin, gaur egun bizi ez diren hainbat eta hainbat lekukorengandik jasotakoekin?

Eskuliburu honetan proposatzen dena inkesta bikoitza da: lehenengo inkesta orokorra eta bigarren urrats batean egiaztapen-inkesta (17. irudia).

#### II.3.4.1. Gomendio orokorrak

Elkarrizketarekin hasi aurretik, gomendio orokor batzuk izan behar ditugu kontuan. Aholku hauek bi multzotan sailkatu ditugu: zer komeni den egitea eta zer ez.

Lehenik eta behin, zer egin behar ez den zehaztuko dugu:

- Ez ditugu lekukoak erantzutera behartuko eta, batez ere, ez ditugu geuk entzun nahi duguna esatera behartuko. Ondo entzungo dugu diotena eta ez dugu elkarrizketa etengo; etenaldiak berriz ere elkarrizketa harira ekartzeko aprobetxatuko ditugu.
- Ez da komeni saio oso luzeak egitea. Hobe da beste egun batean berriro itzultzea.
- Ez da galdera tekniko edo abstrakturik egin behar.
- Ez da lekuko bakarria erabili behar.
- Ez da inkestatzailearen lana informazioa hautatzea baina bai ahalik eta informazio gehien eskuratzea, informazio hori beste momentu batean erabili ahal izan dadin.

Zer aholkatzen da:

- Jasotako informazioa berehala apuntatu behar da (grabaketak lan hori asko erraz dezakeen arren) eta ez dugu inoiz geure memoriaz fidatu behar.

<sup>102</sup> J. Terradok ere gauza bera aholkatzen du: *“En nuestra opinión es preferible la libreta a las fichas, pues éstas fácilmente cambian de orden y pueden perderse durante la excursión. La organización y distribución del espacio de la libreta depende de cada encuestador”* (1999: 35).”

<sup>103</sup> *“A esta etapa (encuesta) seguirá otra de documentación, de refrendo y confrontación con la tradición escrita que, a veces, idealmente al menos, requiere el emprender una segunda fase de encuestas, para verificar formas. Por ello, esta labor de documentación se suele hacer antes de empezar con las entrevistas.”* (Echevarría, 1991: 8)

- Jasotako informazioa hitzez hitz idatzi behar da, ezer gehitu ez kendu gabe (hitz egiteko modua edo esamoldeak...)
- Jasotako informazioari lekukoarekin gainbegiratu bat ematea komeni da.
- Ematen duen informazioari lekukoak ematen dion balioa edo garrantzia neurtu behar da. Zein neurritan erabiltzen den, gaur egun erabiltzen den, non erabiltzen den, guztiz sustraituta dagoen, berria den...
- Datuez gain, lekukoaren interpretazioa eskatzea komenigarria da: izenaren zergatia, aldaketen arrazoiak...
- Lekukoaren izen-abizenak, jaioterria, adina eta lanbidea jasoko dira; horrezaz gainera, inkestatzaile modura, gure balorazioa ere ezarri ahal diogu. Informazio hau guztia elkarrizketaren amaieran jasoko da.

#### II.3.4.2. Inkesta orokorra

Inkestatzaileak gai izan behar du lekukoari tokiaren irudia transmititzeko: *“El arte del encuestador consiste en hacer aparecer ante la mirada o la mente de su informante la imagen de un lugar”* (Terrado, 1999: 34). Jakina, horretarako inkestatzaileak alde zurretik ondo ezagutu behar du ingurua eta komunikatzaile ona izan behar du, era errazean eta argian eman behar ditu azalpenak.

J. Terradori jarraituz, inkesta mota nagusi bi aipatzen ditu: *geografikoa*, izenak batzen dira lekua aurrean ikusi edo imajinatu ahala eta *tematikoa*, alde zurretik prestatutako galdetegi batean oinarritutako datu-bilketa<sup>104</sup>. Gure ustez, proposatzen dugun *inkesta orokorrerako* inkesta geografikoa da aproposena.

#### **Prozedura**

Inkestatzaileak *inkestaren kontrola* eramaten saiatu behar du. Horretarako, inkestatzaileak lekukoa *gidatu* egin behar du galdera ordenatu, koherente eta elkarri lotuak eginez.

Nonbaitetik hasteko, beharbada erreferentzi puntuak ondo eta ziur finkatzetik hasiko gara: erreka bat, ermita bat, bide bat... Era horretara lekukoa eskalaren esanahiaz ere jabetuko da.

Jarraian, gauden tokitik has gaitezke eta alde zurretik finkatu dugun eremu jakin eta mugatu bateko toponimoak batu. Horretarako, oso baliagarriak izango dira hautatu ditugun erreferentzi puntuak. Ahal den neurrian, ez dugu eremu horretatik irtengo<sup>105</sup>.

Inkestatzaileak deskribatzen duena lekukoari ulertaraztea garrantzitsua bada, hori bezain garrantzitsua da lekukoak deskribatzen dituen tokiak edo ibilbideak ortofotorri edo orri gainean kokatzea; azken batean, informazio hori ez galtzea.

Momenturen batean lekukoa arinegi badoa, aurrera jarraitu aurretik, inkestatzaileak galdu egin dela jakinaraziko dio eta, une batez inkesta geldiarazi ondoren, inkestatzaileak ordura arte jasotako informazioa egiaztatzeko aprobeztatuko du; berriz ere erreferentzi puntuak abiapuntutzat erabiliz inkestorekin jarraituko du. Argi dagoena zera da: inkestatzaileak ingurua oso ondo ezagutu behar du eta gauza izan behar du ortofotorria edo orria ondo interpretatzeko<sup>106</sup>.

<sup>104</sup> Hiru eredu proposatzen ditu lurraldearen neurri edo erreliebearen arabera: “Sectorial Centrifugo”, “Circular” eta “De zonas predefinidas”. Liburuan irudi grafikoek bidez argi azaltzen ditu (1999: 38-39).


<sup>105</sup> J. Terradok etxeen izenetatik hastea aholkatzen du; horrek lekukoari konfiantza emango diola dio. A. Rosek ere prozedura hori gomendatu zuen.

<sup>106</sup> “oso ezberdinak baitira goitik beherako ikuspegia eta lurretiko eguneroko panoramika. Horretan ondo moldatzen bazara ez duzu arazo handirik izango toponimoak gutxi gorabehera ondo kokatzen. Ortofotoak oso onak dira sailak ikusteko, baina ez dira hain egokiak lurrazalaren gorabeheraz jabetzeko, panoramika horizontaletik gertatzen denaren kontrara” (Ros, 2001: 9).

Apurka-apurka gauden tokitik leku erreferentzialetara bitarteko tarteak betetzen joango gara; lehenengo eremua bete dugunean, lekukoarentzako ezaguna den eremua bete arte jarraituko dugu. Batzuetan, lekukoak ematen duen informazioa iturri idatzietan irakurritakoa edo iturri horietatik ikasitakoa dela jabetzen da inkestatzailea; horrelakoetan, iturria zein den zehazten ahaleginduko da eta oharretan azalduko du.

Prozedura bera jarraituko dugu bigarren lekukoarekin.

17. irudia: INKESTAREN EMAITZAK (37-30 ORRIAREN ZATIA)



3 DEIKER: 1986ko toponimia-lanari dagokion ordena-zenbakia

10 2001. urteko inkestan sortutako ordena-zenbaki berria

Iturria: Josu Larrañaga Arrieta inkestatzailea; 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako inkesta.



## **Tratamendua**

Batetik, landa-lanean jasotako informazioa ortofotorri edo orri gainean apuntatuta ekarriko dugu eta, bestetik, koadernoan jasoko genituen emandako azalpenak. Horrez gain, grabazioaren bidez transkripzio arazoak edo zalantza batzuk argitzeko modua ere izango dugu.

Inkesta amaitu ondoren, datuak garbira lehenbailehen pasatzea komeni da, lekuko guztien informazioa bateratu behar da ezer ahaztu aurretik. Gainera, falta diren eremuak beteko dira (mapa eta ordena-zenbakia<sup>107</sup>, kode geografikoa, transkripzio fonetikoa, balorazioa...).

### *Inkesta orokorra eta minuta toponimikoa parekatze-lana*

Dokumentu bi hauen emaitzak ez dira bat etorriko kasu guztietan eta desberdintasun horiek dira *egiaztapen-inkestan* argitu beharrekoak. Gainbegiratu bat eman ondoren, ortofotorrian aurrelanean markatuta dauden ordena-zenbaki guztiek izenik daukaten, izen bera daukaten edo lekuz aldatuta dauden aztertuko dugu.

Lau motatako zalantzak argitu beharko ditugu egiaztapen-inkestan eta horretarako galderak ondo prestatuta eraman beharko ditugu:

- a) ez dugu leku horretan toponimorik jaso: ziurtatu
- b) leku horretan beste toponimo bat jaso dugu: ziurtatu beste iturri batetik jasotakoa ez dela ezagutzen eta baloratu zein den sustraituena.
- c) toponimoa lekuz aldatuta ageri da edo beste hedapen bat dauka: ziurtatu
- d) kode desberdina ezarri diogu: zehaztu deskribapena eskatuz

### *Inkesta orokorra eta zerrenda toponimiko historikoak*

Inkesta orokorreko emaitzak iturri historikoetatik hustutako toponimiarekin ere erkatuko ditugu identifikatzen ez direnen zerrenda berezi bat prestatuz egiaztapen-inkestan erabiltzeko eta, ahal den neurrian, berreskuratzeko.

#### **II.3.4.3. Egiaztapen-inkesta**

Inkesta orokorreko emaitzak eta beste iturri dokumental eta kartografikoen (minuta toponimikoa) emaitzak parekatu ondoren, azaldu diren kontraesan, hutsune, zalantza edo zehaztasun hutsak argitzea da egiaztapen-inkestan helburua.

Bigarren zati honetan galderak zuzenak izan beharko lirateke<sup>108</sup>; aurrelanean gertaturiko materiala lekukoari erakustea ere ona izan daiteke, ditugun zalantzen berri emanez. Argi utzi behar diogu beti lekukoari mapak hutsez josita daudela eta, argitaratuta egon arren, ez dutela zertan ondo egon. Lekukoak bakarrik balora dezake mapa edo beste dokumentu baten idatzita dagoen toponimiaren fidagarritasuna.

Egiaztapen-inkestan, bereziki, emaitza hobeak lortzen dira lekukoak taldean elkartuta, lehian jartzen dira euren artean eta, egoera kontrolatuz gero, emaitzak onak izaten dira. Arrisku bat egon daiteke eta hau da: taldean lekuko batzuek informazioa gorde egiten dute, erabilera batzuk oso herrikoiak direlako eta batzuetan lotsatu ere egingo dira, inkestaren zati honetan batez ere.

---

<sup>107</sup> ETDan identifikatuta dauden mapa eta ordena-zenbakiak (puntu zenbakiak) gordeko dira nahiz eta beste toponimo batekin jasota egon eta leku berriei zenbaki berriak ezarriko zaizkie.

<sup>108</sup> "bi iturrietatik jasotako toponimoak parekatu ondoren dokumentazioan azaltzen zirenetariko ugari informatzaileek ezagutu ez edo aipatu ez zituztenaz ohartu ginenez, bigarren galdeketa bat egin genuen, oraingo honetan lehen saioan emankorren eta ziurren gertatutako informatzaileengana joaz soilik, beraiei zuzenean toponimo zehatz batzuren berri eskatu genielarik. Hori guztiarekin adierazi nahi dut, etekinak onak izatea nahi bada, informatzaileei galdera zehatzak egin behar zaizkiela halako entitateen izenez edo toponimo jakin batzuren kokapenez galdera eginaz..." (Usabiaga, 1993: 17)

## **Prozedura**

Inkesta orokorrean jasotako informazioa transkripzioaren ikuspuntutik zein kokapen eta hedapenaren aldetik egiaztatuko dugu.

Jarraian, prest ditugun zalantzazko kasuak argituko ditugu (bereziki *egiaztapen-fitxa puntualean* jasota ditugunak): transkripzio hutsak, toponimorik gabeko lekuak, jaso ez diren aldaerak, kokapen desberdinak, kode geografikoak... Galderak zuzenak izango dira: ezagutzen duzu izen hau? Zer da? Non dago? Aurretik eman didazun besteren baten ordezkoa da? etab.

Zalantzak argitzeaz gainera, inkestatzaileak inguru horretaz duen bestelako informazioa (beste iturri batzuetatik jasotakoa eta lekukoak ordura arte eman ez diona) aurkeztuko dio lekukoari egiaztatzeko.

Horretarako, *inkesta tematikoa* erabiliko du, prestatutako galdetegia, atal nagusitan banatuta (orografia, hidrografia, biziguneak...), "gida" modura erabiliz<sup>109</sup>. Inkesta tematikoa oso zabaldua dago ikertzaileen artean (Coromines, Alvar, Buesa, Terrado, Jimeno Jurío, Echevarría..). Inkesta honen alde onak aipatzen dituzte: emaitza osatuak lortzen direla arlo semantiko desberdinetan, lexiko geografikoaren bilketa trinkoa ere jaso daitekeela bide batez...

## **Tratamendua**

Egiaztapen-inkestan inkestatzaileak leku bati buruzko aldaera ezberdinak jasotzen dituenean, arreta handiz baloratu behar du zein den denetatik sustraituena, berriena, ezagunena<sup>110</sup>... Informazio honek hautaketa egiteko garaian lagunduko du.

Ahozko toponimoen tratamenduari hasi aurretik, oinarrizko zerbait argitu behar dugu: ondo bereiziko da egiaztapen-inkestaren bidez jasotako toponimo kartografiko eta dokumentatuen balorazioa eta ahozko toponimiaren inguruko beste informazio guztia. Orain azken honetaz arituko gara.

Inkestak bukatu ondoren, materialak ordenatu, osatu eta "garbira pasatu" behar dira.

Ahoz jaso ditugun toponimoen kokapena eta hedapena mapa batera itzuliko dugu ordena-zenbakia ezarriz. Horretarako, leku zaharretan (ETDan finkatuta daudenak) ordena-zenbaki zaharrak errespetatuko ditugu eta leku berrietan ordena-zenbaki berriak gehituko ditugu. Zirkulu edo gezi bidez zehaztuko dugu hedapena eta zehatz-mehatz gordeko dugu lekukoarengandik jasotako toponimoa.

Mapetatik kanpo, lekuko desberdinengandik jasotako informazioa ahozko toponimoen fitxara pasatuko dugu eta toponimo bakoitzarentzako fitxa bat beteko dugu; hau bat etorriko da aplikazio informatikoko pantailarekin. Hala ere, puntu kartografiko bati dagozkion toponimo guztiak orri-zenbakiaren eta ordena-zenbakiaren bidez lotuta etorriko dira.

### **II.3.4.4. Ahozko toponimoen fitxa**

Ahozko toponimoei buruzko fitxa osatzen duten atalak honako hauek dira (18. irudia):

<sup>109</sup> "Además de esas listas confeccionadas previamente, y de un mapa, llevo un cuestionario <<ad usum privatum>>, del tipo preparado para Aragón por Buesa..." (Jimeno Jurío, 1991: 106).

"El cuestionario es una guía que ayuda a no olvidar nada esencial en el transcurso de la entrevista... y aconsejamos que sea eso: un guía, un recordatorio" (Terrado, 1999: 35).

<sup>110</sup> "Hay que seleccionar las variantes atribuyendo a los informantes una calificación: de manera que si disponemos de dos nombres para un mismo lugar, que además no están documentados en ningún sitio, con lo que la tradición no juega ningún papel, se tratará entonces de una palabra contra la otra, como en los juicios y ganará la palabra del informante más prestigioso" (Echevarría, 1991: 12).

ICCaK ere aldaera desberdinen artean bakoitzaren balioa landa-lanean ebaluatu behar dela dio.

*Orri-zenbakia:* 1:5.000 eskalako orriarena; 5 digitu erabili ohi dira (ikus I.2.4.1.).

*Ordena* (ordena-zenbakia): 1:5.000 eskalako orri baten barruan identifikatuta dagoen lekua edo lekuaren zatia. 001etik hasi ohi dira eta zenbaki bakoitzak 3 digitu izango ditu. Leku berak (ad. erreka bat) orri baten barruan ordena-zenbaki bakarra eramango du; ziur asko, orria aldatzerakoan beste ordena-zenbaki bat eramango du.

*Azpiordena:* puntu kartografiko batek toponimo bat baino gehiago izan dezake; puntu batek dituen aldaerak azpiorden zenbakien bidez adierazten dira.

*Jasotze data:* inkesta egin den eguna, hilabetea eta urtea. Egundez desberdinetan egin bada, bat hautatu.

*Toponimoa* (ahozko toponimoa): ahozko inkestaren bidez jasotako toponimoa. Lekukoaren hizkuntza (euskara edo gaztelania) erabiliko dugu dagokion ortografiarekin, azentuazioa seinalatuz eta letra larriak erabiliz. Toponimoaren elementuak ahoskeraren arabera idatziko dira elkartuta edo bereiz eta, gaztelaniazkoen kasuan, datuak sartzeko ordenari buruzko oharrak jarraituz (ikus II.1. atala).

Ad.: *SABALDERREKETA* (Antzuola), *LOIZAALKO GAÑA* (Azpeitia), *ITTURGOÑ* (Beasain), *TELLEI* (Hernani), *SELÁRRITTE* (Azkoitia), *IYUTAA GOIKUA* (Albistur), *MADURA, LA* (Alegría-Dulantzi), *LAGARTO, EL HOYO DEL* (Ribera Alta), *PEÑA LARGA, LA* (Carranza), *PICOS, LA LLANA LOS* (Carranza).

*Koadrantea:* 1:5.000 eskalako mapa banatzen den zati bakoitza, A, B, D eta E. Toponimo bat koadrante bakar batean edo gehiagotan egon daiteke.

A	B
D	E

*Balidazioa:* lehenik ahoz jasota zegoen toponimo baten (ad. 1986ko Bizkaiko toponimia-lana) eta inkesta berri baten bidez jasotzen denaren arteko parekatze-lana. Parekatze-lan hau egiaztapen-inkestan egiten da.

Egiaztapen-inkesta egitean, inkestatzaileak lehenik jasota zeuden toponimoak 21 irizpideren arabera balidatuko ditu; horrez gain, toponimo berriek, kode berezi bat izango dute (XX kodea) (I. taula):

## I. TAULA: BALIDAZIO-KODEAK<sup>111</sup>

BALIDAZIO-KODEA	DESKRIBAPENA
<b>A 0</b>	Bat dator inkesta berriaren emaitzekin.
<b>B 0</b>	Lekua izenik gabe gelditu da.
<b>B 1</b>	Lekua izenik gabe gelditu da normalizazio geografikoarengatik (lekuen berrantolaketa-lanak).
<b>C 0</b>	Toponimo berbera lekuz aldatuta.
<b>D 0</b>	Arautu gabeko generikoa: <i>Ayuntamientue&lt;&gt;Udaletxea, Depositua&lt;&gt;Urbiltegia, Kaminue &lt;&gt; Errepidea</i>
<b>E 0</b>	Izen bi ageri dira: <i>Sabaleta barrena / Sabaleta aspiye, Mallukigane / Malluki mendiye.</i>
<b>E 1</b>	Lekuz aldatuta eta izen bi ageri dira: <i>Sabaleta barrena / Sabaleta aspiye, Mallukigane / Malluki mendiye.</i>
<b>F 0</b>	Osatu gabeko toponimoa (generikoa...): <i>Errementarie / Errementariyen etxie.</i>
<b>F 1</b>	Lekuz aldatuta eta osatu gabeko toponimoa (generikoa...): <i>Errementarie / Errementariyen etxie.</i>
<b>G 0</b>	Euskaraz agertzen da eta orain gaztelaniaz edo alderantziz: <i>Alto Kanpazar / Kanpazargana.</i>
<b>G 1</b>	Lekuz aldatuta eta euskaraz agertzen da eta orain gaztelaniaz edo alderantziz: <i>Alto Kanpazar / Kanpazargana.</i>
<b>H 0</b>	Generikoaren eta espezifikoaren artean kasu-marka ageri da: <i>Abitxa errekie / Abitxako errekie.</i>
<b>H 1</b>	Lekuz aldatuta eta generikoaren eta espezifikoaren artean kasu-marka ageri da: <i>Galbuso baserria / Galbusoko baserria.</i>
<b>I 0</b>	Toponimoak atzizkia(k) d(it)uenean: singularra/plurala, etab.: <i>Atxaga/Atxagak, Landa / Landeta, Klaudio / Klaudioni</i>
<b>I 1</b>	Lekuz aldatuta eta singular eta pluraleko atzizkiekin: <i>Atxaga/Atxagak, Landa / Landeta.</i>
<b>J 0</b>	Artikulua du edo ez du: <i>Etxeberri / Etxeberria.</i>
<b>J 1</b>	Lekuz aldatuta eta artikulua du edo ez du: <i>Etxeberri / Etxeberria.</i>
<b>K 0</b>	Silaba edo soinu kopuru desberdina: <i>Mutxisburu / Muixisburu</i>
<b>K 1</b>	Lekuz aldatuta eta silaba edo soinu kopurua desberdina
<b>L 0</b>	Sailkatu gabeko arazoa
<b>M 0</b>	Toki berarentzat orain arte jaso ez den izen desberdin bat edo batzuk ageri dira
<b>XX</b>	Orain arte izendatu ez den toki bateko toponimoa

*Kode geografikoa:* entitate geografiko zehatza adierazten digun 5 digitutako zenbakia. Toponimo bakoitzak kode geografiko bakarra izan behar du.

*Lekukoa:* lekukoaren kodea edo izen-deiturak.

*Inkestagilea:* inkestagilearen kodea edo izen-deiturak.

*Udalerrria:* toponimoa kokatuta dagoen udalerrria. Toponimo bat udalerrri baten baino gehiagoren lurraldean zehar hedatzen bada, udalerrri bakoitzeko fitxa bat egingo da.

<sup>111</sup> Kode hauek M. Gorrotxategik idatzi ditu, DEIKERen egiten ari garen Bizkaiko Toponimia-lanerako; ikerketa honetan hizkuntza normatibizazioaren arduraduna da.

*Testuingurua:* lekukoak toponimoa aipatu duenean esan duen esaldi osoa. Honen bidez, euskal jatorriko toponimo batzuen amaierako "a" nola erabiltzen den froga daiteke. Osagai generikoa esaldi baten barruan nola erabiltzen den ere hemen sar dezakegu.

*Esanahia:* sarritan lekukoak emango digu toponimoaren "herri-etimologia"ren bat edo/eta toponimoari lotutako informazio garrantzitsuren bat, beharbada, arautze-lanetan lagungarri gerta dakigukeena. Inkestatzaileak tokia "in situ" ikusi badu, deskribapena ere jaso dezake...

*Ad.: Tornalcarro (Lanestosa) "El rozo que se sacaba del monte en carros, daba la vuelta allí"*

*Oharrak:* toponimoaren inguruan inkestatzaileak izan dituen zalantzak (transkripzioa, kodifikazio geografikoa...).

## 18. irudia: AHOZKO TOPONIMOAREN FITXA

Microsoft Access - [Ahozko Toponimoaren Fitxa]

Archivo Edición Ver Insertar Formato Registros Herramientas Ventana ?

Orria: 037-30 Ordena: 001 Azpiordena: 5 Jasotze data: 2001/08/01

Toponimoa: LEORRARRI Koadrantea: B

Erakundea: 0002 DEIKER Balorazioa: 2

Kod. Geo.: 10603 LURMUTUR

Lekukoa: 7245 ETXEBARRIA BILBAO, José

Inkestagilea: A028 LARRAÑAGA ARRIETA, JOSU

Udalerria: 48043 Górliz

Testuingurua: leorrári (askotan), leorrárrè

Esanahia: Lekukoaren arabera: "Leorra ami". Harri lehorra, harri soltea delako. Bere hitzetan "atxa es dau firme solte dau".

Oharrak: Bai lurmuturrari bai eta mendiarri ere. Lekukoak, berak "Leorrári", "Kábo Billáno" baino sarriago darabilela diost: "Kábo Billánoi Leorrári geitzen dotzegu guk".

Inicio Explorando - Copia2002-0... Microsoft Access - [A... Microsoft Word - Documen... 11:52

Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

#### II.3.4.5. Inkesta orokorraren eta egiaztapen-inkestaren grabaketa datu-basean

Inkesten emaitzak pantaila desberdinetan grabatuko dira. *Inkesta orokorrean* jasotakoa ahozko toponimo berrien informazioa baldin bada, ahozko toponimoen pantailan sartuko dira datuak.

Aldiz, *Egiaztapen-inkestaren bidez* toponimo kartografiko edo dokumentatuen baloraziorik jaso badugu, "oharrak" izeneko eremuan sartuko dugu balorazioa, toponimo bakoitzari dagokion pantailan. Aurreko bilketa batean jasotako ahozko toponimoen "balidazio" kanpoa ere dagokion pantailan beteko dugu.

*Inkesta orokorrean* jasotako ahozko toponimoen grabaketa osoa egingo da, arreta berezia eskainiz toponimoa sartzeko ordenari, horrek baldintzatuko baititu gero aterako diren zerrenda toponimikoak (19. irudia).

Ahozko toponimo batek leku berri bat izendatzen badu, aplikazio informatikoak "automatikoki"<sup>112</sup> ezartzen dio leku-zenbaki berria. Ostera, leku zahar baten izendapena bada, aplikazio informatikoak orri-zenbakiaren eta ordena-zenbakiaren bidez ezartzen dio dagokion leku-zenbaki zaharra

Ahozko toponimen grabaketan instrukzio orokor batzuk jarrai daitezke:

- Toponimoak grabatu aurretik inkestatzaileei eta lekukoei "alta" eman behar zaie eta "pertsone mota" izeneko pantailan erlazioa egin lanbide-mota zehazteko (inkestatzailea, lekukoa...) (ikus II.2.3. atala).
- Toponimo berdinak izan arren lekuko desberdinak ematen badizkigute, birritan grabatuko dira.
- Leku batek aldaerak baditu, bakoitza pantaila batean grabatuko da.
- Leku bakoitzak kode geografiko bakarra izan behar du; tokia toponimo desberdinekin ezagutzen bada, beti kode geografiko bera emango zaio.

---

<sup>112</sup> "Lekuak kalkulatu ahozkoetatik" izeneko ikonoa sakatu.

## 19. irudia: INKESTA OROKORRAREN ZERRENDA

Orden	Azpi	Toponimoa	Bal.	K.G.	Koad.	Esanahia	Testuinguru	Oharra
<b>Mapa 037-23</b>								
002	10	BILLANO	2	10602			billáno, billánorà	
	11	BILLAU	2	10602			billáurè	
	12	BILLAU	2	10602			nora sos? billáure no, billáun	
	13	BILLANO, ISLA DE	2	10602			ísula de billáno (erdaraz aritzean)	
	7	ISLA BILLANO	2	10602			ísula billáno	
	8	ISLA BILLANO	2	10602			ísula billáno	
	9	ISLA BILLANO	2	10602			ísula billánorà	
<b>Mapa 037-30</b>								
001	4	KABO BILLANO	2	10603	B		kábo billáno, kábo billánotik	Leorrarri izena baino berriagoa dela dio. Biak darabiltza.
	5	LEORRARRI	2	10603	B	Lekukoaren arabera: "Leorra arri". Harri lehorra, harri soltea delako Bere hitzetan "atxa es dau firm e solte dau".	leorrárrí (askotan), leorrárrirè	Bai lurmuturrari bai eta mendiarri ere. Lekukoak, berak "Leorrárrí", "Kábo Billáno" baino samiago darabilela dio: "Kábo Billánorri Leorrárrí geitzen dotzegu guk".
	6	LEORRARRI	2	10603	B		leorrárrí	

Iturria: 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako prestatuturiko toponimia.



### III. DATUEN TRATAMENDUA

Ahozko iturrien eta iturri idatzien hustuketa egindakoan, erantzun diegu planteatu genituen lehen galderi: *nola deitzen da leku hau, nola deitzen zen, non dago eta zer da...* Orain hurrengo urratsa eman behar dugu galdera berri batzuei erantzuna emanez: *orri honetan zein leku hautatuko dugu, leku honetarako zein toponimo hautatuko dugu, nola idatzi behar dugu?*

Toponimoak definizioz bi osagai ditu: osagai berezia edo espezifikoa, entitate geografikoari izen propioa ematen diona eta, beraz, mota bereko entitateen artetik bereizten duena (Aizkorri, Urbasa, Elgea...) eta, gehienetan, osagai generikoa, entitate geografikoaren izaera modu orokorrean adierazten duena (mendia, erreka, auzoa, plaza...). Bakoitzak tratamendu egokia eta apartekoa behar du: *tratamendu geografikoan* lekuen sorrera, berrantolaketa eta hautaketa, toponimoaren kokapen zehatza, entitate geografikoaren kodifikazioa, koordenatu geografikoak... finkatzen dira. *Tratamendu linguistikoan* aldaera desberdinen azterketa sinkronikoa (gehienetan, ahozko toponimoetan eta toponimo kartografikoetan oinarriturik) eta diakronikoa (ahozko toponimoetan eta toponimo dokumentatuetan oinarriturik), araututako irizpideen aplikazioa eta bertsioen proposamena egiten da. Tratamendu mota bi hauek beharrezkoak dira toponimoen azterketa osoa egiteko eta horretarako, lan hauek diziplina bakoitzeko adituek (geografoek eta filologoek batez ere) egin behar lituzketela deritzogu.

#### III.1. OINARRIZKO GAI BATZUK

Tratamendu bakoitza azaldu aurretik, izen geografikoen arautzeari begira Euskal Autonomia Erkidegoko mailan aplikatu diren arau edo irizpide batzuen berri emango dugu. Ikertzaileek eta lantaldeek, askotan, ez dute zertan irizpiderik asmatu, finkatuta dagoena eta erabiltzen dena ezagutu behar dute. Beharbada, irizpide horietako batzuekin ikertzailea ez da bat etorriko eta ikerketaren helburuak irizpideok aldatzeko aukera ematen badio, beste bide bat har dezake; hala ere, erabaki hori irizpideak zeintzuk diren ezagutu ondoren hartu behar luke beti.

### III.1.1. HAUTAKETA-LANA ALDAERA DESBERDINEN ARTEAN

ETDan NBEk onartutako printzipioa “leku bakoitzak izen bakarra izan behar du” gordeko da<sup>113</sup>. Ez da gomendagarria leku batek izen bat baino gehiago izatea honek nahasketa baino ez dakarrelako. Dena den, salbuespen bi daude: batetik, tradizio bikoitza duten lekuak, Ad.: Donostia/San Sebastián; bestetik, kasuren batean toponimo historikoren bat, gaur egun erabiltzen ez dena, berreskuratu nahi bada, aldi batean behintzat, “zaharra” eta “berria” elkarrekin proposatzea komeni da. Ad.: Elgoibarren Idotorbe (San Pedro).

Printzipio hau, leku bakoitzak izen bakarra izatearena, betetzeko irizpide ezberdinak har daitezke kontuan:

*Erabilera irizpidea:* inkestaren bidez jasotako informazioaren arabera ebaluatu behar da zein den leku baten izenik erabiliena; horretarako, lekukoaren fidagarritasun maila eta izenaren zabalkundea hartuko dira kontuan. Izen bat baino gehiago badira, beste printzipio batzuk hartuko dira aintzakotzat hautaketa egiteko.

Gaurko kartografiarako toponimia prestatzerakoan ere ahozko iturriek hainako pisua edo are pisu handiagoa izango dute idatzizko dokumentazio-iturriek eta proposatutako toponimoak “normatibizazio” lanen ondoren finkatuko dira, ezin baitira proposatu ahoz jaso diren bezalaxe. Halaxe azaltzen dute M. Gorrotxategik eta P. Salaberrik:

*“Norbaitek galdegin lezake, eta zertarako arautu? Ez al da aski toponimoak dauden-daudenean bildu eta ematea? Honen erantzuna agerikoa da: zoritxarrez ez da nahikoa, gure toki izenak gero ikusiko ditugun hainbat arrazoiengatik itxuraldatu egin direlako...” (2000: 274).*

Mapa horretan agertuko diren toponimoen helburua edonor kokatzea, orientatzea izan beharko litzateke. Hala ere, normatibizazio-prozesuaren ondorioz finkatuko den toponimoa gaur egun erabiltzaileen artean ezezagun samarra bada, lagungarri gerta daiteke izen ezagunagoa ere epe baterako ematea, tokia identifikatzen lagunduko duena eta finkatu den toponimoaren ondoan parentesi artean jarriko dena.

Ad.: *Elorregi auzoa (San Prudentzio)*  
*Idotorbe auzoa (San Pedro)*

*Dokumentazio historikoaren irizpidea:* ahoz jasotako toponimo bat dokumentazio historiko fidagarrian beste aldaera batekin azaltzen bada, aldaera dokumentatua berreskuratzeko aukera izan daiteke.

Ikerketaren helburua leku bateko toponimia historikoa berreskuratzea bada, erabilera printzipioak ez du horrenbesteko pisurik izango. Aspaldiko toponimo hori, beharbada gutxi gorabehera kokatuta dagoena, berreskuratzea eta mapa batean txertatzea izan daiteke helburu nagusia, gizarteak apurka-apurka beregana dezan. Dena den, aldaketak bultzatu behar badira ere, kontu handiz proposatu behar dira eta, ahal den neurrian, gaurko toponimoa “kolpean” ordezkatu aurretik, agian, gaurko toponimoaren ondoan jarri beharko litzateke berpiztu nahi den toponimo dokumentatua.

Gaiak ukitzen dituen herrialdeek duten *borondateari errespetua*: gai guztiz delikatua da eta komenigarriena, beharbada, aholkua ematea izan daiteke baina inoiz ez gogoz kontra behartzea, bide honek guztiz kontrako eragina ekar dezakeelako.

---

<sup>113</sup> Gomendio honek azken proposamena bultzatzeko balio du; jakina, ahozko toponimoen aldaerak, toponimo kartografikoak... datu-basean sartuta egongo dira baina kaleratuko dena bakarra izatea gomendatzen da.

*Beste irizpide batzuk*<sup>114</sup>: badira gomendatzen ez diren hautaketa batzuk, adibidez, bizirik dauden pertsonen izenak edo hil berriak direnenak (urtebeteko muga) edo istiluak sortuko dituzten izenak<sup>115</sup> ...

### III.1.2. HIZKUNTZA OFIZIAL BI, TOPONIMO PROPOSAMEN BI

ETDan osagai berezia itzuli barik gorde arren, toponimoak proposatzerako orduan bertsio bikoitza, hizkuntza ofizialen arabera, bultzatu da<sup>116</sup>. Honek, osagai berezia berdina izanik, hizkuntza bietarako osagai generikoa, kasu batean, gaztelaniaz (gaztelaniazko bertsioa) eta, bestean, euskaraz (euskarazko bertsioan) proposatu direla esan nahi du<sup>117</sup>.

Ad.: *Monte Cabrera/Cabrera mendia; Sakonaundi/Barranco Sakonaundi*

Honek, tratamenduari begira, osagai generikoa itzultzeraz garmatza edo dagokion kode geografikoaren termino normalizatua proposatzeraz.

## III.2. TRATAMENDU GEOGRAFIKOA

Toponimoak kartografian txertatu aurretik lan zehatz batzuk burutu behar dira: leku berriak sortu eta puntu kartografikoekin erlazioa egin, lekuen berrantolaketa egin, puntu kartografikoak hautatu eskalaren arabera, kodifikazio geografikoaren aplikazio zuzena egin, mapan informazio osagarria sartu...

### III.2.1. LEKU-ZENBAKIAK ETA PUNTU KARTOGRAFIKOAK

Tratamendu geografikoaren barruan lanik garrantzitsuenetarikoa hauxe da: lekua kokatzea, identifikatzea eta batez ere artifizialki "zaituta" agertzen den entitate geografikoari (mapa desberdinetan, udalerrri desberdinetan...) unitatea ematea, dago(z)kion puntu kartografiko(e)kin erlazionatuz. Lekuen eta puntu kartografikoen tratamenduaz hitz egiterakoan, bi gai nagusi aztertuko ditugu: lekuen eta puntu kartografikoen ezaugarri nagusiak (20. irudia) eta leku berri bat sortzeko jarraitu behar den prozedura.

Lekuak datu-basean ezaugarri batzuk ditu:

- ETDan zenbaki baten bidez identifikatuta dago (7251) eta ezin da zenbakia errepikatu.
- *Leku* batek *puntu* bakarra edo bat baino gehiago izan ditzake kartografian  
Ad.: 037-32 orriko, 008. ordena  
037-33 orriko, 037. ordena

Puntu kartografikoek dituzten ezaugarriak:

- *Puntu kartografikoa* 1:5.000 eskalako orri-zenbakiak eta ordena-zenbakiak osatzen dute.
- Orri baten barruan ezin dira ordena-zenbakiak errepikatu. Puntu bat udalerrri bi edo gehiagoren artean banatuta badago, errepikatu egin beharko dira puntuen erregistroak (orri-zenbakia eta ordena-zenbakia) udalerrri kodea aldatuz.  
Ad.: 033-33 orriko, 037. ordena, 48043 udalerrikoa;  
037-33 orriko, 037. ordena, 48047 udalerrikoa
- Leku bat orri batetik beste batera zabaltzen/luzatzen bada, lekuak orri bakoitzean puntu desberdin bat izango du, dagokion ordena-zenbakiarekin eta orri-zenbakiarekin.
- ETDari dagokion kartografian leku batek duen ordena-zenbakia datu-bilketa berri batean errespetatu egingo dugu eta dagozkion toponimo berriak erantsiko dizkiogu.

<sup>114</sup> Halaxe gomendatzen dute Québec-eko Toponimia Batzordean (1987)


<sup>115</sup> Kasu haueetan udal agintariak erabakitzen dituztenak onartuko dira.

<sup>116</sup> Nafarroan osteraz bertsio bakarraren alde egin da. Ikus *Nafarroa: Toponimia eta mapagintza* (1991).

<sup>117</sup> Toponimo batzuek ez dute onartzen bigarren bertsiorik oso itxuragabetuta gelditzen baitira. Ad.: *Fuente del Cura, Mariñelaren borda*...

- Azpiorden zenbakiaren bidez, puntuaren izenak dituen aldaera kopurua azaltzen du.

## 20. irudia: LEKU-ZENBAKIA ETA PUNTU KARTOGRAFIKOA




Iturria: Neuk sortutakoa.

Lekuen tratamendua egiterakoan, batzuetan leku berriak sortu behar dira, beste batzuetan lekuak "gaurkotu" egin behar dira (puntu kartografiko berriak erantsiz edo aldatuz) eta beste batzuetan, lekuak berrantolatu egin behar dira (ikus III.2.2. atala).

*Leku-zenbaki berrien sorrerarako* prozedura bi daude:


- Inkestaren bidez leku berrientzako toponimo berriak jaso ditzakegu; leku-zenbakiak "automatikoki" sortzen ditu aplikazio informatikoak "lekuak sortu" ikonoa sakatuz.
- Toponimo kartografiko edo/eta dokumentatu batek izenik gabeko entitate geografiko bat izendatzen badu eta minuta toponimikoan zehatz koka badaiteke, leku berri bat sortzen da. Horretarako prozedura hau jarraituko da: lehenengo, aplikazio informatikoari lekua gehitzeko eskatuko diogu eta jarraian, eskuz, leku horri dago(z)kion puntu bakar edo anitzak grabatuko d(it)ugu; amaitzeko, leku berri hori toponimo kartografikoekin edo/eta toponimo dokumentatuekin erlazionatuko dugu (21. iruditik 24. irudira).

## 21. irudia: LEKUAK ETA ERLAZIOEN PROZESUA: LEKU BERRI BATEN SORRERA




Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

## 22. irudia: LEKUAK ETA ERLAZIOEN PROZESUA: LEKUEN ETA PUNTU KARTOGRAFIKOEK ARTEKO ERLAZIOA



Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.


## 23. irudia: LEKUAK ETA ERLAZIOEN PROZESUA: TOPONIMO KARTOGRAFIKOEK ZERRENDATIK HAUTAKETA-LANA



Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.



## 24. irudia: LEKUAk ETA ERLAZIOEN PROZESUA: LEKUAREN ETA TOPONIMO KARTOGRAFIKOAREN ARTEKO ERLAZIOA



Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

### III.2.2. LEKUEN BERRANTOLAKETA-LANAK

Lehenago azaldu dugun bezala, entitate geografiko batzuk udalerrri edo/eta orri deberdinetatik zehar zabaltzen dira. Horregatik, gerta daiteke<sup>118</sup> leku desberdin bi sortzea dagozkien puntuekin eta izatez, errealitatean, leku bakar bat izatea. Berrantolaketa-lanetan entitate geografiko bakoitza leku bakar batekin erlazionatuko da eta, era horretara, aurretik egindako bikoizketak zuzenduko dira. Leku bakar honek bikoizketek zituzten puntu guztiak bilduko ditu (25. irudia).

Berrantolaketa-lan hauek tratamendu linguistikoaren barruan eragin handia izango dute: informazio guztia fitxa bakar batera itzultzeak dakarrena.

#### 25. irudia: LEKUEN BERRANTOLAKETA-LANAK

The screenshot shows the Microsoft Access application window titled 'Lekuen Berrantolaketa'. The interface is split into two panes. The left pane, 'LEHEN LEKUA', has input fields for 'Lekua' (44501), 'Orria' (039-57), and 'Ordena' (330). Below it is a table with one record: 'A | 039-57 | 330 | 1 | MANTXUANGO ERR | 48063'. The right pane, 'BIGARREN LEKUA', has input fields for 'Lekua' (9286), 'Orria' (039-58), and 'Ordena' (001). Below it is a table with nine records: 'D | 0001 | 0544 | 1 | BARURDO | 48063', 'A | 039-58 | 001 | 1 | BOURDUKO ERREK | 48063', 'A | 039-58 | 001 | 2 | BOURDUKO ERREK | 48018', 'A | 039-58 | 001 | 3 | PORTUKO ERREKA | 48018', 'A | 039-58 | 001 | 5 | PORTUKO ERREKIE | 48063', 'A | 039-58 | 001 | 4 | MANTXUANGO ERR | 48063', 'A | 039-58 | 001 | 6 | PORTUKO ERREKIE | 48063', 'A | 039-58 | 001 | 7 | PORTUKO ERREKIE | 48063', and 'A | 039-58 | 001 | 8 | PORTUKO ERREKIA | 48063'. A green checkmark icon and the text 'Berrantolatu' are visible at the bottom of the interface.

Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

<sup>118</sup> Egoera hau batez ere makroikerketetan gertatzen da, inkestazaile ugari ari direnean eta bakoitzak behin-behineko lekuak izendatzen dituenean.

### III.2.3. PUNTU KARTOGRAFIKOEN HAUTAKETA, LANAREN HELBURUAREN ARABERA<sup>119</sup>

Inkesta toponimikoaren bidez identifikatutako leku guztiak askotan ez dira kaleratuko. Leku bat puntu bakar batez edo puntu desberdinez osatuta egon daiteke eta, horregatik, mapan agertuko diren puntuen hautaketa egiten da kaleratu aurretik. Ostera, iturri kartografikoetatik identifikatutako puntu batzuk (ad. *Bizkaiko Golkoa*) hautatuak izan daitezke. Hautaketa hau gehienbat eskalak baldintzatzen du: zenbat eta eskala handiagoa izan toponimo gehiago sartzen da eta alderantziz, zenbat eta eskala txikiagoa izan toponimo gutxiago sartuko genuke, beti maparen ulergarritasunaren muga kontuan izanik<sup>120</sup>.

Zaila da dentsitate toponimiko egokia gomendatzea eskalaren arabera<sup>121</sup>: mendialdean eta lautadan dentsitate desberdinak jasotzen dira; lehenengoan bigarrenean baino handiagoa da. Edozein eskalatako hautaketarako lekuen hierarkia maila gorde beharko litzateke: lehenengo nagusiak, gero ertainak eta amaitzeko txikiak<sup>122</sup>.

Puntuak hautatzean, lana osatzen duten mapa desberdinen homogeneitatea ere kontuan hartzeko irizpidea da.

Hautatuak izan ez diren lekuen izenak datu-basean gordeta geldituko dira beste eskala baterako, behar denerako, beste azterketa mota baterako... ez dira, bada, momentuz, mapen bidez kaleratuko.

### III.2.4. KODIFIKAZIO GEOGRAFIKOAREN APLIKAZIO ZUZENA<sup>123</sup>

Inkestatzailearen eta lekukoaren pertzepzioa entitate geografiko berdinen aurrean desberdina izango da inguratzen duen lurraldearen arabera.

Ad. lurralde lau baten mendi txiki bat *mendi* bezala kodifikatuta etor daiteke beharbada lurralde menditsu baten *muinotzat* hartuko genukeena.

Beste batzuetan, entitate berak, alde batetik edo bestetik ikusita, inpresio zeharo desberdina eskaintzen digu.

Ad.: Otxandiotik Urkiolara goazela ez dugu ikusten Urkiola mendatea denik; Mañaritik igotzerakoan, ostera, ez genuke zalantzarik izango.

Ikerketa batean inkestatzaile askok parte hartzen duenean eta batez ere lurraldea oso desberdina bada, kodifikazio geografikoaren aplikazioa berrikusi eta berdindu egin beharko da. Lan honetan, entitate geografiko berberak izendatzeko erabiltzen den lexiko geografiko aberatsak ez digu askotan laguntza handirik eskainiko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak argitaratutako glosarioa lagungarria izan daiteke.

Ad.: *Gaiña*, *gana*, *gane*... moduko osagai generikoek batzuetan, terminologiaren ikuspuntutik, *mendia*, *tontorra*, *muinoa*, *lepoa*... izendatzen dituzte.

### III.2.5. TOPONIMOAREN ORIENTAZIOA ETA HEDAPENA ZEHAZTU

Lanaren helburuetariko bat honako hau izango da: toponimoa bere tokian kokatzea, hedapena ondo mugatzea, izena ondo orientatzea eta, hau guztia beste informaziorik estali gabe egitea. Aldez aurretik, eskalaren arabera kode geografiko bakoitzari dagokion letra mota ondo hautatzen saiatuko gara.

<sup>119</sup> Entitate geografiko batek dituen aldaera desberdinen artean egin behar den hautaketa *tratamendu linguistikoa*n azalduko da.

<sup>120</sup> "Toponimorik ez duen mapa "mutua" izango da, baina toponimoz josita dagoena nahaspilatsua eta irakurgaitza izango da" (Deustuko Unibertsitatea, 1991: 151).

<sup>121</sup> Nafarroako toponimia-lanean 1:5.000 eskalako orri bakoitzerako 100-125 toponimo gomendatzen dira.

<sup>122</sup> Toponimia kartografian txertatzeko metodologiaz ikus "Toponimia eta kartografia" atala Deustuko Unibertsitateak burututako Bizkaiko toponimia-lanean (1988) ([www/euskadi.net/euskara](http://www/euskadi.net/euskara)).

<sup>123</sup> Ikertzailea bat bakarra denean, lan hau ez da beharrezkoa izango, inkestaren informazioa fitxetara pasatzerakoan, egina izango duelako.

Normalean kontu hauez ez gara jabetzen toponimo guztiak mapa gainean gurutzatuta, zuzenegi, handiegi edo txikiegi idatzita ikusi arte. Horregatik, komenigarria da alde zuzenetik kartografoekin edo argitaletxeko teknikariarekin hitz egitea. Amaitzeko, beste baten esku utzi behar bada azken pausu hau, eta halaxe izango da gehienetan, ahalegin guztiak egin behar dira toponimoen artxiboa euskarri informatikoan emateko, ahalik eta jende gutxien ibil dadin tartean sartuta.

### **III.2.6. KOORDENATU GEOGRAFIKOAK EZARRI LEKUARI**

Mapan agertuko den toponimo bakoitzari erreferentzia geografiko-espazial bat ematen zaio. Aipatutako erreferentzia hori UTM koordenatu geografikoak izango dira. Maparako hautatutako toponimo guztiek seinale bat daramate, koordenatua non irakurri behar den adierazten duena. Koordenatuen sarrera automatikoki egin daiteke (mahai digitalizatzailea erabiliz edo GPS izeneko tresna batekin<sup>124</sup>) edo eskuz ere atera daiteke.

Koordenatuak sartzeko, seinalearen kokapena modu desberdinetan egingo da, toponimo zonala, puntuala edo lineala den kontuan izanda. Beraz, lehenengoak izena ematen dion azaleraren erdian gutxi gorabehera eramango du ("zentroidea"), puntualak, ordea, izendatzen duen lekuan. Toponimo linealen artean koordenatua daramaten bakarrak hidronimoak dira. Egokitu zaien seinalea ibaiahoan daramate.

### **III.2.7. INFORMAZIO OSAGARRIA SARTU**

Mapa bateko informazio idatziaz bukatzeko, badira beste mota bateko terminoak iturri kartografikoetatik, gehienbat, husten direnak. Ad.: errepideen izenak edo zenbakiak, erakunde batzuenak (mankomunitateak, parke naturalak...), erabilpen batzuenak (hilerria) ahozko inkestan jasotzen ez direnak baina mapa bateko informazioa direnak. Izen hauek *izendapen kartografikoak* dira.

### **III.2.8. TRATAMENDU GEOGRAFIKOAREN GRABAKETA DATU-BASEAN**

Tratamendu geografikoari dagozkion hiru informazio mota sartu behar da datu-basean, lekuak eta erlazioak izeneko pantailan: lekuen sorrera (ikus III.2.1.), lekuen berrantolaketa, eskalaren arabera hautatutako puntuak eta lekuen koordenatu geografikoak.

Berrantolaketa-lanak egiteko, lekuen pantailan "berrantolatu" ikonoa sakatu behar da eta jarraian "lehen lekua" eta "bigarren lekua" idatzi eta berriz ere ikonoa sakatu.

Orrian agertuko diren toponimoei dagozkien puntuen hautaketa egiteko, orri-zenbakia hautatu ondoren, bertan azalduko zaizkigu puntu kartografiko guztiak; hor hautaketa egiteko aukera izango dugu.

Horrez gain, kode geografikoetan aldaketarik egin behar bada, aldaketa horiek, ahozko toponimoen pantailan egin beharko dira.

## **III.3. TRATAMENDU LINGUISTIKOA**

Ahozko toponimotik abiatuta toponimo arautua proposatu arte egin behar diren lanei *tratamendu linguistikoa* deitzen diegu.

Nondik hasi? Zer egin behar da? Zer aztertu behar dugu eta nola aztertuko dugu?

### **III.3.1. ZERRENDA TOPONIMIKOEI KONTSULTAK EGIN**

---

<sup>124</sup> "Global Position System" J. Terradok altxor txiki bat bezela deskribatzen du oso zehatz kokatzen duelako daraman pertsona, koordenatu ardatzak dituen pantaila baten barruan. Baina komeniko da ematen dugun puntu hori toponimoaren hedapenaren erdialdean kokatuta izatea.

Ahozko iturrien eta iturri idatzien emaitzetan oinarriturik, lehenengo eta behin zerrenda toponimikoak kontsultatuko dira, hauek osagai berezitik ordenaturik agertuko dira:

- *Leku bati erantsitako ahozko toponimoen eta toponimo kartografikoen fitxen kontsulta*: ahozko toponimoak eta horiekin erlazionaturako toponimo kartografikoak (minuta toponimikoa), leku-zenbakiaren arabera ordenatuta (26. irudia).
- *Ahozko toponimoen zerrenda alfabetikoaren kontsulta*<sup>125</sup>.
- *Toponimo dokumentatuen zerrenda alfabetikoaren kontsulta*.
- *Toponimo kartografikoen zerrenda alfabetikoaren kontsulta*

---

<sup>125</sup> Zerrenda alfabetikoen unitatea herria edo/eta lurraldea izan daiteke.

## 26. irudia: LEKUEKIN ERLAZIONATUTAKO TOPONIMOEN ZERRENDA

Microsoft Access - [Lekuekin Erlazionatutako Toponimoen Zerrenda]

Archivo Edición Ver Insertar Formato Registros Herramientas Ventana ?

Lekua:	Data:	Toponimoa:	Mota:	Orri/Dok.	Ordena:	Udalerria:	Balid/Balor:
4963	1934	Villano, Cabo de	K	E037	0503	48043	1
4963	1981	Villano, Cabo	K	E003	0107	48043	1
4963	1986	LEGORRARI MUTURRA	K	E053	0038	48043	1
4963	1986/01/01	KABO BILLANO	A	037-30	001	1	48043
4963	1986/01/01	KABO BILLANO	A	037-30	001	2	48043
4963	1986/01/01	LEGORRARI MUTURRA	A	037-30	001	3	48043
4963	2001/08/14	KABO BILLANO	A	037-30	001	4	48043
4963	2001/08/14	LEORRARI	A	037-30	001	5	48043
4963	2001/11/19	LEORRARI	A	037-30	001	6	48043
4963	2001/11/19	KABO BILLANO	A	037-30	001	7	48043
4963	2001/11/20	KABO BILLANO	A	037-30	001	8	48043
4963	2001/11/27	LEORRARI	A	037-30	001	9	48043
4963	2002	Billano, Cabo / Legorari, Punta	D	E022	0001	056	48043
4964	1934	Azoga	K	E037	0502	48043	1
4964	1981	Azoga	K	E003	0108	48043	1
4964	2001/08/14	ASOAS	A	037-30	002	3	48043
4964	2001/11/16	ASOA	A	037-30	002	4	48043
4964	2001/11/19	ASOA	A	037-30	002	1	48043
4964	2001/11/19	ASOA	A	037-31	220	1	48043
4964	2001/11/27	ASOAS	A	037-30	002	2	48043
4965	1986/01/01	ASPE	A	037-30	003	1	48043
4965	2001/11/19	ASPE TXIKERRA	A	037-30	003	2	48043
4965	2001/11/22	ASPE TXIKERRA	A	037-30	003	3	48043
4965	2001/11/25	ASPE TXIKI	A	037-30	003	4	48043
4965	2001/11/25	ASPE TXIKI	A	037-31	222	1	48043
4965	2001/11/27	ASPE TXIKI	A	037-30	003	5	48043

Registro: 16941 de 115045

Inicio Microsoft Access - [L... Microsoft Word - PANTAIL... 13:56

Iturria: 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako prestatutako toponimia.

### **III.3.2. AHOZKO TOPONIMOAK TOPONIMO DOKUMENTATUEKIN ETA KARTOGRAFIKOEKIN ERLAZIONATU**

Ikertzailearen lehen lana mapetan txertatuko diren lekuetako toponimoak aztertzea izango da (ikus III.2.3. atala). Horretarako, leku bakoitzaren aldaera guztiak banan-banan dokumentaturik dauden aztertuko du zerrendetako informazioarekin erkatuz. Horren ostean, aldaera guztien artean hautaketa egingo du eta arautze-lanak hasiko ditu.

Ahozko toponimoen zerrenda alfabetikoak errepikatutako toponimoak edo aldaera oso antzerakoak dituztenak elkarren ondoan agertuko dira; horrek toponimo horien kontrola eta arautze-lana erraztuko du.

### **III.3.3. ALDAERA ASKOREN ARTEAN BAT HAUTATU**

Irizpide orokorrak lehenago azaldu ditugu (III.1.1. atalean). Hala ere, biziki interesgarriak dira Euskaltzaindiak argitaratutako “Toponimia txikia arautzeko irizpideak” (Gorrotxategi eta Salaberri, 2000).

### **III.3.4. ARAZOA IDENTIFIKATU**

Lehenik eta behin, toponimoak agertzen duen “arazoa” edo arazoak identifikatuko ditugu eta jarraian dagokion tratamendua aplikatuko diogu Euskaltzaindiak finkatuta dituen toponimia txikirako irizpideetan oinarriturik.

### **III.3.5. ARAUTEGIA APLIKATU**

Euskal jatorriko toponimoak arautzeko irizpideak finkatzea Euskaltzaindiari dagokio. Ikertzailea finkatuta dauden arauak aplikatzen saiatuko da. Bestetik, jatorri erromantzea duten toponimoek beste tratamendu bat jasoko dute<sup>126</sup>.

Azken batean, ikertzaileak toponimoa bertsio bitan, euskal bertsioan eta gaztelaniazko bertsioan, proposatuko du. Ad.: *Gorbeia mendia/Monte Gorbeia*. Helburu hau aurrean izanda, osagai generikoaren tratamenduak aparteko garrantzia hartzen du proposatu-araututako toponimoetan eta funtsezko galdera bi hauei eman behar zaie erantzuna: proposatu-araututako toponimoak beti osagai biak (generikoa eta berezia) izango ditu? Nola itzuli edo egokitu behar da jatorrizko osagai generikoa bigarren hizkuntzara?

---

<sup>126</sup> Ikus 55. oin oharra.

### III.3.6. PROPOSAMENAK EGIN: PROPOSATU-ARAUTUTAKO TOPONIMOEN FITXA

Proposatu-araututako toponimoei buruzko fitxa osatzen duten atalak honako hauek dira (27. irudia):

*Leku-zenbakia* (ikus III.2.1. atala).

*Normatibizazio data*: Dataren bidez toponimoaren arautze-maila adierazten da, hau da, data osoa ezarriz gero (urtea, hilabetea, eguna), arautze-maila handiena duen toponimoa dela adieraziko da. Datan urtea eta hilabetea jarriz gero, erdi mailako normatibizazioa adieraziko da eta, urtea bakarrik jarriz gero, berriz, normatibizazio-maila txikia adieraziko da.

*Kode geografikoa*: entitate geografiko zehatza adierazten digun 5 digitutako zenbakia. Toponimo bakoitzak kode geografiko bakarra izan behar du.

*Araua*: ETDan txertatuta dauden hizkuntza arauen kodeak<sup>127</sup>. Toponimoa hizkuntzaren ikuspuntutik, agertzen duen "arazo"aren arabera sailkatzen eta kasu bakoitzari dagokion araua ezartzen zaio. Toponimo bati arau bat baino gehiago aplikatu daioke.

*Toponimoa* (Proposatu-araututakoa): entitate geografiko bati buruz jaso diren ahozko toponimo guztien aldaerak eta erlazonaturik dituzten toponimo dokumentatuen azterketa egin eta Euskaltzaindiak onartutako irizpideak aplikatu ondoren proposatzen diren toponimoak. Toponimoek bertsio bi izango dituzte: euskal bertsioa eta gaztelaniazkoa.

Toponimo hauek bi eratara aurkeztuko dira: toponimo osatua eta toponimo osatugabea.

1) *Osatua*:

a) *Kartografian idazteko prestaturikoa*: mapa batean edo errotulu batean agertu behar duen ordenan sartuz, letra larriak eta xeheak errespetatuz.

*Ad.:* Larraluzea tontorra/ Alto de Larraluzea

b) *Zerrenda toponimikoetarako prestaturikoa*: osagai berezia osagai generikoaren aurretik doa beti.

*Ad.:* Larraluzea tontorra/ Larraluzea, Alto de

2) *Osatugabea*: entitate geografiko bat izendatzeko gutxienezkoa den unitatea. Eskala handietan ez da lekurik izaten toponimo osatua idazteko (osagai espezifiko eta generikoa). Horregatik, bertsio osatugabea proposatzen da. Behar-beharrezkoa ez bada, ez da komeni erabiltzea, generikoaren berri ematen duen beste sinboloren bat edo letra motaren bat erabiltzen ez bada behintzat, informazioa galtzen baita.

*Ad.:* Larraluzea/Larraluzea

Toponimo batzuek ez dute forma osatugaberik onartzen toponimoaren lehen osagaia izen arruntzat har daitekeelako.

*Ad.:* Mariñelaren borda, Jentilen lezea...

*Ikertzailea*: ikertzailearen kodea edo izen-deiturak.

*Toponimo ofiziala*: herri-erakunde batek bere eskumenak erabiliz hartutako erabakiaren ondorioz finkatutako izena.

### III.3.7. TRATAMENDU LINGUISTIKOAREN GRABAKETA DATU-BASEAN

Tratamendu linguistikoaren grabaketa lekuen pantailan egiten da: lehenengo, leku bati erantsitako toponimo desberdinen (ahozkoak, kartografikoak, dokumentatuak) arteko erlazioak grabatzen dira. Gero, "Araututako toponimoa" izeneko fitxan, proposatu-araututako toponimoak

<sup>127</sup> Ikus 55. oin oharra.



bertsio bitan (euskal bertsioa eta gaztelaniazkoa) eta bi eratara (osatua eta osatugabea) sartzen dira; bertan normatibizazio-maila, filologoaren kodea eta aplikatzen zaion hizkuntza araua grabatuko dira.

## 27. irudia: PROPOSATU-ARAUTUTAKO TOPONIMOAREN FITXA

Microsoft Access - [Lekuak eta erlazioak]

Archivo Edición Ver Insertar Formato Registros Herramientas Ventana ?

LEKUA: 4963

Lekuak Sortu Lekuak Garbitu

Puntuak Ahozkoak Kartografikoak Dokumentatuak Proposatutako Toponimoa

**Toponimo Osatuak**

Kartografia Eusk.: Billao lurmuturra Kartografia Gazt.: Cabo Billao  
 Zerrendak Eusk.: Billao lurmuturra Zerrendak Gazt.: Billao\_cabo

**Toponimo Osatugabeak**

Euskaraz: Billao Gaztelaniaz: Billao

**Toponimo Ofiziala:**

**Filologia:** 0001  
**Kode Geo.:** 10603  
**Normalizazio Data:** 2002/08/28

**Arau guztien zerrenda:** Hautatu

- 3.6.2. Jatorrizko kontsonantearen gorritzea: toponimoa euskal eremukoa bada tradizioari so egin behar diogu eta, gaur eg...
- 3.7.0. Hiatoaren kontrako kontsonantea.
- 3.7.1. Hiatoaren kontrako kontsonantea: errespetatu egingo da, ahoz jasotako forma bere hartan utzita. Yarza (D), Iger...
- 3.7.2. Hiatoaren kontrako kontsonantea: ahoz jasotako kontsonante epentetiko antihiatikoa kendu egingo da jatorrizko...
- 3.8.0. Bokalariteko sudurkari albeolarren (N) galera.
- 3.8.1. Bokalariteko sudurkari albeolarren galera: jasotako forma bere hartan utziko da, euskararen arau fonologiko bati...
- 3.8.2. Bokalariteko sudurkari albeolarren galera: jatorrizko sudurkari horiek utziko da, euskararen arau fonologiko b...

Inicio Microsoft Access - [L... Microsoft Word - PANTAIL...

15:12

Iturriak: HPSren aplikazio informatikoa eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketa-lanerako egindako moldaketa-lanak.

## IV. TOPONIMIA-LANEN AURKEZPENA ETA ZABALKUNDEA

Aurrelanak, bilketa lana, tratamendua eta informazioaren grabaketa egin ondoren, emaitzak aurkezteko modu desberdinak daude, lanaren helburua kontuan harturik: zerrendetan, fitxetan, mapa edo planoetan... eta bakoitza paperezko formatuan zein euskarri informatikoan aurkez daiteke. Hautaketa horretan zerikusi handia izango dute herri mailako toponimia-lana edo lurralde bateko toponimia-lana izateak, baliabideek, eguneratzeko premiak...

Ondo egituraturtako eta hornitutako datu-base batek aukera hauek guztiak eskaintzen ditu, beti ere informazioa ondo sartuta badaigo eta alor desberdinak elkarren artean ondo erlazionatuta badaude. Eskuliburu honetan planteatu diren galdera nagusi biei erantzuteko moduko aurkezpena gomendatzen dugu: erabiltzaileak modu errazean toponimoa *non kokatzen den eta nola idazten den* jakingo du. Horrez gain, gaurko aldaerak eta aldaera historikoak ere ezagutu nahiko ditu, zein entitate geografikori lotutako toponimoa den ...


J. Terradori jarraituz eta, batez ere, EAEko eta Nafarroako adibideetara mugatuz, ondorengo aurkezpen mota hauek eskain daitezke:

- a) **Toponimo zerrendak (aurkibide toponimikoak):** beste garai bateko ikertzaileen helburua zerrenda hauek argitaratzea zen (Ad. Eleizalderen toponimo zerrendak). Gaur egun datu-base bat ustiatuz norberak nahi dituen emaitzak lor daitezke, beti ere, datu-base horretan sartu diren informazioaren eta erlazioen arabera.
- b) **Izendegiak:** erakunde ofizial batek bere agerkari ofizialean argitaratzen dituen toponimo zerrendak, bai osorik, (ad. *Gazette officielle du Québec...*) edo zerrenda monotematikoak, (ad. urtean behin EHAAn argitaratzen den udalerrien izen ofizialen izendegia edo EAEko biztanle-entitateen izenak (Euskaltzaindia, 2001), Nafarroako herrien izendegia (Elorz, J.R. eta Belasko, M., 2000))
- c) **Herri monografiak:** nagusiki hiru eratakoak izaten dira:
  - ahozko iturrietan soilik oinarritutako lanak (J. A. González Salazarren Arabako toponimia bilketa, *Cuadernos de toponimia*)
  - dokumentu idatzietan bakarrik oinarritutakoak (Luis Mari Mujikaren *Euskal Toponimiazko Materialeak*)
  - ahozko iturrietan eta iturri idatzietan oinarritutakoak: toponimoen fitxen bidez, ahozko toponimoez gainera toponimo dokumentatutak, kokapena, etimologia eta bertsio arautuaren proposamena ere sartzten da; gehienetan, herriko mapa ere eranskin modura sartzten da (Ad. Euskaltzaindiak argitaratzen dituen Onomasticon Vasconiae saileko lanak).
- d) **Toponimia tematikoa:** gai bati buruzko toponimia bakarrik, edo nagusiki behintzat, aztertzen denean. Ad. A. Irigoyen eta E. Olasoloren *Nombres de familia y oicónimos en las fogueraciones de Bizkaia de los siglos XVII y XVIII* (1998) , M. Belaskoren *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra* (2000) edo P. Galéren *Bizkaiko gailurren katalogoa. Catálogo de cimas de Bizkaia* (2000).
- e) **Hiztegi toponimikoak:** herri edo lurralde bateko leku-izenen bilduma. Sarrera bakoitzak gaika antolatutako informazio biltzen du (linguistikoa, historikoa, geografikoa, etnografikoa...). Ad. Québec-eko Toponimia Batzordeak argitaratutako *Noms et lieux du Québec: dictionnaire illustré* (1996) edo P. Raymondren *Dictionnaire topographique du Département des Basses-Pyrénées* (1983)

- f) **Mapak:** ikerketa batzuen helburua mapa bateko edo katastroko toponimia finkatzea da. Toponimoaren kokapenak eta hedapenak, koordenatu geografikoek eta kodifikazio geografikoak aparteko garrantzia hartzen dute. Ad. Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutuak burututako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 1:5.000 eskalako kartografiarako toponimia lana edo J. M. Jimeno Juríoren zuzendaritzapean Nafarroako katastroko toponimia finkatzeko egindako lana (28. irudia).
- g) **Toponimia datu-base interaktiboak:** erabiltzaileari, menu baten bitartez, datu-baseari eskatutakoari erantzuteko aukera eskaintzen diotenak. Ad. ETDa ([www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)).  
Datu-base batzuk gainera informazio kartografikoarekin eta katastralarekin lotuta daude. Ad. Nafarroako toponimia datu-basea ([www.toponimianavarra.tracasa.es](http://www.toponimianavarra.tracasa.es))

Lana era batera edo bestera aurkeztuta ere, kaleratzen den egunetik beretik prest egon behar dugu aldaketak egiteko. Datu-basea eguneratzea beharrezkoa da: zabalkunde lana egin ondoren herritar batzuk ez dira bat etorriko proposatzen den toponimoarekin edo faltan botako dute eurek "betidanik" erabiltzen dutena edo arrotza egingo zaie agertzen denen bat... Herritarren eta erakundeen erantzunei, oharrei eta zuzenketei esker datu-basea gaurkotuz, osatuz eta, azken batean, aberastuz joango da. Informazio honen guztiaren kudeaketa lanaren beste urrats bat izango da.

28. irudia: TOPONIMIA-LANAREN AURKEZPEN MOTA BAT. 37-30 ORTOFOTORRIAREN  
ETA ORRIAREN ZATIA



Iturria: BFAko web orria ( [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net)) eta 2002. urtean DEIKERek Eusko Jaurlaritzarentzat Bizkaiko Toponimiaren berrikusketan lanerako prestatutako toponimia.

## OINARRIZKO GLOSARIOA<sup>128</sup>

### **Ahozko toponimoa**

Tokian tokiko biztanleek ahoz erabili ohi duten leku-izena, inkesten bidez jaso dena.

*Ad.: Albitzeko atxeta*

### **Aldaera**

*Izen berbera oinarri izanik, aldaketa fonetikoengatik edo bestelako arrazoiengatik sortutako forma ezberdinak*

*Ad.: Olabarrieta, Olabarritta, Olabarta, Labarrieta...*

### **Azpiorden zenbakia**

*Puntu kartografikoaren izenak dituen aldaeren edo izendapen paraleloen kopurua azaltzen du.*

### **Balidazioa**

*Lehendik jasota zegoen toponimo baten eta inkesta berri baten bidez jasotako toponimoen artean, inkestatzaileak egiten duen parekatze-lana.*

*Egiaztapen-inkestaren bidez jasotako balorazioak 19 aukera desberdin izan dezake:*

### **Dokumentazio-iturriak**

Mota guztietako artxiboak (udalenak, elizarenak, protokoloak, historikoak, e.a....), Jabetza-Erregistroa eta inprimatu gabeko agiriak (katastro zaharrak, e.a....).

---

<sup>128</sup> euskadi.net/euskara-tik hartutakoa eta zerbait aldatutakoa. Letra etzanaren bidez adierazten dugu aldatu edo gehitu duguna (adibideak ezik).

### **Egiatzapen-fitxa puntuala**

*Minuta toponimikoa prestatu ondoren sortzen diren zalantzak, hutsuneak edo kontraesanak jasotzeko erabiltzen dena eta inkesta toponimikoan egiaztatuko dena.*

### **Egiatzapen zerrenda dokumentala**

*Dokumentazio-iturrietatik hustutako toponimoen erabilera eta kokapena zehazteko prestatzen dena eta inkesta toponimikoan egiaztatuko dena.*

### **Egiatzapen zerrenda geografikoa**

*Minuta toponimikoan txertatuta dagoen informazio toponimikoarekin bat datorrena.*

### **Entitate geografikoa**

Izendatutako edo izenda daitekeen paisaiaren osagaia. Honelakoa izan daiteke: naturala, artifiziala, administratiboa ...

*Ad.: mendia, ibaia, kalea, eskualdea...*

Gehienetan, hizkuntza estandarrean entitate geografikoa izendatzen duen terminoa eta toponimoaren osagai generikoa berdinak izaten dira. Horrela izaten ez denean, herri-hizkeraren eta terminologia zientifikoaren artean desberdintasunak agertzen direlako izan ohi da.

Terminologiaren ikuspuntutik, entitatea adierazten duen terminoa, hertsiki, geografikoa da. Generikoa, berriz, lekuaren berezitasunen arabera, hizkera arruntetik sortutako forma izan daiteke edo tokian tokikoa, denboran zehar transmisioak ekarritako aldaketak eta guzti. Adibidez:

*Kurutze mendi, ahozko toponimoa: mendi, generikoa; tontorra, entitate geografikoa*

*Gastaka errotea, ahozko toponimoa: errota, generikoa; baserria, entitate geografikoa*

### **Erreferentzi puntua**

*Leku berezi batzuen kokapenari buruzko informazioa (ermita, errepidea, erreka, ...), inkestatzailearentzat zein lekukoarentzat inkesta egiterakoan orientatzeko lagungarri dena.*

## **Euskal toponimoa**

Euskal etimologia argia eta garbia duen edo, jatorriz beste hizkuntzaren batekoa bada ere, euskarak erabat bereganatua duen toponimoa.

Ad.: *Iturrigorri, Mollaberri...*

## **Euskal Autonomia Erkidegoko Toponimia Datu-basea (ETD)**

*1986az geroztik egin diren lurralde mailako toponimia ikerketa desberdinen datu-bilketa. Gaur egun HPSn kokatuta dagoen eta INTERNETen bidez zabaltzen den informazioa: ahozko toponimoak, toponimo kartografikoak, toponimo dokumentatuak eta proposatu-araututako toponimoak, beti ere 1:5.000 eskalako kartografiari erantsita. Horrez gain, erabilitako kodeak (dokumentuenak, lekukoenak, geografikoak, hizkuntza arauenak...) ere sartuta daude.*

## **Fitxa toponimikoa**

*Toponimo bati (dokumentatua, kartografikoa, ahozkoa zein proposatu-araututakoa) dagokion informazio guztia agertzen duen unitatea.*

## **Hizkuntza-normatibizazioa**

Toponimoei aurrez finkaturiko zenbait hizkuntza-arau edo -irizpide aplikatzean datza. Arau eta irizpide horiek egindako landa-lan sakonetik sortutako materialaren azterketaren emaitza dira, dokumentu ugariarekin alderatu eta egiaztatu ondoren eta hizkuntzaren bilakaeraren oinarritzko arauak oinarri hartuta. Horrela, leku-izenek hizkuntzaren ikuspuntutik sortarazten dituzten arazoei irtenbidea bilatzen saiatzen da eta, beraz, forma zuzenak edo egokiak ematen. Guztira, 100 arazo-mota baino gehiago tratatu eta kodetu dira.

Hizkuntza-tratamendua jasan duen toponimo bakoitzak erakusten zuen arazoa eta eman zaion irtenbidea adierazten dituen hizkuntza-normatibizazioko kodea dauka.

Azkenik, proposatu-araututako toponimo bakoitzari normatibizazio-maila bat ezartzen zaio, hiru normatibizazio-mailaren artean: handia, erdimailakoa edo txikia. Maila hori toponimoari nabari zaizkion arazoen konplexutasuna eta burututako normatibizazioaren ziurtasun mailaren arabera ematen zaio.

Egindako hizkuntza-normatibizazioari buruz, "behin-behineko" proposamena dela azpimarratu behar da, lana burutu zuen lantaldeak idatzitako arauen arabera. Proposamen irekia da eta aldaketak jasan ditzake.

## **Izendapen kartografikoa**

*Mapa batean txertatuta agertzen den terminoa, izen arrunta eta ez toponimoa, entitate geografikoaren berri ematen diguna.*

Ad.: *Hilerria, erpin geodesikoa...*

## **Izendapen paraleloa**

*Leku bati dagozkion izen erabat ezberdinak.*

Ad.: *Zipar/Ubieta, Jungumiturri/Fuente Cana...*



## **Kartografia iturriak**

Toponimia dakarren edozein dokumentu grafiko (mapa, plano, krokisa...), azterlan edo ikerketa baten zatia dela, dokumentu berezia dela zein sail baten zatia dela.

Ad.: *EAEko errepide mapa*

## **Kartografiarako prestatutako toponimo osatua**

*Toponimoa mapa batean edo errotulu batean euskararen edo gaztelaniaren sintaxiari jarraituz idatzi behar den bezala, letra larriak eta xeheak errespetatuz. Adibidez:*

*Arandoain artoa, kartografiarako toponimoa euskarazko bertsioan*

*Barranco de Arandoain, kartografiarako toponimoa gaztelaniazko bertsioan*

## **Koadrantea**

Orri barruan toponimo bakoitzak duen kokapena adierazten du. Orria lau koadrantetan banatuta dago (A, B, D, E) eta toponimoa batean edo gehiagotan koka daiteke.

062-63 orria

A	B
D	E

## **Kode geografikoa**

Toponimoari edo leku-izenari dagokion benetako entitate geografikoa adierazten duen zenbakia.

## **Kode linguistikoa**

Toponimoaren forma proposatu-araututakoa finkatzeko erabiltzen d(ir)en hizkuntza-araua(k) adierazten d(it)u(z)ten zenbakiak eta letrak.

## **Lekua**

*Entitate geografikoa. Batzuetan, lekua "zatituta" agertzen da udalerrri biren edo gehiagoren artean edo/eta orri bat edo gehiagoren artean. Horregatik, lekuak kartografian puntu kartografiko bat edo batzuk izan ditzake; puntu guztiak lekuarekin erlazionatuta daude. Lekuaren zenbakia datu-baseak automatikoki ematen du.*

*Datu-basean leku berri bat sortzea hauxe da: puntu kartografiko erlazonaturik ez duen entitate geografiko bat, puntu kartografiko batekin eta berari erantsitako informazio guztiarekin erlazionatzea.*

## **Minuta toponimikoa**

*Landa-lana egin aurretik, ETDko ahozko toponimoekin eta kartografia iturri desberdinetatik hustutako toponimoekin prestatzen den dokumentu kartografikoa.*

## **Normalizazio geografikoa**

*Toponimia kartografian txertatzeko, irizpide grafiko eta geografiko bateratuak ezartzeko eginkizunen multzoa: kodifikazio geografikoaren aplikazio zuzena, lekuen berrantolaketa, lekuen hautaketa, toponimoaren orientazioa eta hedapena zehaztu, koordenatu geografikoak ezarri eta informazio osagarria sartu.*

## **Ordena-zenbakia**

1) 1:5.000 eskalako orri baten barne lekuaren identifikazio-zenbakia da; puntu kartografikoaren osagaietako bat. Leku batek (ad. erreka bat) orri baten barruan ordena-zenbaki bakarra eramango du; ziur asko, orria aldatzerakoan beste ordena-zenbaki bat eramango du. Ordena-zenbakiak korrelatiboak izango dira.

Ordena-zenbaki **berria**: ETDko kartografian izendatu gabeko leku batentzat ikertzaileak sortu dezakeen zenbakia. Zenbaki hau erabilitako azken zenbakiaren ondorengoa izango da.

Ordena-zenbaki **zaharra**: ETDko kartografian erabilitako zenbakia.

2) Mapa baten edo dokumentu baten orrialde berean agertzen diren toponimoak identifikatzeko zenbakia. Automatikoki sortzen den zenbakia da.

## **Orria (Orri-zenbakia)**

1:5.000 eskalako mapa orokorra osatzen duen mapa partzial bakoitza. Aldundietako kartografia sailean lor daitezke. Orri hauek 4 edo 5 digitutako zenbaki batez identifikatzen dira. Zenbaki hauek, datu-basearen kodifikazioari begira, guztiak 5 digitutakoetara egokitu dira.

Ad.: 62-64 edo 111-4 orriak 062-64, 111-04 bihurtuko ditugu.

### **Ortofotorria**

*Airetik ataratako argazkia da; bertan paisaian ikus daitezkeen elementu guztiak ikusiko ditugu, ikuspuntu bertikal batetik. Zuzenketa geometrikoen bidez ortofotorriak eskala bera mantentzen du irudi osoan zehar. Sestra-kurben informazioa ere erants dakioko (Bizkaian behintzat) eta era honetara erliebea interpretatzeko modua ere izango dugu dokumentu bakar batean.*

### **Osagai espezifikoa**

Toponimoa zehatz-mehatz izendatzen duen osagaia. Oro har, toponimoaren izen propioa dela esan daiteke. Osagai espezifikoak osagai bakar bat edo gehiago izan dezake. Adibidez:

*Galburusoro baserria*: Galburusoro, osagai espezifikoa

*Santa Marina eliza*: Santa Marina, osagai espezifikoa

### **Osagai generikoa**

Toponimoan entitate geografikoaren izaera, modu orokorrean, adierazten duen osagaia. Adibidez:

*Galburusoro baserria*: baserria, osagai generikoa

*Santa Marina eliza*: eliza, osagai generikoa

### ***Pertsona mota***

Toponimia-lanetan parte hartu duten pertsona guztien perfila (inkestatzailea, lekukoa, geografoa, filologoa, dokumentalista, grabatzailea). Pertsona batek perfil bat baino gehiago izan dezake.

### ***Puntu kartografikoa***

*Kartografian, orri bateko entitate geografiko baten errotulaziorako tokirik aproposena. Marra baten bidez errepresentatzen da eta orri-zenbakiaren eta ordena-zenbakiaren bidez identifikatzen da.*

*Datu-basean, puntu kartografikoa 1:5.000 eskalako orri-zenbakiak eta barruko ordena-zenbakiak osatzen dute. Puntua beti leku bakar batekin erlazionatuta egongo da. Puntu bat udalerrri bi edo gehiagoren artean banatuta badago, errepikatu egin beharko dira puntuen erregistroak (orri-zenbakia eta ordena-zenbakia) udalerrri kodea aldatuz. Adibidez:*

*061-62 orriko, 005. ordena, 48043 udalerrikoa;*

*061-62 orriko, 005. ordena, 48047 udalerrikoa*

### **Toponimia**

Leku-izenak, banaketa administratiboen izenak nahiz biztanleri entitateenak, bai eta akzidente geografikoenak ere, aztertzen dituen jakintza-gaia.

### ***Toponimoa***

*Lekuak edo entitate geografikoak izendatzeko erabili ohi den terminoa. Toponimoa izen propioa da, osagai espezifikoa batez eta osagai generiko batez eratuta egon daitekeena.*

*Ad. Zumelegi erreka: Zumelegi, espezifikoa; erreka, generikoa.*

### **Toponimo dokumentatua**

Idatzizko dokumentazio-iturrietatik ateratako toponimoa. Jatorrizko grafia bere hartan gordetzen da.

*Ad.: Olaun txarra erreka aldea.*

### **Toponimo erromantzea**

Etimologia erromantze argia duen edo, jatorriz beste hizkuntzaren batekoa bada ere, gaztelaniak erabat bereganatua duen toponimoa.

*Ad.: Miralobueno, La Bizcarra...*

### **Toponimo iluna**

Jatorri ezezaguneko toponimoa, guztiz itxuraldatuta dagoelako edo zalantzazko etimologia duelako. Horrelakoetan, euskal grafiaz idaztea erabaki da.

*Ad.: Kolako, Zikozerardo, Kakabel...*

### **Toponimo kartografikoa**

Iturri kartografikoen hustuketatik jasotako toponimoa. Dokumentuak dakarren grafia bere hartan gordetzen da.

Ad.: *Olaun (goikoa), Zalvidea, Ynchaurtieta, Ezquiaga...*

### **Toponimo nagusia eta eratorria**

Lekuen artean ezartzen den hierarkiaren arabera sortutako tipologia da. Irizpide honek ez du nahitaez bat etorri behar entitate geografikoak hartzen duen hedadurarekin. Horrela, esate baterako, ermita (toponimo nagusia) baten izena zabaldu egin daiteke eta inguruko erreka bati izena eman eta baita ermitaren inguruari ere (toponimo eratorriak). Adibidez:

*San Martin ermita*, toponimo nagusia

*San Martingo erreka* eta *Sanmartinaldea*, toponimo eratorriak

### **Toponimo osatua (ikus proposatu-araututako toponimoa)**

### **Toponimo osatugabea (ikus proposatu-araututako toponimoa)**

### **Proposatu-araututako toponimoa**

Aldaerak eta dagozkien toponimo dokumentatuak aztertu ondoren, ahozko toponimoei aplikatutako normatibizazio-prozesutik ateratako leku-izena. Proposatu-araututako toponimo motak:

- 1) Osatua: Kartografian zein kartografiari erantsitako zerrenda toponimoko baten sartzeko prestaturikoa.
  - a) Kartografian idazteko prestaturikoa: Adibidez:  
*Arandoain artoa*: kartografiarako proposatu-araututako toponimoa euskarazko bertsioan.  
*Barranco de Arandoain*: kartografiarako proposatu-araututako toponimoa gaztelaniazko bertsioan.
  - b) Zerrenda toponimikoetarako prestaturikoa: Adibidez:  
*Arandoain artoa*: zerrendetarako proposatu-araututako toponimoa euskarazko bertsioan.  
*Arandoain, barranco de*: zerrendetarako proposatu-araututako toponimoa gaztelaniazko bertsioan,
- 2) Osatugabea: entitate geografiko bat izendatzeko gutxienezkoa den unitatea. Adibidez:  
*Arandoain*: proposatu-araututako toponimo osatugabea euskarazko bertsioan.  
*Arandoain*: proposatu-araututako toponimo osatugabea gaztelaniazko bertsioan.

Toponimo batzuek ez dute forma osatugaberik onartzen toponimoaren lehen osagaia izen arruntzat har daitekeelako. Adibidez:

*Mariñelaren borda, Jentilen lezea...*

### **Zerrenda toponimikoetarako prestaturiko toponimo osatua**

*Toponimoa aurkeztean lehentasuna ematen zaio osagai espezifikoari. Horrela, batetik corpusaren akzidente geografiko desberdinak osagai espezifiko bakar batekin bilduko dira eta, bestetik, datu-basean bilatzea errazagoa izango da. Adibidez:*

*Arandoain arroa, zerrendetarako toponimoa euskarazko bertsioan Arandoain, Barranco de, zerrendetarako toponimoa gaztelaniazko bertsioan.*

## TOPONIMIA-LANEN METODOLOGIAZ BIBLIOGRAFIA

- AIZPURUA, X. eta MUJIKA, N. (1987) "Informe sobre el proyecto de organización de la toponimia en la Comunidad Autónoma Vasca" *Nazio Batuek antolatutako izen geografikoen normalizaziorako V Jardunaldian*, Montreal.
- ALBERDI, M. eta MUJIKA, N. (2000) *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzan kokatuta dagoen toponimia datutegiaren erabilpen maila herri aginteen kartografia ofizialean*, Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Vitoria-Gasteiz (argitaratu gabea).
- AMIGÓ, R. (1999) *Introducció a la recerca en toponímia i antroponímia*, Publicaciones de l'Abadia de Montserrat, Barcelona.
- BUESA OLIVER, T. (1977): *Onomástica aragonesa. Cuestionario*, Universidad de Zaragoza, Zaragoza.
- CARO BAROJA, J. (1949) "Proyecto para la elaboración del fichero de Toponimia y Antroponimia vasca medieval", BRSVAP, V, 381-385. orr.
- COROMINES, J. (1970) *Estudis de toponímia catalana*, Biblioteca Filològica Barcino, Editorial Barcino, Barcelona, 2 bol.
- DEUSTUKO UNIBERTSITATEA. DEIKER INSTITUTUA (1988): *Euskal Herriko Autonomia Elkarte kartografiarako toponimia*, N. Mujika (zuz.), argitaratu gabea (Dokumentuaren atal batzuk Eusko Jaurlaritzako web orrian: [www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara))
- DEUSTUKO UNIBERTSITATEA. DEIKER INSTITUTUA (1994): *Araba eta Gipuzkoako 1:5.000 eskalako kartografiarako toponimiaren finkapena*, N. Mujika (zuz.), argitaratu gabea (Eusko Jaurlaritzako web orria: [www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara))
- DORION, H. eta POIRIER, J. (1975) *Lexique des termes utiles á l'étude des noms de lieux*, Les Presses de l'Université Laval, Québec.
- ECHEVARRÍA, I. (1991) "Toponimia románica en el País Vasco: Metodología y práctica", Deustuko Unibertsitatean (DEIKER Institutuan) 1991n antolatu zen *Toponimia ikastaroan* (argitaratu gabea).
- EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA (2001): *Izen Geografikoen Glosarioa*.
- ELORZ, J.R. eta BELASKO, M. (2000) *Nafarroako toponimia. Hizkuntza normalizaziorako irizpideak eta herrien izendegia*, Nafarroako Gobernua (Hezkuntza eta Kultura Departamentua), Iruña.
- GALÉ, P. (2001) "Entitate geografikoaren identifikazioa. Kodifikazio geografikoa" *Toponimia-lanen metodologia ikastaroa I*, Deustuko Unibetsitatea-DEIKER Institutua, Bilbon, 2001eko ekainaren 25etik 28ra (argitaratu gabea).
- GONZÁLEZ SALAZAR, J.A. (1986): "Toponimia menor actual en Álava" *I. Onomastika jardunaldien agiriak, toponimia (Gasteiz, 1986ko apirila)*, E. Knörr eta A. Líbano par., *Onomasticon Vasconiae*, 4, Euskaltzaindia, Bartzelona, 93-97. orr.
- GORROTXATEGI, M. (2001): "Ahozko bilketa toponimia-lanetan" *Toponimia-lanen metodologia ikastaroa I*, Deustuko Unibetsitatea-DEIKER Institutua, Bilbon, 2001eko ekainaren 25etik 28ra (argitaratu gabea).

- (2001) "Toponimoen transkripziorako oinarriko kontzeptuak" *Toponimia-lanen metodologia ikastaroa I*, Deustuko Unibetsitatea-DEIKER Institutua, Bilbon, 2001eko ekainaren 25etik 28ra (argitaratu gabea).
- GORROTXATEGI, M. eta SALABERRI, P. (2000) "Toponimia txikia arautzeko irizpideak" *Euskera XLV*, 273-314 orr.
- HUDON, H. (1986): *Méthodologie des inventaires toponymiques*. Dossiers toponymiques, 16. zenb., Commission de toponymie, Gouvernement du Québec, Québec (Gaztelaniara itzulita).
- IRIGOYEN, A. (1986) "Problemas de nomenclatura en la elaboración de mapas topográficos en áreas vascofonas de administración romanizante hasta el presente" " *I. Onomastika jardunaldien agiriak, toponimia (Gasteiz, 1986ko apirila)*, E. Knörr eta A. Líbano par., *Onomasticon Vasconiae*, 4, Euskaltzaindia, Bartzelona, 159-171. orr.
- (1991) "Gipuzkoan eta Araban ahoz bildu behar diren toponimoen transkripzioa" Deustuko Unibertsitatean (DEIKER Institutuan) 1991n antolatu zen *Toponimia ikastaroan* (argitaratu gabea).
- JIMENO JURÍO, J.M<sup>ª</sup> (1987) "Presentación del borrador de <<Guía para la recogida toponímica del País Vasco>>" *Euskera*, XXXII (2.aldia), 429-442. orr.
- (1988) "Encuesta toponomástica" *Euskera*, XXXIII, 289-301. orr.
- (Zuz.) (1991a) *Nafarroa: Toponimia eta mapagintza (Bigarren Argitarapena. Zuzenduta eta Osatuta)*, Nafarroako Gobernua, Lehendakaritza Departamentua, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, Iruña.
- (1991b) "Recogida de toponimia. Ámbito, fuentes, metodología. La experiencia navarra" *I. Onomastika jardunaldien agiriak, toponimia (Gasteiz, 1986ko apirila)*, E. Knörr eta A. Líbano par., *Onomasticon Vasconiae*, 4, Euskaltzaindia, Bartzelona, 100-110. orr.
- JUNTA DE ANDALUCÍA. CONSEJERÍA DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES (1990): *Inventario de toponimia andaluza (Introducción metodológica)*, Consejería de Obras Públicas y Transportes, Centro de Estudios Territoriales y Urbanos, Sevilla, 0. Bol.
- KAMIRUAGA, A (2001) "Ahozko inkesta egiteko metodologia", *Toponimia-lanen metodologia ikastaroa I*, Deustuko Unibetsitatea-DEIKER Institutua, Bilbon, 2001eko ekainaren 25etik 28ra (argitaratu gabea).
- LLEONART, M.A. eta PARELLA, M. (1994) "Toponimia en cartografía" *Terra* 22. zenb., 11-26. orr.
- MOLL, J. eta TORT, J. (1985): *Toponimia i Cartografia. Assaig de sistematitzazio*" Institut Cartogràfic de Catalunya, Série Manuals, 1. zenb., Barcelona.
- MOREU-REY, E. (1991) "Recogida, clasificación, normalización y oficialización de un corpus toponímico: consideraciones críticas sobre su problemática según nuestra experiencia en Catalunya" *I. Onomastika jardunaldien agiriak, toponimia (Gasteiz, 1986ko apirila)*, E. Knörr eta A. Líbano par., *Onomasticon Vasconiae*, 4, Euskaltzaindia, Bartzelona, 37-47. orr.
- MUJICA, N. (1987) "Toponimia y espacio" *Lanestosan*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 69-102. orr.
- (1989) "Toponimiaren erabilera praktikoaz" *Jakin*, 55. zenb., 133-144. orr.



- (1994) "Toponimia y cartografía: el caso de la Comunidad Autónoma del País Vasco" *Toponimia de Castilla y León. Actas de la Primera Reunión Científica sobre toponimia de Castilla y León (Burgos, 1992)*, A. Álvarez eta H. Perdiguero (ed), Burgos, Caja de Burgos-Aula Universitaria de Filología e Historia, 259-266 orr.
- (1996) *Proyecto de normalización de la terminología geográfica asociada a la toponimia*, Eusko Jaurlaritz (Hizkuntza Politikarako Sailordetza) (argitaratu gabea).
- (1997) "La problemática de la terminología geográfica dentro de los trabajos de normalización toponímica" *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*, Donostia-San Sebastián, 785-799 orr.
- (2001) "Oinarrizko kontzeptuei eta osagai generikoen tratamenduari buruzko eztabaida-txostena" *Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Batzorde-atal bereziaren 6. Bilerarako prestatutako txostena*.
- MUJIKA, N. (Koor.), ENRÍQUEZ, J. eta SESMERO, E. (1999): *Informe-valoración de fuentes documentales inéditas para los trabajos de normalización de la toponimia de Bizkaia*, Eusko Jaurlaritz (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), Vitoria-Gasteiz, 2 bol. (argitaratu gabea).
- MUÑAGORRI, M.A. (1991) "Euskal Autonomia-Elkarteko 1:25.000 eskalako maparen toponimia-antolaketa" *I. Onomastika jardunaldien agiriak, toponimia (Gasteiz, 1986ko apirila)*, E. Knörr eta A. Líbano par., *Onomasticon Vasconiae*, 4, Euskaltzaindia, Bartzelona, 335-341. orr.
- PÉREZ I PIQUER, A.V. (1995) "Proposta d'informatització de la toponímia" *Materials de Toponímian* (Rosselló eta Casanova ed.), Generalitat Valenciana – Universitat de València, Valencia, 1 bol. 53-60. orr.
- POIRIER, J. (1965): *Toponymie. Méthode d'enquête*. Les Presses de l'Université de Laval, Québec.
- QUÉBEC (GOURVERNEMENT). COMMISSION DE TOPONYMIE (1984): *Guide á l'usage des cartographes*, Québec, Commission de toponymie.
- QUÉBEC (GOURVERNEMENT). COMMISSION DE TOPONYMIE (1987): *Guide toponymique du Québec. Politiques, principes et directives*. Québec, Commission de toponymie.
- QUÉBEC (GOURVERNEMENT). COMMISSION DE TOPONYMIE (1997): *Glossaire de la terminologie toponymique*. NAFTALI KADMONen "Glossary of Toponymic Terminology"-ren frantsesezko bertsioa.
- ROS, A. (2001) "Toponimia inkestaz hausnarrean", *Toponimia-lanen metodologia ikastaroa I*, Deustuko Unibetsitatea-DEIKER Institutua, Bilbon, 2001eko ekainaren 25etik 28ra (argitaratu gabea).
- ROSSELLÓ, V.M. eta CASANOVA, E. (ed.) (1995) *Materials de Toponímia*, Generalitat Valenciana – Universitat de València, Valencia, 2 bol.
- SABIRON I HERRERO, B. (1991) "Evolución de la toponimia en Catalunya: síntesis histórica y situación actual" *I. Onomastika jardunaldien agiriak, toponimia (Gasteiz, 1986ko apirila)*, E. Knörr eta A. Líbano par., *Onomasticon Vasconiae*, 4, Euskaltzaindia, Bartzelona, 225-235. orr.
- TERRADO, J. (1999) *Metodología de la investigación en toponimia*, Zaragoza, edición del autor.

TORT, J. (1995) "Notes metodològiques per a un estudi de la interrelació entre toponímia i cartografia" *Materials de Toponímian* (Rosselló eta Casanova ed.), Generalitat Valenciana – Universitat de València, Valencia, 1. Bol. 75-87. orr.

UNIVERSIDAD DE DEUSTO. INSTITUTO DEIKER (1991) *Instrucciones y presentación de la encuesta toponímica* (argitaratu gabea).

XUNTA DE GALICIA (2001) *Proxecto Toponimia de Galicia. Manual de metodoloxía para orientación da recolleita da información toponímica*, argitaratu gabea.

## ESKULIBURUAN ZEHAR AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- AGUINAGALDE, F.J. (Koor.) (1986-1988) *Censo de archivos del País Vasco*, Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza, 3 tomo.
- ALVAR, M. (1972) "Corpus toponymicum canariense. Encuestas en Lanzarote e islotes de su jurisdicción" *Geographica*, 2. garaia, XIV. urtea, 2. zenb., 83-96. orr.
- ARANBERRI, F. (2001) Ermua-Eitzaga: leku-izenak, *Onomasticon Vasconiae*, 22. zenb., Euskaltzaindia, Ermua.
- BARANDIARAN, J.M. (1934) "Cuestionario para una investigación etnográfica de la vida popular" *Anuario de Eusko Folkloren*, XIV, 157-209. orr.
- BELASKO, M. (2000) *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*, Pamiela arg., Iruña.
- CARRERAS Y CANDI F. (1911-1925) *Geografía general del País Vasco*, (Facsimil de la 1ª edición publicada entre 1911 y 1925 bajo el título *Geografía general del País Vasco-navarro*), La Gran Enciclopedia Vasca arg., Bilbao.
- DELMAS, J.E. (1968) *Guía histórico-descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya*, (Facsimil de la 1ª edición de 1894), La Gran Enciclopedia Vasca arg., Bilbao.
- ECHEVARRÍA, I. (1999) *Corpus de toponimia carranzana : materiales para el estudio del castellano de Vizcaya*, Euskal Herriko Unibertsitatea, argitalpen zerbitzua, Bilbao.
- ELEIZALDE, L. De (1916) "Indicaciones elementales sobre la formación y los usuales componentes de las voces toponímicas vascas", Jesús Alvarez, Bilbao.
- ESTEBANEZ, J. eta PUYOL, R. (1978): *Análisis e interpretación del Mapa Topográfico*, Tebar Flores arg., Madrid.
- EUSKALTZAINDIA, EUDEL eta EUSKO JAURLARITZA (KULTURA SAILA) (2001): *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak. Entidades de población de la Comunidad Autónoma Vasca*, Eudel, 9. zenb. Villatuerta.
- GALÉ, P. (2000) *Bizkaiko gailurren katalogoa. Catálogo de cimas de Bizkaia*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao.
- GONZÁLEZ SALAZAR, J.A. (1986-1998): *Cuadernos de toponimia*, Ed. Diputación Foral de Álava, Vitoria-Gasteiz.
- IRIGOYEN, A. eta OLASOLO, E. (1998) *Nombres de familia y oicónimos en las fogueraciones de Bizkaia de los siglos XVII y XVIII*, Bizkaiko Batzar Nagusiak, 5 tomo.
- JIMENO JURIO, J.Mª (1986) *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, *Onomasticon Vasconiae*, 1, Euskaltzaindia, Estella
- (Zuz.) (1992-1999) *Nafarroako toponimia eta mapagintza. Nafarroako toponimia ofiziala*, Nafarroako Gobernua, Lehendakaritza Departamentua, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, Iruña, 59 bol.
- LÓPEZ DE GUEREÑU, G. (1989) *Toponimia alavesa seguido de Mortuorios o despoblados y Pueblos alaveses*, *Onomasticon Vasconiae*, 5, Euskaltzaindia, Bilbao.
- MANTEROLA, A. (1978-1985) "La escuela vasca de etnología" *Euskaldunak: la etnia vascan*, Etor arg., Donostia, 4 bol., 25-158. orr.

- MUJIKA, L.M. (1989) *Euskal toponimiazko materialeak*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia-San Sebastián.
- QUÉBEC (GOURVERNEMENT). COMMISSION DE TOPONYMIE (1996): *Noms et lieux du Québec: dictionnaire illustré*, Québec, Commission de toponymie, 2. arg.
- RAYMOND, P. (1983): *Dictionnaire topographique du Département des Basses-Pyrénées*, Ekaina, Saint Jean de Luz, (1863. urtekoaren berrargitarapena).
- SASÍA, J.M. (1966): *Toponimia euskérica en las Encartaciones de Vizcaya*, Gráficas Ellacuría, Bilbao.
- UGARTE, J.L. (1998) *Urretxu eta Zumarragako toponimia*, Onomasticon Vasconiae, 18, Euskaltzaindia, Bilbao.
- USABIAGA, A. (1993) *Andoingo toponimia*, Onomasticon Vasconiae, 10, Euskaltzaindia, Bilbao.
- VAZQUEZ MAURÉ, F. (1989): *Lectura de mapas*, Ministerio de Obras Públicas y Urbanismo, Madrid.